



ttipi-ttapa

Herrietako
bestak

BESTA gehigarria / 24



ONDIKOL

**Baztandarren
Biltzarra uztailaren
22an egingen dute
Elizondon / 46**



NOAUA

**Nerea Sorondok
Euskal Herriko
txapela jantzi du
aizkoran / 54**

**Pier Pol Berzaitzen
'Laida Pilota' lana
ikusgai bi egunez
Senperen / 53**

SINADURAK



AITOR
AROTZEN
ALBIZU / 3



KORO
IRAZOKI
ARBURUA / 3



GABI
GOIA
IPARRAGIRRE / 4

ttipi txartela

Josune Sorando Odriozola
72873152-A
2019/04
372

ZOZKETA / 64



TTIPI-TTAPA

Pilar IRAZOKI ELGORRIAGA

**«ADITU ETA ISILDU, DENA GORDE,
GUK HORI IKASI DUGU»**

92 urteko alkaiagarrak hurbiletik ezagutu zuen Gerra Zibila. Garai hartako kontuez eta emakumeek orduan zuten tokiaz solastatu da TTIPI-TTAPAREKIN. / 10

Plastikoari irtenbide bila

CAF-Elhuyar sari entzutetsuenetako bat irabazi dute Lesakako Alaitz eta Iraia Etxabide ahizpek / 8



Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek Nafarroa Garaiko
mendialdean hartu
duen 111 udalerrien
eremuan ere

Ttipi-Ttaparekin
zure iragarkiak eragin
haundiagoa du

29.000
irakurle
TTIPI-TTAPA

8.000
irakurle
DIARIO NOTICIAS

10.000
irakurle
DIARIO NAVARRA

2.000
irakurle
ARGIA

4.000
irakurle
BERRIA

6.000
irakurle
GARA

SEXUAREN ARABERA

Gizonak	%56,70
Emakumeak	%43,30

ADINAREN ARABERA

14-24 urte	%16,70
25-34 urte	%05,00
35-44 urte	%16,90
45-54 urte	%25,00
55-64 urte	%20,60
+64 urte	%15,70

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Oinarrizko ikasketak	%12,90
Oinarizko batxillergoa	%11,50
Goi mailako batxillergoa	%38,10
Unibertsitatea	%37,50



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Sainduz saindu, bestaz besta

Eliza katolikoaren santutegia ederki ezagutzen dugu, batez ere maiatzetik hasi eta urrirainokoa: Salbatoreekin hasi, eta ondotik Domini Saindu. Gero Trinitate, eta hortik aitzinera, San Juan, San Pedro, San Fermin, Santiago, San Esteban, San Prudentzio, Andre Mari, Santa Kruz, San Migel...

Hortxe ibiltzen ginen aste hondarrero, herriz herri bestaz besta, huts egin gabe, sekulako fedea bagenu bezala, sainduen babesaren bila bezala. Pekatu haundia zen horietako bati huts egitea.

Gure aitzinekoentzat, baratzeko lanetan aritzeko gida bat zen santutegia (sanjuanetan ez dakit zer erein, sanferminetan ez dakit zer bildu ...). Gu, berriz, bertze gisako baratzetan (herriko plazetan) erein eta uztaren ilusioarekin mugitzen ginen.

Gero udazkena ailegatzten zen. Hortik aitzinera ez genuen santurik kontrolatzen, eta ereitea eta uzta negutegira pasatzen genuen: Bordatxorat.

«AITZINEKOENTZAT BARATZEAN ARITZEKO GIDA ZEN SANTUTEGIA»



EZPALA

AITOR AROTZENA

Plastikoan itoak

Uztailaren 1etik aitzinera, dendetako plastikozko poltsak 5 zentimo ordaindu behar direla eta kexu agertu dira batzuk. Hain zaila al da etxetik kapazoa edo arrainendako *tuperra* eramanda erosketak egitea? Bere garaian plastikoak saskigileen ofizioa hondoratu zuen bezala, posible izanen ote dugu, zentuz jokatura, plastikogileak menperatzea?

NABARMENTZEKOAK



IRAIA
ETXARTE
FUTBOLARIA



BAUTISTA
MADARIAGA
HILBERRIA

Ekain oparoa izan zuen Iraia Etxarte lesakarrak. Alde batetik, Realarekin Azpeiti Cup irabazi zuen, eta horrez gain, Tximist Cup torneoan ere ibili zen. Gehiago ere bai, torneoko jokalaria onena izendatu zuten.

Arantzako bertsolaria ekainaren 28an hil zen, 92 urterekin. 60ko eta 70eko hamarkadetan Nafarroako bertsolaritzaren zutabeetako bat izan zen. 1961ean Nafarroako txapela jantzi zuen.

ATZERA BEGIRA



2008-07-24 · TTIPI-TTAPA · 475 zk.

Oizko alkate ohiarekin solasean

Duela hamar urte, Oizko alkatea izan zen Alberto San Miguel elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPA, 2007ko urriko hauteskundeetan, hirugarren aldiz alkate izendatua. Kontatu zuenez, «inor ez zegoela-eta» sartu zen bera ere udaletxean. «Agintaldi batzuetan Oizen bizpahiru talde aurkeztu izan dira, baina gaur egun, ezin dugu bat ere bildu. Nik uste dut jendeak erosotasuna bilatzen duelako gertatzen dela, ez dugulako konplikatu nahi. Herri tiki hauetan beti ateratzen dira arazoak, eta ttikia izanagatik dedikazioa eskatzen du». Auzolanaz ere aritu zen: «auzolanerako, Oizen ez dugu arazorik, auzonalaren bitartez lan aunitz egiten baititugu. Baina horren buru egiteko sortzen da koska».



erran.
eus
Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Laralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Sare sozialak, aukerak eta arriskuak

XXI. mendea bete-betean bizitzen ari garenok, gustatu ala ez, teknologia berriekin topo egiten dugula egunero eta esparru guztietan ezin dugu ukatu. Oraindik sakonago begiratu, gure gaztetxoek sozializazioan, unibertso digitalaren parte sentitzea ezinbertzekoa da, eta sare sozialak erabiltzen ez dituzten edo gutti erabiltzen dituzten gazteek baztertuak izateko arriskuan sentitzen dute beraien burua. Gainera, harremantzeko modu honetan parte hartzen ez duen nerabea 'frikia' edo 'berezia' bezala ikusten da gaur egun.

Jendartean eta zenbait hedabidetan zabaltzen ari da mende honetan jaiotako haurrak, 'natibo digitalak', inguru digitalean aritzeko eta mugitzeko jarrerak eta jakintzak berezkoak dituztela. Ideia hau fantasia bat bertzerik ez da. Gailu digitalak erabiltzea ez da berezko jakintza, ikasi egiten da. Eguneroko errealitateak erakusten digu arriskuak guttitzeko eta sareak eskaintzen dizkigun onurez baliatzeko praktika arduratsuetan hezitzea behar-beharrezkoa dela.

«HELDUON ARDURA DA ADIN TTIKIKOEK GAILUETATIK EGITEN DUTENA»

Bai gurasoentzat baita irakasleentzat ere, gai honetan hezitzea kezka handia da eta aunitzetan ez dakigu nola egin. Ondorengo lerroetan oinarri-oinarrizkoak diren hainbat jarraibide ematen saiatuko naiz:

-Lo egiteko orduak ezin

dira negoziatu, WiFi itzali eta gailuek logelatik kanpo egon behar dute. Ikerketek erakusten digute institutuko ikasleen gehiengoak sei ordu baino guttiago lo egiten duela, bederatzi ordu gomendatzen denean.

-Egunean zehar, zenbait toki eta momentu (otorduak, familia bildua dagoenean...) 'pantailarik gabekoak' bihurtu behar ditugu. Nolabaiteko desintoxikazio digitala lortu behar gure gure begiek eta zerebroak atsedena har dezaten.

-Adin ttikiko neska-mutilen gailuetan dauden aplikazio eta haietatik egiten den guztiaren ardura helduoi dagokigu (gurasoei etxean eta irakasleei eskola orduetan). Honenbertzez, ezagutu behar ditugu erabiltzen dituzten aplikazioak, sartzen diren web orriak, erabilitako bideo-jokoak, eta horiek guztiak zenbat, noiz eta non erabiltzen dituzten.

-Sarean mugitzeko arauak ezagutu behar dituzte: ezezagunei datu pertsonalik ez eman, pasahitz errazik ez erabili, webcam-eko begia estali, bertze pertsona baten izenean sarean ibiltzea delitua dela jakin eta egiten dugunaren arrastoa betirako gelditzen dela argi eduki.

Eta batez ere erakutsi behar diegu, sare sozialetan ere, bertzeak errespetatu behar ditugula, erabilera okerrak bertzei mina eta kalte handia eragiten ahal diela.

ZUHAITZ BELOKI LEITZA

Gidaririk gabeko autoak

Aurtengo martxoko gau batean, Elaine Herzberg Arizonako errepide bat gurutzatzen ari zen auto batek harrapatu eta bertan hil zuenean. Ez zen zebra-bide batean gurutzatzen ari, ez zegoen semafororik. Horrelako kasuak egunero gertatzen diren arren, istripu horrek mundu guztian oihartzun handia izan zuen. Autoak ez zeukan gidaririk.

Jende askok ibilgailu autonomoak zientzia fikziotzat zituen albiste horren berri izan arte. Izan ere, askok uste genuena baino aurreratuago dago teknologia berritzaile hori. Badira urte batzuk horrelako ibilgailuak errepide publikoetan dabiltzala, nahiz eta oraindik probetarako bakarrik baimenduta egon. Baina erne datu honi: ibilgailuen konpainiek diotenez, 2020rako merkaturatu nahi dituzte guztiz autonomoak diren autoak.

Ibilgailu autonomoak gizarteratzeak aldaketa nabarmena ekarriko du maila askotan: bukatu dira parrandara inguruko herrietara ez ateratzeko aitzakiak, eta sagardotegi garaian ere eztabaida ugari aurreztuko dira autoa nork eraman

«2020RAKO GUZTIZ AUTO AUTONOMOAK MERKATURATU NAHI DITUZTE»

behar duen erabakitze orduan. Baina hortik harago, gidatzeko arazo fisikoak dituztenei ere mundu berri bat zabalduko zaie, baita oraindik gidatzeko adinik ez duten gaztetxoei edo

erreflexuak galdu dituzten adinekoei ere. Gainera, lanerako bidean egunero galtzen ditugun ordu horiei ere etekina aterako genieke: ikasle alferrek bezperan egin ez zituzten etxeko lanak eginez, langileek eguneko bilerak prestatuz, edo, besterik gabe, egunkaria irakurritz. Ez litzateke harritzekoa eserlekuen kokapena ere aldatzea, mahai baten inguruan kokatuz, adibidez.

Zalantzarik gabe, bere alde txarrak ere izango ditu, hasieran batez ere. Teknologia oso aurreratu dago, baina ausartuko al ginateke gidaririk gabeko auto batean 120 km/h-ko abiadura joaten? Edo hiri-barruko kaosean sartzen? Bestalde, zer gertatuko da gidari profesionalen lanpostuekin? Buruhaute ugari eragingo ditu hurrengo urteetan kontu honek, baina garbi dagoena da teknologia etengabe aurrera doala, eta aldaketa asko eta handiak ezagutuko ditugula etorkizun hurbilean ere.

11 GALDERA LABUR

PINO VICEDO ARANOKO EMAKUMEA

«Udan herrian xakean jokatzeko egun bat antolatu nahi dut»

Aurkeztu zure burua...

Zeramikaria, marrazkilaria, tatuatzailea, sortzailea naiz. Gauza askok eragiten didaten ezinegona dela eta, arreta gauza bakarrera mugatzea zail gertatzen zait.

Beraz, zaletasun asko dituzu?

Bai, batzuk aipatze aldera: irakurtzea, marraztea, zeharkako-txirula jotzea, xakea...

Xakea aipatu duzu... Ekainean Gipuzkoako emakumezkoen txapelketan bigarren sailkatu zinen...

Ez nuen espero. Gipuzkoan emakume xakezale gutxi daude, baina batzuek ni baino dezentere hobe jokatzeko dute. 15 lagun aurkeztu ginen eta bosna partida jokatu genituen. Partida batzuek lau ordu iraun dezakete; horiek dira zailenak.

Txapelketan aurkeztu zaren lehendabiziko aldia izan da?

Ez, lehendabiziko aldia joan den urtean izan zen. Baina aurreko gehiago ginen eta zailagoa izan da.

Noiz hasi zinen xakean jokatzeko?

Aitak txikia nintzela erakutsi zidan, baina egiazki jokatzeko hiru urte daramatzat. Gipuzkoako Emakume Xakelariak taldean jokatzeko dut.

Zein da jokalaritza ona izateko sekretua?

Sormena, kontzentrazioarekin batera, noski.

Zer eskaintzen dizu xakeak?

Nire indarguneak atera eta horiek jokoan txertatzen saiatzen naiz. Autoestimua, kontzentrazioa eta memoria landu; eta jatorri zein adin asko-



tako jendea ezagutu dut. Taularen aurrean denak parekideak gara, aurreiritzirik gabe jokatzeko dugu.

Festetan ere xakean?

Deskantsatzeko eta familiarerkin egoteko aprobetxatuko dut. Udan herrian xakean aritzeko egun bat antolatu nahi dut, baina segur aski ez da festetan izango.

Festetako momentu bereziena?

Azoka, zalandzarik gabe. Janari eta edarien bueltan giro

ederra izaten da. Hurrek, gazteek eta helduok momentu beraz gozatzen dugu. Denak irriz gaude. Irribarreak gustatzen zaizkit.

Festen ondotik...

Udan txapelketa asko daude. Ahal dudana guztietan parte hartuko dut. Xakean hobetzea maiz jokatzeko garrantzitsua da.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Nire familiak eta sormenerako dudana denborak.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Zure osasun zentroa Irun erdi-erdian
centro médico
osasun zentroa
Bidasoa

Lezo, 4 - 20301, IRUN
Tel. : 943 63 39 74 - 943 63 40 38
cmbidasoa@centromedicobidasoa.com
www.centromedicobidasoa.com

BERRIKUNTZA
Ginekologia, obstetrizia
eta lagunduriko
ugalketaren unitate
berria Irunen.

OSASUN-ZERBITZUAK

- Kardiologia
- Familia eta Komunitateko Medikuntza
- Nutrizioa eta Dietetika
- Psikologia

ZERBITZU KIRURGIKOAK

- Kirurgia baskularra
- Kirurgia Orokorra eta Digestio-Kirurgia
- Obstetrizia-Ginekologia
- Otorrinolaringologia
- Traumatologia
- Urologia

BESTE ZERBITZUAK

- Podologia
- Erizaintza

ZERBITZU NAGUSI, DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOAK

IRAKURLEAK MINTZO

Jauzi egin genuen Hondarribian!**ANA AROZTEGUI**TOPAGUNEN MINTZAPRAKTIKA BATZORDEKO
KOORDINATZAILEAK

Nabari zen handia izango zela, Euskal Herri osotik etorritako mintzalagunak autobusetatik jaitsi orduko. Arraun elkarteak Bidasoan gora etorrira Hondarribian festa piztu orduko. 'Itxeki euskarari' zapiak jantzita, harro, Abiyuan txarangarekin kalejiran hasi ginen unetik.

Harro gaude bidelagun eta bidelariak jauzi egin genuelako kalera, mingainari lotsa barik eraginez. Mintzalagunek eta Blagankideek elkarrekin jarri genuelako dantzari Hondarribia. Kalejira, bazkari, dantza, kontzertu, kantu artean harremanak estutu eta berriak sortu genituelako. Euskaraz bizi nahi dugulako elkartu ginen.

Euskaraz hitz egiteko egin genuen jauzi. Euskaraz gainditu genituen lotsak eta lotsa barik eman genion mingainari. Eta datorren urtean ere elkartuko gara mintza taldeetan, herriz herri, auzoz auzo. Euskaraz ondo pasatzen segituko dugu eta elkarrekin emango dugu katean, etxean, lanean euskaraz mintzatzen hasteko jauzia.

Euskaraldian horretarako aukera bikaina izango dugu, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Beste mila belarriprest eta ahobizirekin egingo dugu jauzi, euskaltzale guztiok batuko gaituen erronka batean. 11 egunez, euskaraz arituko da Euskal Herria! Herri, auzo, familia, lantegi askotan euskaraz aritzen hasteko lehen pausoa izango da. Bidean aurrera jarraitzeko. Jauzi handi bat emango dugu elkarrekin, katean ere euskaraz bizitzeko!

Besarkada bero bat Hondarribian saltsan ibili zinetenen mintzalagun, berbalagun, mintzakide, solaslagun eta solaskide guztiei. Mundialak zarete!

Blagankideei, berriz, eskerrak bidelagun finak izatearren.

Datorren urtean ere izango dugu zer ospatu. Bitartean jarrai dezagun jauzi egiten!

Ingurumena**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Gaur egun, gehien erabiltzen den hitzetako bat ingurumena da. Edozein komunikabidean, klima aldaketari buruz hitz egiten da, behin eta berriz. Hilabete batez jarraian, euririk egiten ez badu, berehala hasiko zara klima aldaketa izendatzen. Neguan egun eguzkitsua edo tenperatura epela egiten badu, gauza bera. Eta zer esanik ez, hiru negu segidan ur tantarik gabe egiten baditu, 80ko hamarkadan bezala. Denak beldurtu ginen urtegiak hustuta ikusiz. Hurrengo neguan urtegiak gainezka jarri ziren eta mamu guztiak desagertu ziren denbora baterako. Izadiak bere zikloak ditu, batzuk laburrak eta besteak luzeak. Gizakiaren bizitza motza da eta izadiak dituen ziklo luzeak ezin ditu esperimentatu. Dena den, gure bizitza laburrean ere, fenomeno meteorologikoak errepikatzen dira. Urteotan asko hitz egiten da kostaldeko kalteez eta olatuen altueraz. Garai bateko olatuak baino indartsuagoak dira gaurkoak? Kostaldeko jendeak esperientzia gehiago du baina nik gogoan dut, gazte denboran, Donostiako Pasealeku Berria ia urtero hondatzen zela olatuen indarrez. Kristauen artean, esanguratsuak dira oraintsu arte egiten ziren errogatibak, besteak beste, euria egin zezan. Ohitura horiek Erdi Aro hasieratik ezagutzen

dira Eliza Katolikoaren dokumentuetan, eta ustez, lehenagotik zetorren ohitura zen. Eguraldiaren gorabeherak gutxienez mila urte eta gehiagotik ezagutzen dira. Naturaren fenomeno atmosferikoak ez daude gure esku. Gizakiak ezin ditu menperatu, baina gure jarrerak badu zerikusia. Orain gutxi arte baliabide naturalak neurrigabeak zirela uste genuen. Eta oraindik praktikan, horrela bailitzan ari gara. Itsasoak, ibaiak, airea, lurzorua... Dena etengabe kutsatzen ari gara.

Hemen arnasten dugun airea ere gero eta kutsatuagoa da. Azken urteetan, agintariek hondakinekin buruhauste asko dauzkate. Batzuk hondakinak errausteko instalazioen alde daude eta besteak kontra, osasunarentzat kaltegarria dela adieraziz. Kasu askotan, arazoak berak baino protagonismo handiagoa du politikarien arteko lehiak eta hori baino garrantzitsuagoa da hondakinak ondo bereiztea. Gipuzkoan gaia pil-pilean egon da eta aukeraketa bat edo beste izan, helburu garrantzitsuena lortu dute: jendea hondakinen arazoak kontziente izatea. Hondakinak ahal den gutxien sortu eta sortutakoa ondo banatu behar dugu.

Ingurumenarekin lotutako beste arazoak, eta ez txikiak, suteak eta baso-ustiapenak dira. Sute gehienak nahita omen dira. Benetan, penagarria. Basoetan neurrigabeko ustiapenak egiten dira enpresen aldetik. Lurra basamortu bihurtzen ari gara eta kasu horietan ere, exijitzera behartuta gaude. Baina guk geure aldetik ahalegin guztia egin behar dugu ingurumena hobetzeko. Garrantzi txikia izango dute, beharbada, baina gure kale bazterrek asteburuetan batez ere, badute zer hobetu. Musikaren zarata ere ingurumenarekin lotua dago. Neurrigabeko zarata ezin da izan oso osasuntsua; baina dirudienez, saihestezina da. Hala ote? Europako beste lurraldeetan lortu badute guk hemen zergatik ez?

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

GOITI ETA BEHEITI




UTZITAKO ARGAZKIA

Oinezkoentzat oztopoak kentzen



Mugikortasuna hobetzeko neurrien artean, oinezkoentzako trabak kendu eta espaloian espazio gehiago izateko lanak egin ditu Leitzako Udalak.

HEMEROTEKA



«Ilusio handia egiten dit txupinazoa bota izanak. Ahal dudanean laguntzen saiatzen naiz (...) Ez da norberarengatik egiten; gainerakoengatik egiten da, Doneztebekoa iza-teagatik harro nagoelako».

LOLI OSTOLAZA DONEZTEBE
D. VASCO. 2018.06.29



«Euskal Herri guztian holako ekimenak [Usopop] antola daitezen nahi genuke. Tipiak, baina ugari, eta giza tamainakoak, hurbileko tratua baitmentzen dutenak. Makrofestetara joateak nekatzen gaitu».

J. GARCIA- P. GAICOTCHEA
(SARA). ARGIA. 2018.06.24

BOTA BERTSOA



EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI BERA KO BERTSOLARIA

Emakumeen Oroimen Baratzea

Doinua: Itsasoari begira

*Gibelerantza begitzean maiz
Ahazten dugu erdia
Iraganari jartzen diogu
Gizonezko aurpegia
Antzerkiana pasa ta gero
Ez itzaltzeko argia
Zelai eder bat eginen dugu
Loratu dadin egia
Hazietatik behingoz sortzeko
Gurea den historia.*

*Bortz emanaldi egin genitun
Bateko eta bertzeko
Emakumeen aldean jarri
Ta oroimena lantzeko
Ta ondorioz ideiei berri hau
Aurrera eramateko
Haziak erein eta eskatzen
Dizuegu etortzeko
Balio dezan elikatu ta
Luzaroan irauteko.*

ITURRI ONETIK



Alde batetik, Emakumezkoen I. San Fermin Torneoa eta bertzetik, Emakumezkoen Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa. Estreinakoz, bi txapelketa horiek antolatu dituzte aurtun, emakumeentzako propio eginak. Lehenbizikoan, sei bikotek hartu dute parte eta tartean aritu da Naroa Elizalde zubietarra. Aipatutako aizkora txapelketa, berriz, uztailaren 1ean jokatu zuten Usurbilen. Eskualdeko hiru emakumezko aritu ziren eta Nerea Sorondo beratarra nagusitu zen. Maika Ariztegi iturendarra bigarren gelditu zen eta Xanta Souza lesakarra hirugarren. Txapelak aurtun guztientzat izanen dira...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

«Plastikoari ematen zaion irtenbidea ez da jasangarria gaur egun»

ALAITZ ETA IRAIA ETXABIDE ETXEBERRIA AHIZPAK CAF-ELHUYAR SARIA LESAKARA

CAF-Elhuyar sari entzutetsuetako bat irabazi dute aurten Lesakako Etxabide ahizpek, plastikoek sortzen duten zaborrari irtenbide zirkularra ematen dion dibulgazio orokorreko artikuluarekin

AITOR AROTZENA LESAKA

CAF-Elhuyar dibulgazio orokorreko artikulu onenaren saria Lesakako Alaitz eta Iraia Etxabide Etxeberria ahizpek irabazi dute aurten, *Irtenbide zirkularra, mundua irensten ari den nonahiko zaborraren kontra* izeneko artikuluarekin. Plastikoen arazoari aurre egiteko irtenbideak ikertzen ditu Alaitzek, eta idatzi duen artikulurako ilustrazioak egin ditu Iraia ahizpak.

Artikulu sarituaren idazketaz arduratu zara... Nola izan da elkarlana ahizparekin?

Ahizpari CAF-Elhuyar sarietan parte hartzeko proposamena egin nioenean, zein gaiarekin aurkeztu nahi nuen aipatu eta ilustrazioak egiteko bere laguntza eskatu nion. Artikulua idazten ari nintzen bitartean gutxi gorabehera ilustrazioen ideia tiki bat banuen. Testua amaitu eta bere iritzia jaso ondotik, Iraiak ilustrazioak prestatu eta testuan txertatu zituen lana osatu eta horrela gure iritzia eta proposamenak partekatzeko. Nahiz eta hasieran bakoitza eginkizun batean egon ginen, bukaerako artikulua bien gustukoa izateko elkarlanean aritu ginen. Guretzako lehenbiziko aldia izan da elkarrekin horrelako lan bat egiten duguna baina bi ahizpen artean harreman hagitz ona dugu eta konfiantza haundia iritzia eta proposamenak emateko eta aditzeko.



Alaitz Etxabide Etxeberria, artikulu saridunaren idazlea. UTZITAKO ARGAZKIA

Irtenbide zirkularra, mundua irensten ari den nonahiko zaborraren kontra... Zein da lan honen xedea?

Lan honen xedea etxean sortzen dugun plastiko zaborrak

ingurumenean eta pertsonengan eragindako arazo berri ematea eta nagusiki gizarte kontzientziatzea da. Gaur egun plastiko zaborrei emandako irtenbideak ez dira jasanga-

«PLASTIKOEK BIRZIKLAPEN-ZIKLOA MUGATUA DUTE ETA, HORREGATIK, BIRZIKLATUTAKO MATERIALA PLASTIKO BERRIAREKIN NAHASI BEHAR DA»

rrienak eta bide horretatik jarraitzen badugu arazoak bertan jarraituko du. Nahiz eta plastikoen arazoaren gaia aunitz landu den eta horretan oraindik lan aunitz egiten ari den, gizarteak ardura eta inplikazio handiagoa izan behar lukeela uste dugu.

Zaborra diozunean, gehienbat plastikoa aipatzen duzu... Izugarria da material honen hedapena. Egiatan posible ikusten duzu egoera hori iraultzea? Zein dira artikuluan lantzen dituzun soluzioak?

Plastikoa aplikazio ugarietan erabiltzen den materiala da: Elikagaiak ontziratzeke, medikuntzan, ibilgailuetan, erakuntzan, eta abar. Plastikoa leku guztietan dago eta bere hedapena izugarria da. Erabilerarik nagusiaren ontziratzea da eta bereziki erabilera bakarreko ontziak ekoizteko erabiltzen da plastikoa. Plastikoa lortzeko natura-baliabideak (amaitzen ari den petrolio) etengabe ustiatzen ari dira eta aipatu bezala, egungo plastiko zaborren kudeaketa (plastiko zaborra erretzera edo beste lurralde batzuetara eramatea) ez da irtenbiderik jasangarriena. Plastikoen bide honetan sortzen diren bi arazoei irtenbidea emateko, iturri berriztagarrietatik datozen material biodegradagarrieekin egindako plastikoak erabili behar dira. Bide horretan, amaierako zaborra produktu berriak ekoizteko erabiltzen da; ibilbide osoan, zero zabor sortzen da eta materialaren bizi zikloa ixten da.

Birziklatzea gero eta zabalduagoa dugu, baina zakarrontzi horira botatzen den guztia ez omen da birziklatzen. Zergatik?

Hainbat arrazoi daude zakarrontzi horira botatzen den plastiko guztia birziklatua ez izateko. Alde batetik, zakarra gaika bereizten dugunean, zakarrontzi horira bota behar ez den zakarra botatzen dugu eta horrek zaildu egiten du zaborrak gaika sailkatzen di-

tuzten instalazioen lana eta ondorengo birziklapen-prozesua. Bertzetik, plastiko ezberdinak ezin direnez elkarrekin birziklatu, zakarrontzi horitik ateratzean, plastikoak identifikatu eta bereizi behar dira. Plastikoari gehigarriak gehitzen zaizkionez, konposizio kimiko ezberdinetako plastiko ugari aurkitzen dira aunitzetan, janari- eta edari-hondarrez zikinduak daudenak edota bertzelako materialak dituztenak. Horrek guztiak plastikoa identifikatzea eta bereiztea zailtzen du. Horretaz gain, plastikozko ontzien birziklapenak mugak ditu. Horietako bat berrerabilpena da. Elikadura-segurtasunagatik, plastiko-mota batzuk ezin dira berriro elikagaiak ontziratze-ko erabili, eta, ondorioz, erabilitako plastikoari bertze aplikazio bat eman behar zaio. Bertze mugetako bat, plastikozko ontziak birziklatzeko erabiltzen diren prozesu termikoak dira. Prozesu horiek plastikoa degradatzen dute, eta materialak, bidean, propietateak galtzea eragiten dute. Horrela, plastikoek birziklapen ziklo mugatua dute, eta horregatik, birziklatutako materiala plastiko berriarekin nahasi behar da, amaierako produktuak beharrezko propietateak izan ditzan. Horrek guztiak galarazi egiten du %100 plastiko birziklatuarekin egin-dako ontzien ekoizpena.

Bertze dibulgazio artikulurik idatzi duzu? Edo idazteko asmorik?

Gehien bat ingelesez artikulurik zientifikoak idazten ditut, ikerkuntzaren munduan hizkuntza erabiliengana ingelese delako. Euskaraz ere artikulurik batzuk idatziak ditut, Ekaia-EHUko Zientzia eta Teknologia aldizkarian argitaratuak. Lehenago erran bezala, lehenengo aldia da dibulgazio artikulurik bat idazten dudana baina artikuluren arrakasta eta gero, euskaraz dibulgazio artikulurik gehiago idazteko motibazioa piztu zaidala erranen nuke.



Iraia Etxabide, CAF-Elhuyar saria jaso zuenean maiatzan Donostian.

«Publiko orokorrera mezua mamitua ailegatzeko ilustrazioak egin ditut»

IRAIA ETXABIDE ETXEBERRIA ILUSTRAZIOEN EGILEA

Iraia Etxabide Etxeberria izan da Elhuyarrek saritutako artikulua ilustratu duena.

Artikulu sarituaren grafikoetaz arduratu zara... Nola izan da elkarlana ahizparekin?

Zeinbat ilustrazio egin ditut artikulua bera erakargarriagoa eta ulergarriagoa egiteko. Irakurketa arindu eta publiko orokorrera mezua mamitua ailegatzeko. Dibulgazio artikulurik orokorra dela kontuan hartu behar izan dugu, non irakurlea ez den gai honetan aditua. Nahiko konfidantza badugu elkarrekin lanean aritzeko eta bakoitzak bere aportazioa egiteaz gain bertzearen lana ere baloratu du. Ongi moldatu gara talde lanean, eta horrelakoa izan da emaitza ere. Gainera, irakasle ezin hobea eduki dut bioplastikoen inguruan ezagutza handitzeko.

Erraza al da zaborrak bezalako gai bate-rako ilustrazioak egiteko 'inspiratzea'?

Inspirazioa ez da batek nahi duen guzietan agertzen, baina kasu honetarako nahiko argi genuen zer nolako irudiak landu nahi genituen. Biografiak irakurri eta aztertu ondotik hartu



genuen erabakia. Zenbait proposamen eta zuzenketa ondotik lortu genuen bien gustokoak ziren ilustrazioak.

Bertze artikulurik edo lanetarako ere egin dituzu ilustrazioak?

Lehenengo aldia da elkarlanean aritzen garena eta ez dut inoiz lehenengo artikulurik ilustratu. Zeinek daki hemendik aitzinera... Ez dut diseinu grafikoak ikasi baina beti gustatu izan zait mundu hau.



Pilar Irazoki bere etxean. TTPI-TTAPA

«Atzo arte, emakumea erabat menperatua izan da»

PILAR IRAZOKI ELGORRIAGA 92 URTEKO ALKAIAGARRA

Gerra Zibileko kontuez aritzean, emakumeen begirada bazterrean utzi izanagatik, Irazokik argi utzi du emakumezkoek zer kontatua badutela

G. PIKABEA ALKAIAGA

Ulertzea zaila bada ere, 1936ko gerraz aritzean, guttitan aipatu izan dira emakumezkoak. Ez ziren aunitz izan gerra frontearen lehenbiziko lerroan ibili zirenak, baina emakumeak ere protagonista izan ziren eta gerraren ondorioak jasan zituzten. Gehiago ere bai, gizar-tearen zutabe garrantzitsuak izan ziren.

Pilar Irazoki Elgorriagak Gerra Zibila «bete-betea» eza-gutu zuen, eta gerra hasi zenean hamar urte bazituen ere, badu zer kontatua, eta merezi du aditzea. 93 urte beteko ditu urrian, baina ongi dago, ongi eta argi. Ez ditu ahanziak ger-rako kontuak. Haietaz solas-

tatzeko ireki dizkigu Alkaiaga-ko bere etxeko ateak. Gorrin-txean, auzoko azken denda eta ostatu izan zen tokian, bildu gara mahaiaren bueltan.

«Petrila erreketez bete»

11 urte bete gabeak zituen gerra hasi zenean: «goizeko zortziak aldera marmidak har-tu» eta baseritik, Martintxe-berritik, Berako bizpahiru etxetara esnea eramatera abia-

**«MARMITAREKIN
HERRIRA AILEGATU
ETA ERREKETEAK
IKUSI NITUEN»**

tu zen. «Bidean, bi emakumek nora nindoan galdetu zidaten eta nik halako etxera nindoa-la erran nien. 'Mugitu agudo, Pilartxo', erran zidaten. Batek bertzeari 'laster ailegatuko dira, bidean izanen dira' erra-ten sumatu nituen». Ez zekien zertaz ari ziren, baserrian ez baitzuten deus ere aditua. Ge-rora jakin zuen errepublikarrez ari zirela. Aitzinera segitu eta herrira ailegatutakoan ikusi

**«EMAKUMEEN
ERRANAK EZ ZUEN
BALIO ETA HORI
NORMALA IZAN DA»**

zuen irudia oroimenean ongi iltzatua gelditu zaio: «Dorre ondoko petril luzea erreketez bete» ikusi nuen». 1936ko uz-tailaren 21a zen, matxinoak Berara ailegatu ziren eguna.

Agudo jakin zuten gertatua-ren berri: «hamarrak aldera, segituan ikasi genuen Endar-latsako zubia bota zutela». Zubirik gabe, matxinoek Gi-puzkoara joateko bertze bideak bilatu zituzten: «mendiz hasi ziren. Batzuk Lesakatik, ber-tzeak Alkaiagatik». Fundiciones fabrika eta Bidasoko trenaren geltokia zuten: «Endar-latsako zubia bota zutenean, frankistek trenaren burdinbi-deak altxatu zituzten kamioiak Gipuzkoara pasatzeko». Mojen eskola, berriz, ospitale bezala egokitu zuten. Matxinoen eto-rrerarekin «izugarritzko mugi-mendua» sortu omen zen Beran: «Irun hartu arte, fron-tea Beran egondu zen eta tiroak aditzen genituen. Batzuk joan, bertzeak etorri, erituak, atxi-lotuak, fusilatuak, hildakoak... izandu ziren».

Harrobia hiltegi

Berako harrobia hiltegi bat izan zen Gerra Zibilean, dio-tenez, Nafarroako haundiena. Jendea fusilatzen zuten harro-bian eta Irazokik, harrobia

etxetik hurbil izaki, tiro hotsak aditzen zituen: «gauez, tiroak aditzen genituen. Hala jakiten genuen gau hartan fusilatuak izan zirela. Ez ziren egunero izaten, baina maiz». Halakoe-tan «beldurra» sentitzen zue-la aitortu digu, baita aita kanpoan zuenean ere: «atta eta bertze gizonezko batzuk heritarren babesaz arduratzeko izendatu zituzten eta gauez herria zaindu behar izaten zuten. Atta kanpoan izaten zenean, beldurra pasatzen genuen. Jendea fusilatu zute-la erranez etortzen zen etxera. Nahiz eta ni gaztea izan, kon-turatzen nintzen».

Sei beratar fusilatu zituzten gerran, eta tartean zen Irazo-kik esne marmitekin herrira zihoala ikusi zituen bi emaku-me haietako baten senarra. Ezagunak zituen: «gau hartan Beran mugimendu haundia izandu omen zen eta fusilatu zutena taxista zen, jendea Be-ratik Irunera eta Irundik Be-rara eramaten ibilia».

Sufritu eta isildu

Emakumeek gerra denboran izandako lekuaz ere aritu da Alkaiagako: «gerraz solastean, emakumeen konturik ez dago. Aditu eta isildu, dena gorde, guk hori ikasi dugu eta erran beharreko gauza aunitz ez ditugu erran». Halaxe onartu digu. Garai hartako «matxis-moa» aipatu du: «emakumea-ren erranak ez zuen balio eta hori normala izandu da. Ema-kumea ez zen deusetan sar-tzen». Frankistek hiribururen bat hartzen zutenean, ospa-tzeko manifestazioak egiten omen zituzten Beran. Herri-tarrek ere parte hartzen zuten, «baina emakumezkoek ez». Halere, emakume bat ospaki-zun haietan ateratzen zela dio, «banderadun gisara».

Harremanetan ere «alderdi guztietan gizonezkoak librea-go» ibiltzen zirela dio Irazokik, «ez ginen gauez ibiltzen eta gizonezkoek emakumezkoek etxera lagundu ondotik, gizo-nek kanpoan segitzen zuten».



Irazoki, eskuinean, lurlean jarrita, 1942 aldera. Gibelean, Fundiciones fabrika eta errepedearen errebuelta, harrobia hasten den lekua.

Ikasketetan ere gizonezkoek baino aukera guttiago izan zituztela dio: «maistra izateko ikasketak banaka batzuk egin zituzten». Bera Batxilergoa ikasten hasi zen, baina «ezin izandu nuen segitu». Ikaskide izan zuen Pio Caro Baroja. Maistrak «ikasi behar nuela erraten zidan, erraztasuna banuela, baina etxean atautxi-amatxi, bertze lau senide eta ni, ahizpa zaharrena, izanda, ezinezkoa izandu zen. Base-rrian lana bazen eta nik ikasi nahi banuen ere, tokatu zi-tzaidana egin nuen».

Biktimak

Emakumezko «aunitz» neska-to joan ziren: «herriko abera-tsen etxeetara eta Gipuzkoara

edo Frantziara...», tartean inude ere bai: «Donostian opo-rretan zen Madrilgo familia bat inude bila etorri zen, eta Berako emakume bat haiekin joan zen haien haurrari bula-rra emateko, berea amatxire-kin utzita. Gero, Madriler a-raman zuten, han zela gerra hasi, eta hiru urtez ez zuten bere berririk izandu».

Haurdun gelditu eta mutilak haurra berea onartzen ez zuten kasuak ere izan ziren eta in-klusa edo haur abandonatuen etxeetara «aunitzek» jo omen zuten: «ezkondu gabe, gazte-rik haurdun gelditu eta Iruñe-ra inklusara eramaten zituzten. Batzuk han gelditu ziren hau-rra hazteagatik eta bertzeak haurra utzita etorri ziren».

Emakumeak abusuen bikti-ma ere izan ziren, nahiz eta oro har, emakumeen historia-rekin gertatu bezala, isilean gorde. Abusuak «seguru izanen zirela», erran digu, «hainbertze soldadu eta militar ibili ondo-tik... Bakarren bat behintzat bai, baina holakoak ez ziren kontatzen. Pasatzen zena pa-satuko zen, baina dena gordean. Abortuen berririk ere ez dugu izandu, baina izanen ziren».

Gorriak izateagatik bazter-tuak izan ziren emakumezkoak ere ezagutu zituen: «lehendik ezaguna nuen familia batek Iparraldera ihes egin zuen eta itzuli zirenean, alaba bat lagun egin nuen». Baten batek, ordea, Pilarren amari deitu zion «go-rriak zirela eta ni haiekin ez uzteko erranez». Irazokik, hala ere, «berdin-berdin» segitu zuen.

Bere irudiko, «emakumeok gauzak etorri diren moduan hartu izandu ditugu. Errateko moduan, atzo arte, emakumea erabat menperatua egondu da. Ez genuen erraten ahal 'zergatik'. Ez zitzaidan burutik pasatzen». Emakumeen lanak «etxean» eta «gordean» egin direla dio, baina ez du zalan-tzarik: «emakumeok gizonek egiten ahal dutena egiten ahal dugu. Hori aspalditik badakik».

Ornua beharrean zegoenarentzat

Gerra denboran «zegoenarekin moldatzen» zirela kontatu digu Alkaiagakoak: «baserrian jatekoa bagenuen eta goserik ez genuen pasatu. Baina gauzen eskasia bazen». Hala ere, ba omen zen eskean ibiltzen zen jendea, ornu bila: «uzta bildu ondotik, landan bildu gabe gelditzen den hondarra da ornu. Beharrean zirenak landetara ornu bila etortzen ziren». Izan ere, baserri-rik gabeko familiak baziren ordurako Beran: «gerrarekin Fundiciones fabrika gelditu zenean, langileen familiak jornalik gabe gelditu ziren. Preso eraman zituzten karabineroen familiak ere baserrietara joaten ziren».



Argazkiaren bidez gozamina adieraztea da lehiaketaren helburua.

12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako argazki lehiaketa

Gazteria eta sexualitateari buruzko 'Gozamenez' programaren baitan urriaren 8ra bitarte aurkez daitezke lanak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzua gazteria eta sexualitateari buruzko *Gozamenez* programaren baitan dagoenez, 2018ko uda, oporrak eta herriko besta giroa aprobetxatu nahi du Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Berako gazteei (12-18 adinekoei) lehen aldiz anto-

latu duen argazki lehiaketan parte hartzera animatzeko.

Lehiaketaren helburua Bortzirietako gazteek (12-18 urte bitarte) argazkiaren bidez gozamina, harremanak, errespetua, sentimenduak eta sentitzeko erak, aniztasuna, etab. adieraztea da. Mankomunitetik azpimarratu nahi dute

bakoitzak nahi eran, gustuko duen moduan sentitzea, disfrutatzea, erlazionatzea, komunikatzea, dantzatzea, irri egitea... zilegi dela non eta bakoitzaren hautua den, norbere burua eta bertzeena errespetatuz eginga den.

Argazkiak aurkezteko epea urriaren 8ra bitarte zabalik dago, info@bortziriakgz.eus helbidean. Parte hartzaile bakoitzak gehienez borts argazki aurkez ditzake eta JPG formatuan aurkeztu behar dira. Argazkiarekin egilearen izen-abizenak, eta bi gurasoen kontaktua (izena eta telefonoa); herria eta non eta noiz aterata dagoen jarri beharko da. Argazkiko irudiekin batera iradokitako esaldi edo azalpenen bat ere atxikitzen ahal da. Argazkiak originalak izan beharko dira eta bertze inon argitaratu gabeak.

Epaimahaia Gizarte Zerbitzuko hezitzaileak eta *Gozamenez* programako kide batek osatuko dute. Irabazlea zein den urriaren 31n jakinen da. Argazki egokirik ez bada epaimahaiak saria banatu gabe gelditzea erabaki dezake. Kirol materiala edo ikasketa materiala erosteko bonoa izanen da saria.

Alkoholaren inguruko aholkuak eman ditu Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Udan datoz herrietako bestak eta alkohola izan ohi da bestaren osagaietako bat. Halere, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ohartarazi duenez, «ez dezagun alkohola bestaren erdigune bilakatu eta sorrazten ahal dituen gehiegizko arazoei aurre egin diezaiogun. Honela, alkohola kontsumitzea edo ez kontsumitzea erabaki bat da, norberak hartu beharrekoa eta bertzeena errespetatu beharrekoa». Hori bai, alkohola edatea erabakiz gero, «kontsumoa arduratsua egiteko» deia egin dute, arriskuak guttiagotzeko neurriak hartuz: «ez gidatu, lagunak ez utzi bakarrik, ez geratu bakarrik, ez egin sustantzia nahasketarik, atsedean hartu eta zure erritmoa errespetatu». Aldi berean, adin ttikikoek ez dutela alkohola kontsumitu behar ere gogorarazi dute eta beraiei saltzea debekatua dagoela, «alkoholik gabeko edariaren eskaintza egin behar zaie».

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK

bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Cristaleria BIDASOA
Tel. 943 61 30 63

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN info@cristaleriabidasoa.com

Herri lurrak modu ekologikoan landuko ditu Udalak

Gainera, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluan (NNPEK-CPAEN) sartzeko eskaera egingen du


TTIPI-TTAPA

Herri lurretan hemendik aitzinera produkzio ekologikoak baimendutako tratamenduak bertzerik ez dira egingen. Horixe izan da Udalak adostutako erabakia. Honela, hemendik aitzinera, esleitzen diren herri lurretan, lur hauen esleipenajasetzen duenak, hauek modu ekologikoan lantzeko baldintza bete beharko du eta konpromezu hori hartuko du. Gainera, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluan (NNPEK-CPAEN) ekoizle begetal gisa alta emateko eskaera egin du Udalak eta ordezkariak ere izendatu ditu. Honela, kontrol ordezkaria, Urtzi Garaita Arza, Udal mendizaina izanen da; Sustapen ordezkaria, Josu Iratzoki Agirre alkatea eta Kontabilitateko ordezkaria, M^a Dolores Oyarzabal Zubieta, Udal kontuhartzailea.

Transgenikorik gabe

Udalak 2016ko martxoko osoko bilkuran transgenikorik gabeko zonaldea izendatu zuen udalerria. Mozio horretan glifosatoa erabiltzeari uztea aipatzen zen, baita produkzio ekologikoa bultzatzea eta gehien bat bertakoak kontsumitzekoaren aldeko apustua egitea ere. Bide horretan Udalak jadanik pauso batzuk eman ditu, lorazaintzako lanetan glifosatorik ez erabiltzea, adibidez, edo Udalak esku hartzea duen jantokietan produktu ekologikoak erabiltzen hastea, Zahar Etxean adibidez.

Oraingoan bertez urrats bat emanen da, herri lurrak modu ekologikoan kudeatzeko kon-



Herriko ikuspegia. ARTXIBOKO ARGAZKIA

promisoa hartu baita. Herri lurren artean daude oihanak eta mendiko larreak. Hauetan, normalean, ez da tratamendu kimiko berezirik egiten eta beraz ekologikoki erabiltzen direla erran daiteke. Hemendik aitzinera, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluarekin elkarlanean herri lur hauek ekologikoki erabiltzen direla bermatuko da. Neurri honek ez die eraginen herriko abeltzainek, jadanik, erabiltzen dituzten luberri, irazelaiei edo bertze herri lurrei, baina, hemendik aitzinera, esleitzen diren herri lurak produkzio ekologikoak jarritako neurriak errespetatuz erabili beharko dira.

Udalak onartutako mozioaren arabera, «ikusten ari gara, egunetik egunera, gure ingurua kutsatuagoa dagoela eta ingurunean aurkitzen den kutsadura hori azkenean guregan heldu dela elikagaien bidez. Behar-beharrezkoa da gure ingurunea pozoitzen ez segitzea eta bere osasuna zaintzea, bidenabar, gurea zaintzen ari garelako. Horretarako produkzio ekologikoak jartzen dituen irizpideak errespetatzea garrantzitsua iruditzen zaigu bertzeren artean».



UTZITAKO ARGAZKIA

Kantu bereziarekin dator Euskaraldia

Berako Euskaraldiaren aurkezpenean musika protagonista izan zen ekainaren 29an Illekuetako parkean. Ekhiñe Zapirainek, Eneritz Zapirainek eta Lizar Elexpuruk kanta sortu dute Euskaraldirako. Sara Telletxea Bortzirietako Hamaikakoko kideak ere kantatu du.

Danborradan izen emateko epea eta entsaio-egunak

Aurten ere danborrada egingen dute bestetan. Abuztuaren 4an, larunbatearekin izanen da, 12:30ean hasita, Herriko Etxeko plazatik Altzateko plazara. Errekalde, Xuga eta Katatu ostatueta eman daiteke izena uztailaren 20a bitarte. Guttienez 40 lagunek eman beharko dute izena, danborrada atera dadin. Izena emateko borts euro ordaindu behar da, gosaria eta danborraren truke. Entsaioak, berriz, uztailaren 26an eta 30ean egingen dituzte, 20:00etan Herriko Etxeko plazan.

4x4 Triala eta Gau Krosa egingen dira besten bezperan

Besten aitzineko asteburuan kirol probak izanen dira herrian. Uztailaren 28an, Berako 4x4 Triala egingen dute Ibar-dingo bidean, Postasen. Larunbatean 15:00etan hasiko da proba. Bertzalde, Manttalle Mendi Lasterketa taldeak antolatutako Gau Krosaren bosgarren edizioa abuztuaren 1ean egingen dute. Merkatu Plazan 22:15ean hasi eta bertan bukatuko da 7,3 kilometroko lasterketa. Gehienez ere 200 korrikalarik parte hartu ahal izanen dute eta kopetargia derrigorrezkoa da.



xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauernabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Euskaraldia izan da San Joan bezperako protagonista

Mertxe de Benito eta Alvaro Lopez solaslagunek piztu zuten Euskara Batzordearen sua plazan

AITOR AROTZENA

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Euskara Batzordearen eskutik hainbat ekitaldi izan zituzten San Joan bezperan plazan *Guk ahoa bizi, zuek belarria prest?* goiburupean. Izan ere, urtengoan Euskaraldia izan da protagonista eta herrian ekimen hau bultzatzen ari den lan-taldea ikurrekin plazaratu zen, Euskara Batzordearen izenean manifestua irakurtzen zuten bitartean.

Adierazpena

Euskara Batzordeko kidearen adierazpenak Euskaraldia izan zuen gaitzat, «denon borondatea, ilusioa, gogoia eta lana behar baitugu ekimena martxan paratu eta azken helburua lortzeko, eta badakigu, ederki jakin ere, honelakoak gainezka ditugula gure artean». Euskaraldia zer den ere garbi adierazi zuen, «euskaraz dakigunontzat mezu bat dakarrrena: euskara gure bizian, egoera guztietan eta denekin erabil dezagun eta erabil dezakegulako, saio moduan, azaro bukaera eta abenduaren hasieraren artean honelako zerbait egiten ahal dela agerian utziko duen aldia, denbora. Eta euskaraz jakin ez edo kilokolo zabiltzatenentzat ere badakar mandatua; *euskara al día*, alegia, sartu euskara zuen egunean, zuen egune-



Mertxe de Benito eta Alvaro Lopez.

koan, zuen egunerokoan eta zabal-zabal eduki belarriak; izan ere, ikusiko duzue prest izanez gero, Europako hizkuntza zaharrenak zuen belarriak bailakatuz muinetara ailegatu eta mingainean bukatuko duela ibilbidea, zuen ahoak ere biziartziz».

Herri Koreografia ere dantzatu zuten ttikienek, Biziberrituz euskara kanta abestu zuten trikitilariekin eta Bortzirietako Bertso Eskolak ere kantatu zuen. Erran bezala, Solasalagunak izan dira aurtien sua pizteko arduradunak, nolabait egitasmo honek laburbiltzen baitu Euskaraldia ekimena ere, «belarriak prestatuz lehen urratsa eman zuten eta gaur egun ahobizi izateko eta mingaina zorrozteko astero elkartzen dira». Solaslagunen izenean, Mertxe de Benitok eta Alvaro Lopezek piztu zuten sua, abesbatzako lau *sorginek* irrintziak botatzen zituzten bitartean. Ondotik, ohiko ospakizunak izan ziren plazan.

Iraia Etxarte jokalaria onena III. Tximist Cup-en

Hondarribian jokaturako III. Tximist Cup torneoko finala galdu zuen Donostiako Realak Osasunaren kontra. Halere, Beti Gaztek utzitako Iraia Etxarte Telletxea, izendatu zuten txapelketako jokalaria onena.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

ArcelorMittalen 60. urteko ate irekiak

ArcelorMittal lantegiak Ate Irekien eguna antolatu zuen ekainaren 26an, Lesakako fabrikaren 60. urteurrenaren aitxakian. Hiru bisita gidatu eskaini zituzten, fabrika barnetik ezagutzeko, eta ehun lagun baino gehiagok parte hartu zuen, tartean Bortzirietako udal agintariak ere bai.



JON MARTINEZ

Beti Gazteko hirugarren argazki rallya

19 argazkilarik parte hartu dute Beti Gazteko hirugarren urtez antolatutako Lesakako Argazki Rallyan. Bilduma onenaren sari nagusia Omar Igual Marcos donostiarrak irabazi du, baita *Zubiak* eta *Artea* gaietako sariak ere. Bortzirietako bilduma onena Fred Ramos lesakarrarena izan da.





Andrea Gouraud, Nerea Fagoaga eta Jaione Irigoien saridunak. JABIER IRIARTE

Bestetako kartela eta programaren azala aukeratuak

Berako Nerea Fagoagak eta Andrea Gouraudek irabazi dute kartel lehiaketa eta Jaione Irigoien herritarrek azalarena

IRUNE ELIZAGOIEN

Andre Mari bestak iragarriko dituzten kartel eta programaren azal lehiaketetara hamabi lan aurkeztu dituzte.

Karteletan hiru lan aurkeztu dituzte eta irabazlea *Erraldoi ibiltaria* lana izan da, Berako Nerea Fagoaga eta Andrea Gouraudek egindakoa. 50 euro eta bilaguntzako otordua Herriko Ostatuan irabazi dituzte. Azaletan, berriz, aurkeztutako bederatzi lanetatik garailea *Dantzaria* lana izan da, Jaione Irigoien Etxalartarrak egindakoa. 100 euroko saria eraman du.

Turismo bulegoa zabalik

Uztailaren 3tik abuztuaren 31 arte zabalik dago Turismo Bulegoa. Astegunez, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egonen da irekia, asteburuetan, berriz, goizetan, 10:00etatik 13:00etara. Astelehen arratsaldetan ez da zerbitzurik izanen eta abuztuaren 14an eta 18an itxita egonen da. Bisita gidatuak ere egingen dira. Astegunez 19:00etan (astelehenetan izan ezik) eta asteburuetan 13:00etan. Prezioa pertsonako bi euro izanen da eta guttienez bortz laguneko taldea osatu beharko da.

Ixidro Elizalde eta Jon Leiza igo dira Mont Blanc-era

Ekainaren 18an Ixidro Elizalde eta Jon Leiza Etxalarko mendizaleek 4.810 metro dituen Mont Blanc gailurra egin zuten. Pirinio eta Alpeetan ibiliak badira ere, inoiz ez zuten hain mendi alturik igot.



IXIDRO ETA JON

Gaueko kontrabando ibilbideak egiteko aukera bada

Aurten ere uztail eta abuztuko larunbatetan gaueko kontrabando ibilbideak egiteko aukera izanen da Xanti Elizagoienek gidatuta. 21:00etan izanen dute irteera plazatik eta zortzi kilometro dituen hiru ordu inguruko ibilbidea izanen da. Linterna eta mendiko botak eraman behar dira eta guttienez lau laguneko taldea sortu behar da. Pertsonako prezioa zortzi eurokoa da. Egun bat lehenago 689 702891 edo 948 635166 telefonora deitu behar da erreserba egiteko.

Arrigaraia janari denda itxi eta ireki Lizaietako ostatua

Maiatzaren 25ean Arrigaraia janari-denda itxi zuten. Juan Martin Ansalas eta Maria Isabel Sanzberrok bertan pasa dituzte bizitzako lan urteak, baina denda lehenagotik irekita zegoen, euren aitzineko belaunaldia ere aritu baitzen. 100 urte baino gehiagoz herritarrei zerbitzua eman dien janari denda hau itxita, orain plazan dagoen Ekitatiba barririk gelditu da. Aldiz, Sara-ko Stéphane Tellecheak ekainaren 9an Lizaietako benta ireki zuen. Egunero zabalik dago.



IRUNE ELIZAGOIEN

Igerilekuak zabalik abuztuaren 26a arte

Ekainaren 23an ireki zituzten igerilekuak eta abuztuaren 26a arte zabalik egonen dira. Aurten Aingeru Olabe eta Unai Zamorano dira sorosle eta Ixaka Labadie eta Jon Iparragirre arduratuko dira sarreraren salmentaz eta ostatuaz. Sarreraren desfribiladorea egonen da, orain arte Kultur Etxean zegoena.


"TELLETXEA"
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com



Miguel Bergararen senideak Olatzagutian egindako omenaldian. ©GUAIXE

82 urte beranduago agurtu dute Miguel Bergara Bereau

36ko gerra hasi eta guttira, tirokatu eta Otsaportilloko lezera bota zuten. 2017an hantxe aurkitu zituzten bere gorpuzkiak

TTIPI-TTAPA

Erail zutenetik 82 urtera, baina azkenean agur duina jaso du Miguel Bergara Bereauk. 1906an Atanborda baserrian sortua, 18 urterekin Olatzagutira joan zen lanera, bere bertze senide batzuk bezala. Han ezkondu zen, baina gazterik erail zuten: 30 urterekin, 1936ko abuztuaren 28an.

UGTko kidea zen. 1936ko gerra hasi zenean, bere senideek Olatzagutitik ihes egitea erabaki zuten, baina Miguel bertan gelditu zen. Matxinoek, ordea, hil egin zuten eta Otsaportilloko lezera bota. 2017ko

azaroan, hantxe aurkitu zituzten bere gorpuzkiak Aranzadi Zientzia Elkartekok. Hezur guztiak berreskuratu zituzten, baita kaskezurra ere, tiroaren zuloarekin.

Omenaldia Olatzagutian

Hori gogoan, ekainaren 30ean agur berezia egin zioten Olatzagutian. Memoriaren Parkean omenaldia egin ondotik, hilerrian bildu ziren, eta han lurperatu zituzten bere gorpuzkiak. Jende andana bildu zen eta tartean ziren Arantzatik joandako senitartekoak eta Arantzako udal ordezkariak.

Bautista Madariaga Elizondo bertsolaria hil da, 92 urterekin

NEREA ALZURI

60ko eta 70eko hamarkadetan Nafarroako bertsolaritzaren zutabeetako bat izan zen Bautista Madariaga Elizondo, joan den ekainaren 28an hil zen, 92 urterekin. Atautxi ere bertsolaria zuen, eta etxeko giroan bertsosazaletu zen, baita bere

anaia Xalbador ere. 1948an, 22 urte zituela, lehenbiziko plaza egin zuen eta hortik aitzinera, plazaz plaza ibili zen.

1961ean Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen eta 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusian finalista izan zen.

Emakumeen Memoriaren Baratztea igandean inauguratuko dute

NEREA ALZURI

Harritik Hazia antzezlanaren bidetik sorturiko Emakumeen Memoriaren Baratztea igandean, uztailak 15, inauguratuko dute. Udalak utzitako lur eremuan dago baratztea, Herriko Etxearen gibleko aldean, eta bailara osora zabaldua da.

Antzezlanean oparituriko hazietatik sorturiko landareak eta emakumeen historiak bilduz baratztea osatu nahi dute. Emakumeei ahotsa emanez, historia kontatu eta idazteko espazioa izanen da, naturan leku sinbolikoa emanez. Hitzordua 13:00etan da, plazan.



AITZIBER ALBERDI

Sanjuanetako suak

Hainbat herritan ohitura den bezala, Arantzán ere, ekainaren 23an, San Juan suak egin ziren eta saltoka aritu ziren hainbat herritar. Azken urteotan bezala, Guraso Elkartek antolatutako sua parkean egin zen eta haur eta gurasoek hantxe ibili ziren.



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Salto egin konpostaren alde

Ekainaren 21ean, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak antolaturiko auzo konpostaren inguruko bilera jendetsua izan zen. Haurrentzako puzgarriak eta jokoak ere izan ziren eta ondotik, konpostagailu berrien funtzionanenduari buruzko argibideak eman zituzten.



Igerilekuan egonen da tresna uda garaian. OSKAR TXOPERENA

Desfibriladorea izanen da hemendik aitzinera herrian

Bihotzekoak eman ondotik bere onera ekartzeko balio duen tresna igerilekuan egonen da udan eta ikastaroa emanen dute

TTIPI-TTAPA

Beharra ikusita, desfibriladorea nonbait paratzeko asmoarekin zebilen Herriko Etxea. Administrazioak laguntzeko pausoak eman dituzte baina ez dute lortzerik izan. Jakina denez, bihotzekoak eman ondotik bere onera ekartzeko balio duen tresna da desfibriladorea, garrantzitsua beraz. Hasiera batean, igerileku sasoia irauten duen bitartean, bertan paratuko dute eta ondotik non paratu pentsatzen ari dira, Herriko Etxean edo kontsultategian seguraski. Tresna erabiltzeko ikastaroa

Bittori erizainak emanen du, noiz izanen den erabaki gabe baldin badago ere.

Udako liburutegia

Liburutegiaz arduratzen den taldeak informazioa zabaldu du erranez uztail, abuztu eta irailean, denboraldia bukatu arte, astelehenetik ortziratera, aukera izanen dela igerilekuan liburuak eta aldizkariak irakurtzeko, margotzeko, eskulanak egiteko, haur eta helduentzat. Astelehenetik ortzegunera 17:30etatik 19:30etara eta ortziraletan 17:00etatik 19:00etara egonen da zabalik.

Biltoki elkarteak balorazio positiboa egin du urteurrenaz

Ekainaren 23an izandako urteurren-besta egunean bazkide eta laguntzaileek izandako jarrera eskertzeko oharra zabaldu zuen Biltoki Elkarteak juntak, biharamunean berean. Ez gara hemen ekitaldiak aipatzen hasiko, baina goizean hasi eta arratsera arte izandako guzien balorazio hagitz positiboa egin zuten, jendearen partehartze eta laguntza azpimarratuz.

Baratzondo Elkartekoen bidaia Elgoibarko feriara

Elgoibarko feria ikustera joanen dira herriko Baratzondo elkarteko jubilatua uztailaren 28an. Larunbat horretan, goizeko 08:15ean abituko dira aparkalekutik eta Elgoigarren auziendak eta bertzelakoak ikusi ondotik, eguerdirako Aginagara itzultzea aurreikusia dute, bertako sagardotegian bazkaltzeko. Uztailaren 20a, hurrengo ortziralea baino lehen eman beharko da izena.



OSKAR TXOPERENA

Bestak antolatzeko bilerak hasiak dira

Herriko Etxeko kultur arduradunek deituta ekainaren 20an egin zuten bestak antolatzeko lehenbiziko bilera. Jende guti agertu zen bertara. Ez da harritzekoa, ekaineko ekitaldietan jendeak egin behar izan duen lanarekin. Halere, lehenbiziko bilera egunak finkatzeko balio izan zuen gutienez: irailaren 28an, ortziraletan, izanen da bezpera eguna eta urriaren 1ean emanen zaie akabila, astelehenez. Sanferminen ondoko asteen egingen dute hurrengo deialdia eta egitaraua lotzen hasi nahiko lukete Herriko Etxeko arduradunek.



Tel. 943 730 699 | www.aterki.com

Araso poligonoa · Erregeoina behea, 2 J
20305 IRUN

Telleriarte 16. 4-5 pab. (Zubitzo)
20230 LEGAZPI

info@aterki.com

LEHEN

Arazoak dituzu?

UR FILTRAZIOEKIN?

OBRRARIK GABEKO

INPERMEABILIZAZIOAK

ORAIN

LEHEN

LIZUNAREKIN eta HEZETASUNAREKIN

KONDENTSazioAGATIK?

ISOLAMENDUA

ORAIN



Eskolako ikasleak gustora, Bertizera ailegatu ondotik. **ESKOLAK UTZIA**

Ikasturte bukaerako txangoa egin dute eskolatik Bertizera

Ttikienak autobusean eta koxkorragoak bizikletaz joan ziren ekainaren 19an Natur Parkera

MAIDER PETRIRENA

Eskualdeko ikastetxe guztietan bezala, ikasturtea akitu dute eskolan ere. Ekainaren 19an, txangoa egin zuten ikasle eta irakasleek ikasturtea agurtzeko. Haur Hezkuntza eta LH 1. eta 2. mailakoak autobusean

joan ziren Bertizera. LH 3tik 6. mailara bitartekoak, berriz, bizikletaz. Bertizen gosaldutik, agurrak egin eta 6. mailakoak azken eguna zutenek herriko eskolan, bertso batzuk eskaini zizkieten irakasleei eta irakasleek beraiei ere.



MAIDER PETRIRENA

San Juan bezperan, su saltoan

San Juan bezperan, urteroko ohiturari segituz, frontoi ondoko plazan lehenik bokatak janez eta ondotik su saltoaz gozatzeko aukera izan zen. Adinaren arabera, hiru su egin ziren haur guztiak gozatu ahal izateko. Eskertu Guraso elkarteak gau polit hau antolatzeagatik.

Latsa eskolakoek bilkura egin zuten ekainaren 23an

Ekainaren 23an Sunbillako Latsa eskolako ikasleak bertze urte batez Ariztigain kanpinean elkartu ziren bazkari eder batez gozatzeko, musika eta guzti. Bertze urte batez ederki pasatu zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Garazi Etxalar teknifikazio jardunaldietara

Garazi Etxalar Zugarramurdik, Errekako herriko eskubaloi jokalaria Espainiako Federazioak uztailaren 23tik 28ra Burgosen egiten dituen Teknifikazio Jardunaldietan parte hartuko du. 30 jokalaritan izanen dira, hiru nafarrak.

Urte erdia 635 langabeturekin bukatu da eskualdean

TTIPI-TTAPA

635 lagunek emana zuten ize-na Doneztebeko Enplegu Bulegoan ekain hondarrean, maiatzean baino 56 guttiagok. Nafarroa osoan %3,85 jausti da langabezia ekainean (1.282 langabetu guttiago), baina eskualdean banaz bertze bi koitza jausti da langabetu kopurua (%8,10 guttiago).

Ekainean 1.128 kontratu egin dira Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 104 bakarrik izan dira mugagabeak eta 1.024 aldi baterakoak.

Adin eta arlo guztietan beheiti egin du langabezia

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 245 lagun daude langabezian, maiatzean baino 19 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean ere maiatzean baino 22 guttiago daude langabezian, 339. 25 urtez beheitikoen artean, ekain hondarrean 26 gizaseme zeuden langabezian, maiatzean baino 8 guttiago. Adin horretako 25 emakume zeuden lanik gabe, maiatzean baino 7 guttiago.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina jautsierarik nabarmenena arlo honek izan du: maiatzean baino 32 langabetu guttiago daude, 480tik 448ra pasatuz. Industria arloan ere maiatzean baino 13 langabetu guttiago daude, 89 denera. Eraikuntzan ere lagun bat guttiago dago langabezian, 38 denera. Nekazaritzan ere 6 langabetu guttiago dira, 19 langabetu. Aitzinetik lanik egin ez dutenen artean, 41 lagun daude langabezian, maiatzean baino 4 guttiago.

2017. urtea 830 langabeturekin akitu zela kontuan hartuz, 195 guttiago daude egun.

Giro ederra izan dute herriko bestetan

Herriak heldu den udazkenean izanen den Euskaraldia ekimenarekiko atxikimendua islatu du

MARGA ERDOZAIN

Loli Ostolazak botatako altxareroarekin lehertu ziren bestak eta bere izaeraren araberakoak suertatu dira: alaiak, umoretsuak, musikatuak... Dagoneko herria egunerokotasunera itzuli bada ere, aurtengo bestetako zertzelada batzuk azpimarratu nahi dituzte.

Euriaren bisita

Euriak ez du egitaraua zapuztu, aurreikusitako guztia betetzeko aukera izan zen. Erreka Dantza Taldearen emanaldia Ezkurra pilotalekuan egin zuten eta pilotalekua ikuslezt bete zen. Emanaldia ederra izan zen; musika, argi eta bideoz hornitua.

Manada eta Altsasu presente

Herriak ozenki Manada sententziaren kontrako iritzia

erakutsi nahi izan du. Altsasuko gazteen aldeko keinua ere bizitu da bestetan. Herri-tarrek samina eta gaitzespena parkartetan islatu zuten.

Euskaraldia

Heldu den udazkenean izanen diren ekimen honen beroketa barrenean bestetan bi ekimen azpimarratu behar dira. Herriko Etxetik pankarta bat zintzilikatua egon da. Male-rrekan ere 11 egun euskaraz; eta bertso emanaldian ere tarteak eskaini zioten.

Ontzi berrerabilgarriak

Herri-bazkarian 250 lagunek bazkaldu zuten eta sortu zen hondakin guztiak birziklatu zituzten. Horretaz gain, erabilitako ontzi guztiak Nafarroako Hondakin Patzuergetik ekarri zituzten.



Haur, gazte eta helduendako ekitaldiak izan dituzte herrian. LEIRE UTERGA

Argi-ilunak

Herri mobiliarioa kaltetua suertatu da; gazte batzuk igerrilekuan sartu eta bertan ziren itzalkinak uretara bota zituzten.

Eskerrak

Lerro hauen bidez bestetako ekitaldiak antolatzeke eta otorduak behar bezala egiteko lanean ibili diren herritarren lana eskertu eta goraipatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraldia udal ordezkarien babesean

Mankomunitateko udal ordezkariak Euskaraldia ekimena babestu dute. Pasa den ekainaren 26an Mankomunitateak ohiko bilkura egin eta Euskaradiari babesa eta bultzatzeko konpromisoa hartu zuten. Ondotik, argazkia atera zuten, ahobizi eta belarriprest maskotekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Izarra Tanatorioak beilatokia ireki du

Izarra Tanatorio taldeak beilatokia ireki du, Parrokia karrikan. Herriaren erdigunean egotea Izarrak duen filosofiarekin bat egiten du: «pertsonek bere familia eta lagunak beti bizi izan diren tokian agurtzea da» azaldu du Mikel Idoatek. Inauguraziora jende andana bertaratu zen.



Emakumeen Oroimen Baratzea prestatzen, Arantzan. ESTHER CARRIZO

Emakumeen historia idazteko garaia delako

Besta giroan eta artearen bitartez, igande honetan, uztailak 15, Emakumearen Oroimen Baratzea inauguratuko dute Arantzan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

«Gizonezkoarekin dena bete, eta gurea, ordea? Emakumeena ez bada ageri, ez da kontatzen egia». Halaxe dio *Harritik Hazia* antzezlaneko kanta batek. Hori irauli nahi izan zuten antzerkian eta helburu bera du Emakumearen Oroimen Baratzek, hau da, isilik eta gordean izan diren emakumeen istorioak idaztea.

Joan den urtean Beran egin dako *Harritik Hazia* antzerkiaren ondotik, eta aurten Arantzan eta Atarrabian egin dituzten emanaldien ondotik, haziak banatu zizkieten ikusleei, eta horrekin batera, aurtengo uztaileko hitzordu bat iragarri zuten, hazi horiek emandako landareekin Oroimen Baratzek egiteko. Hitzordu hori igande honetan, uztailak 15, egingen dute, Arantzan, orduan inauguratuko

baitute aipatutako baratzek. Gainera, forma berezia izanen du baratzek, mandalaren itxura, hain zuzen.

Bortzirietako baratzek

Arantzako Udalak utzitako lursail batean dago baratzek, Herriko Etxearen gibelako aldean. Eta lagun talde bat azken aste hauetan burubelarri aritu da hori prestatzen, inaugurazio egunerako dena prest egon dadin. Igandean, berriz, inaugurazio soiletik haratago, ikusleek parte hartuko duten zerbait izatea nahi dute antolatzaileek. Horretarako,

LANDAREEZ GAIN, EMAKUMEEN ISTORIOAK BILDU NAHI DITUZTE

rako, haziak emandako landareekin batera, eskualdeko emakumeen historia eta istorioak eramateko deia luzatu dute, «iraganekoak edota gaur egungoak, propioak edo lagun edo ezagun batenak». Izan ere, sustatzaileen arabera, «eskualdeko emakumezkoen historia ez dago idatzita» eta alde horretatik «hutsune haundia» dagoela diote. Horregatik, «baratzek hau idazten hasteko aukera dela» uste dute. «Baratzek espazio naturala izateak bat egingen du emakumearen natura ziklikoarekin». Bertzalde, adierazi dutenez, «gure emakumearen hitza galdu ez dadin eta jalgi dadin, espazio sinbolikoa emanen diogu baratzekaren erdian iturri bat paratuz».

Garrantzi «handiko iniziativa» dela nabarmendu dute antolatzaileek, «irauteko», eta gaineratu dutenez, «nahiz eta baratzek Arantzan kokatu, Bortzirietako baratzek izanen da». Hortaz, Bortzirietako Udalen eta Nafarroako Gobernuaren inplikazioa eskatu dute.

Inaugurazio eguna

Igandean, Arantzako plazan egin dute hitzordua, 13:00etan. Handik baratzekera «ibilaldi artistikoa» egingen dutela iragarri dute eta behin baratzekera ailegatutakoan, «hurbildu direnekin leku horren sinbologia eta magia partekatuko ditugu». Horretarako, ahotsa, dantza, musika, antzerkia eta plastika uztartuko dituzte. Eta akabailan, ekarritako landareak eta historiak bilduko ditugu». Bide batez, norbaitek antzerkian emandako haziak ahaztu edo galdu baldin badu, bertze landare bat eramaten ahal duela jakinarazi dute.

Saharako hamar neska-mutikok eskualdean pasako dute uda

TTIPI-TTAPA ESKUALDEA

Ekainaren 26az geroztik, Saharako hamar neska-mutikok eskualdean dira eta abuztuaren 25era arte hemengo familetan izanen dira.

Zozketak

Saharako haurrak ekartzeko laguntza moduan, aurten ere bi lagunendako otorduak zozketatu ditu Saharaztanek. Hauek dira zenbaki saridunak: Beola (Almandoz) 2.443; Aterpe (Arantza) 0802; Pabloenea (Arantza) 0642; Ordoki erretetgia (Arizkun) 1.745; Bixta-Eder (Arizkun) 4.058; Beintzako Ostaturia 3.078; Errekalde (Bera) 4.152; Xuga (Bera) 1.575; Zalain (Bera) 3.363; Iratxo (Donamaria) 3.834; Belarra (Doneztebe) 1.150; Elbeteko Posada 4.210; Hilarion (Elgorriaga) 3.329; Galarza (Elizondo) 3.956; Eskisaroi (Elizondo) 4.440; Itzalarzikoborda (Elizondo) 1.855; Kastonea (Erratzu) 1.117; Elutsa (Etxalar) 0239; Herriko Ostaturia (Etxalar) 0518; Fransene (Gartzain) 0733; Olari (Irurita) 1.444; Altxunea erretetgia (Ituren) 0192; Tresanea (Ituren) 1.697; Herriko Ostaturia (Ituren) 3.681; Aurtizko Abarun aterpea 2.167; Kattalin (Legasa) 1.067; Larralde Sagardotegia (Lekaroz) 0468; Etxebertzekoborda (Lekaroz), 0361; Linddurrenbor da Sagardotegia (Lesaka) 2.870; Urgain (Oronoz-Mugairi) 3.654; Ariztigain kanpina (Sunbilla) 4.355; Bustitz (Sunbilla) 1.574 eta Graxiana Aterpea (Zugarramurdi) 3.382.

BORDALARREA

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

BERRANDONEA, S.L.
PRONTUAK ETA BARRAZKILAK

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

LABE ZAR

Astelehenerik
ortziralerik:
07:15etik
aitzinerak

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerak

948 631 076 • BERA



Naroa Elizalde, Lesakako kanporaketan. UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumezkoen I. San Fermin Torneoaren bukaera larunbatean

Hamabi pilotarik, tartean Naroa Elizaldek, eman dute izena eta lehendabiziko kanporaketak Lesakan jokatu dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Emakumezkoen I. San Fermin Torneoa jokatzeko ari dira hamabi emakumezko, tartean Naroa Elizalde herritarra. Hilaren 1ean jokatu zituzten lehen kanporaketak, Lesakan. Finala eta hirugarren eta laugarren postua, berriz, larunbatean, uztailearen 14an, jokatuko dituzte, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Naroa Iturain eta Miren Larrarte eta Olatz Arrizabalaga eta Ruiz de Larramendi dira finalera sailkatuak. Naroa Elizaldek, Arrate Bergararekin bikote eginda, Andrea Aldaregia eta Maite Tolosaren aurka jokatuko du, hirugarren postuaren bila.

tuko dituzte, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Naroa Iturain eta Miren Larrarte eta Olatz Arrizabalaga eta Ruiz de Larramendi dira finalera sailkatuak. Naroa Elizaldek, Arrate Bergararekin bikote eginda, Andrea Aldaregia eta Maite Tolosaren aurka jokatuko du, hirugarren postuaren bila.

Errota uztailean egunero irekita egonen da

Orain artean, errota astelehen eta asteartetan itxita egoten bazen ere, uztailean egunero irekiko dutela jakinarazi dute. Era berean, hemendik aurrera Herriko Ostatuak asteburuetan ez ezik, astegunetan ere irekiko ditu ateak. Asteartea izanen da atseden eguna.

Martindenenko bordara joateko pista moldatzekotan

Udalak Martindenenko bordara doan pista moldatzeko asmoa adierazi du. Halere, uda sasoiari, belarrak direla eta, bertatik traktore dezente ibiltzen denez, idortzen uzteko tenore txarra delakoan, sanferminen ondotik egitekotan utzi dute.



E. ELIZALDE

Suaren berokian, mahai-inguru goxoan

Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten herritarrek San Joan bezperako afarian. Urteroko hitzorduan kuadrilla ederra bildu zen plazan. Afalondoan, gaztetxoak lehendabizi eta helduak gero, saltoka ibili ziren. Ea eskatutako desio guztiak betetzen zaizkien!

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



Jubiloteakako kideak. JAIONE ZABALO

Abuztura bitarte oporrak hartu dituzte jubilotekan

Datorren ikasturtean jubilotekara joateko garraio-zerbitzua eskainiko dute

JAIONE ZABALO

Ekainaren 27az geroztik, oporretan daude jubilotekako hamarkideak. Hondaregunean ikasturte bukaerako besta ospatu zuten. Besteak beste, ikasturtean egindako eskulana jaso zituzten; nahi dutenek oroigarri gisa gorde ditzaten. Ondotik, mahai-inguruan bildu ziren eta otordu ederra egin zuten. Solas eta solas artean, giro ederrean bazkaldu zuten jubilotekako lagunek. Bazkalondoa girotzeko, zintzurak berotu zituzten. Urtean zehar ikasitako ikasitako kantak kantatzeko aprobetxatu zuten.

Garraio zerbitzua

Udako oporraldia bukatuta, abuztuan, hasiko dute hurrengo ikasturtea. Aurten bezala, adinekoen ongizatea berraztertu, gimnasia, psikomotrizitate fina, memoria eta logika lantzeko zenbait saio egingen dituzte datozen ikasturtean ere.

Aitzitik, berrikuntza bat ere aurreikusi dute. Bertara joan ahal izateko, garraiorik ez dutenentzat, garraio zerbitzua eskainiko dute. Hala, nahi duten guztiek parte hartzeko eragozpenik ez izatea lortu nahi dute.

Xabin Juaristi da Ezkurra, Eratsun eta Saldiasko idazkari

Urte aunitzez Ezkurrako, Eratsungo eta Saldiasko idazkari izan den Jose Maria Elorzek erretiroa hartu du. Xabin Juaristi izanen da bere ordezkaria. Bai bulegoan, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 15:15era, baita 948 615068 telefonoan ere eskainiko du zerbitzua.

Herriko argiztapen sarea berritzen ari dira

Argiztapen sarea berritzeko aurkeztutako zortzi enprestatik Rios Renovablesi eman zaio lana. LED bidezko argiztapena jarriko dute, potentzia erregulatzen sistemarekin batera. Horrela, gaueko kontsumoa eta mantentze-lanak gutxitzea lortu nahi dute.

Uraren bidea moldatzeko lanak egiten ari dira zenbait herritan

TTIPI-TTAPA

Zubietatik hasi eta Doneztebera arteko Uraren Bidean moldaketak egiten ari dira. Bidea zabaltzen eta zenbait maldetan hormigoia botatzen ari dira. Horrela, ibilaldia bizikleta gainean arazorik gabe egiteko moduan paratu dute.

Seinaleen bidez, berriz, arauak zehaztu dituzte. Zubietatik, Ituren eta Elgorriagako puntu jakin batzuetan ari da egokitzapenak egiten Sasoi enpresa. Lanen aurrekontua 50.882, 53 eurokoa zen eta herri batzuek bere gain hartuko du dagokion tartearen kostua.

Elgorriagako Zorroilo elkartekoak sagardotegi-afaria

Zorroilo elkarteko kideek, aurretik ere, sagardotegi-afaria egin dute. Kuadrillatxo ederra bildu zen eta kantuak kantari eta kontuak kontatuz umore ederrean pasa zuten gaua. Ohikoa denez, batzuek ez zuten besta goizaldera arte luzatzeko aukerarik galdu.

Elgorriagan uztailaren 21ean auzolana

Bestei begira daude dagoeneko herritarrek. Baina aitzineatik, badute egiteko. Herria garbitu, txukundu eta behar bezala apaintzeko, urteroko hitzordua izanen dute uztailaren 21ean, larunbatean. Parte hartzeko deia luzatu nahi izan dute.

Giro ederra izan dute San Joan bezperan Urrozen

Urtero bezala, San Joan bezperan suak egin ziren herrian. Arratsaldean herriko haurrak etxez etxe ibili ziren erretzeko kartoia, zakuak... eskatuz. Ostatuan merienda-afaria egin eta luze aritu ziren saltoka.



JUAN KARLOS LEKUONA

Urroz herriak biztanle gehiago ditu

Herritar kopuruak goiti egin du ekainean. Izan ere, hilaren 18an Unax eta Oier Perurena Zozai bixiak sortu ziren. Lerro hauen bidez, herritarrek ongietorria emateaz gainera, zorianak eman nahi izan dizkiete familia osoari, eta bereziki, gurasoei.

Alazne Untxaloren kartelak iragarriko ditu Iturenko bestak

Aurten ez dute herriko beste-tako kartel lehiaketarik antolatuko Iturenen. Horren ordez, aitzineko urteetan aurkeztu bai baina saririk irabazi ez zuten lanak plazaratu dituzte. Herritarrek erabaki dute. 15 lanetatik Alazne Untxaloren aukeratu dute.

San Juan Xarren eta Mendaurren akitu dute Solaslagunek

Iruñerriko Mintzakide eta Hondarribiko Mintzlagunak taldeko kideekin batera egin zuten txangoa ekainaren 17an

TTIPI-TTAPA

Hondarribian ospatutako Mintza Egunaren ondotik, Mendaurren eta San Juan Xarrera ekainaren 17an egindako txangorarekin akitu zuten ikasturtea eskualdeko Solaslagunek. Iruñerriko Mintzakide eta Hondarribiko Mintzlagunak taldeko kideekin egin zuten ateraldia.

Lehenik, Arantzatik Mendaurrenako bidea egin zuten mendizaleek. Kaxkoan gosaltu ondotik, ohiturari eutsi eta baselizari hiru itzuli eman zizkioten harria eskuan har-

tuta eta gero, harria teilatu gainera bota zuten, eskatutako nahiak bete daitezzen.

Ondotik, Arantzara itzuli eta handik San Juan Xarrera jo zuten Solaslagunek. Hor ere bertako erritua bete zuten, hiru iturrietako urarekin gorputza ongi busti eta igurtzi ondotik, norberaren oihalzati batekin lehortu eta bertan utzi zuten idortzen.

Egun ederra izan zuten ikas-turteari akabaila emateko eta datorren ikasturterako erronkei (Euskaraldia, bertzeak bertze) gogotsu heltzeko.



Solaslagunak Mendaurreko kaxkoan eta San Juan Xarren. UTZITAKO ARGAZKIAK

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziak, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabea Donezteben etxe berria erosteko



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



ITURENGO HERRIKO OSTATUA**ITURENGO UDALAK**
besta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei


**ONGI PASA
BESTAK**

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA

**PVC
LEIHOAK****Merkatuko leihorik hobereak
egiten ditugu!**

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

ITUREN_{GO} BESTAK**Uztailaren
13tik 16ra****Eider
ALT XU BERE AU**
Iturengo gaztea«Pena ematen dit
gaua itzaltzen ari dela
ikusteak»

Bertzeak betze «kirola, lagunarteko afariak eta besta giroa» gustuko dituen iturendar gaztea da Eider Altxu. Zaletasun guztiei tarte egiten saiatzen bada ere, «ama izateari dagozkien ardurak, lana eta bertzelako eginbeharrak tarteko», egunerokoan «nahiko baztertuak» ditu. Dena dela, bestetan guztiak berrartzeko aukera izanen du.

Ortziraletik hasi eta astelehenera bitarte, han eta hemen ibiliko da: «ortziraletan lagunekin nire etxean biltzen gara, afaldu eta mahai-inguru ederra egiten dugu; larunbata egunez bizi dut, arratserako etxera joaten naiz; igandeko familiarteko bazkarian giro polita sortzen dugu; eta astelehenean, azken urteetan bezala, herri-bazkarira seme-alabekin joatea tokatuz gero ere, ez dut hutsik eginen». Bien bitartean, besten aitzakiapean antolatzen duten frontenis txapelketan ere ibili da aurtan Altxu, lehendabizikoz: «niretzat ordutxo bat izateko aukera zela ikusi nuen, kirola gustatzen zaidala aintzat hartuz... izena eman nuen». Lagun arteko giroan aritzea «arrant polita» izan dela eta «arrant gustura» aritu dela nabarmendu nahi izan du. Orain artean

eginiko partiden emaitzak «nahiko kaxkarrak» izan badira ere, badute bestetako finalean parte hartzeko aukerarik: «zail ikusten dut baina azken emaitzak ikusi arte ezin etsi» dio irriz.

BATEK GALDUA, BERTZEAK IRABAZI

Urteetan gaua «aunitz» gustatuagatik, azken urteetan egunez besta «gehiago» egiten du. Halere, horrek bere onurak dituela adierazi digu: «horrela, hurrengo egunari probetxu ateratzen diot». Areago, azken urteetan «egunez, momenturo, haur, gazte eta helduek gozatzeko ekitaldiak» daudela iruditzen zaio: «ez dago aspertzeko arrazoirik».

Ekitaldiren bat aukeratu beharko balu, azken urteetan «larunbat ilunabarrean izaten den elektrotzaranga aukeraturako nuke» erran digu: «batetik, dantza giro hori gustuko dudalako eta jende aunitz mugiarazten duelako; eta bertzetik, egunez izaki, badudalako seme-alabekin gozaterik». Horrek beste «ekarpen polita» egin diela iruditzen zaio.

Halere, bestetan egunak irabazitakoa gauak galdu duela uste du: «pena ematen dit gaua itzaltzen ari dela ikusteak». Ortziraletan, bereziki, «dezente egin du beheiti», adierazi digu. Arrazoi nagusia «gehienetan, asteburu berean, Baztandarren Biltzarra izatea» dela uste dulturengogazteak. Herrikoendakoakaso «nahikoa» izanagatik, berak, pertsonalki, jende gehixeago bertaratzeak «bestak bizituko lituzkela» uste du. Hori horrela, eta aurtan Baztandarren Biltzarra batera tokatzen ez dela ikusita, inguruko herritarrei deia luzatu nahi izan die: «herri eta plaza giroan ederki pasatzeko aukera ona da, animatu!».

«Elektrotzarangak,
herria girotuz eta
herritarrak
mugiaraziz, ekarpen
polita egin die
beste!»

EGITARRUA



UZTAILAK 13, ortziralea

16:30 Haurrentzako herri-kirolak Kulkirekin. **19:00** Herriko dantzariak. **20:00** Txupinazoa. **Jarraian**, kalejira herriko buruhaundi eta trikitilariakin. **21:00** Afaria Altxunea erretegian. **00:00** Dantzaldia Hauspolariak taldearekin. **03:30** Tirry & Tery karpan.



UZTAILAK 14, larunbata

10:00 Diana. **12:00** Haurrendako aurpegi margotzea. **Eguerdian** triki poteoa eta toka txapelketa. **17:00** Mus txapelketa Tresanean. **19:00** Pintxo, tortila eta postre lehiaketa (etxean egindakoak ekarri). **20:00** Elektro Txaranga Polekeleke (poteoa). **23:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

UZTAILAK 15, igandea

10:00 Diana. **12:30** Aizkora apustua: Iker Vicente-Arria V. **Jarraian**, Pintxo potea eta magra eta gatzaren pisu asmatzea. **18:00** Dirt jump eta trialsin erakustaldia (Martxel Arribillagaren eskutik). **20:00** Dantzaldia Obaneuke taldearekin (Maddalen Arzallus, Maria Lasa eta Harkaitz Allur). **Aldi berean**, xingar jatea eta sagardo kupela. **23:00** Kantez taldearen emanaldia Tresanean.

UZTAILAK 16, astelehena

10:00 Diana. **12:00** Pilota eta frontenis txapelketetako finalak. **14:00** Bertso bazkaria: Haritz Mujika eta Unai Mendizabal. **Arratsalde eta gaua** musikaz girotua Oihana eta Oihana trikitilariakin.

Oharra:

Ortzirale goizetik aitzinera puzgarriak izanen dira egunero.



Ileapaindegia
EIDEA
Estetika
Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez
Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com
Koskontako bidea, 7-1. | 31770 LESAKA (Nafarroa)

ALTXUNEA ERRETEGIA
Kontsejo, 27 · ITUREN
T. 948 450 410



· Ostiral eguerditik igande eguerdira
· Besta egunetan eta besta bezperatan
· Uztailaren 15etik abuztuaren 30era, egunero, astelehenak ezik
ONGI PASA BESTAK!

ONGI PASA BESTAK!

BEROTZA
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA



OKINDEGIKO LABEA



GALDARA MISTOA

ELGORRIAGA KO BESTAK

EGITARAU

**Uztailaren
25etik 29ra,**

UZTAILAK 25, asteazkena

12:00 Meza nagusia. **13:00** Luntxa herritarrendako. **17:00** Aizkora erakustaldia. **Ondotik** Oihana eta Oihana trikitilariak alaituko dute giroa. **19:00** Tortilla lehiaketarako osagai biltzea. **20:00** Tortilla lehiaketa plazan. **21:00** Tortilla-jatea.



UZTAILAK 27, ortziralea

17:00 Arno ganaduak (zezenak, betizuak eta pottokak). **20:00** Txupinazoa. **Ondotik** trikitilari eta panderojoleek herria alaituko dute. **21:30** Zopak (Herriko Ostatuan). **Arratsean** Oharkabe taldea eta Tirri & Tery.



UZTAILAK 28, larunbata

10:00 Puzgarriak eta jokoak Jokulandiaren eskutik. **13:00** Paella jatea herriko plazan. **17:00** Mus txapelketa. **17:00** Puzgarriak eta jokoak. **Arratsaldean** eta **gauz** musika Gabenara taldearekin.



UZTAILAK 29, igandea

12:00 Toka lehiaketa. **14:00** Zikro-jatea, Beñat akordeoilariak eta Fernandok alaiturik. **18:00** Boneta lehiaketa. **21:00** Afaria plazan. **00:00** Besten amaiera.

balneario elgorriaga
hotel-balneario

BESTA HAUTAN ZATOK ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:
buffeta libre, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak, hanburgesak...

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 60 45 | www.balnearioelgorriaga.com

**HERRIKO
OSTATUA**
ELGORRIAGA - NAFARROA

Ongi pasa bestak!!!

Eguerdi eta gauean:

- Mokadutxoak
- Pizzak
- Bokatak
- Razioak...

Sukalde zerbitzua
ortziraletik igandera

T. 629 127 081
San Pedro, 1 - ELGORRIAGA



Olaia
OLAZAR
Elgorriagako gaztea

«Eskualdeko taldeak
ekartzen saiatzen gara
jendea erakartzeko»

Herrian mugimendua sumatu orduko maletak egin eta Iruñetik sortetxera joaten den elgorriagar gaztea da Olaia Olazar. Egunerokoarekin hausteko «bi egunetarako bada ere» herritik atera eta «tokiak ezagutuz» oporren lasaitasuna arnastea, «kontzertuetara joatea» edo «besta pixka bat» egitea du gustuko, «bakoitza bere momentuan».

Neguan «bi edo hiru astetik behin» ateratzen bada ere, udan «besta guttiago» egin ohi du: «eguzkiaz gozatzeko hondartzara edo asteburu pasa joatea gustatzen zait, egunari ahal bezainbertzeko etekina ateratzea». Halere, herriko bestetan «ez dut hutsik egiten». Azken batean, lau egunez herritar guztiak «etxetik plazara» ateratzeko egun «bereziak»

dira: «haur, gazte eta helduak elkarrekin egoten gara eta giro ederra sortzen da». Egun guztia «etxetik kanpo» ematen dutenez, «lanean pentsatzeko tarterik ez dugu hartzen» erran digu irriz.

URTEZ URTE HOBETUZ


Elkarrekin gozatu ahal izateko, ordea, «denen artean» antolatzen dituzte bestak: «aitzineko urteetakoa hobetzen eta berrikuntzak txertatzen saiatzen gara; beti ere, tradizioari eutsiz». Gazteek, erraterako, plazan txosna paratzen dute: «ordutegiak erabaki eta txandak zozketatuz egiten dugu banaketa, baina momenturen batean laguntza behar izanez gero, beti dago boluntarioren bat». Ostatuan irabazitako diruarekin ortziraleko

kontzertuak ordaintzen dituzte. Helburua «ahalik eta jende gehien erakartzea» izaki, ortziralean «eskualdeko taldeak ekartzen saiatzen gara». Batetik, eskualdeko taldeei eta bertetik herri ttiketako beste eustea garrantzitsua dela uste duenez, Elgorriagako bestetara joateko deia egin du Olazarrek: «inguruko herritarrek Elgorriagako bestetara animatu nahi nituzke».

Besta egunaren ondotik, biharamun ilunari aitzin hartzeko «egunean zehar dauden ekitaldiei etekin atera eta gaua laburtzea» aukera ona izan daitekeela erran digu, baina gaua ere «aunitz» gustatzen zaionez, azkenekoak egindako kalteak badu sendabidea: «gero amaxireno edo amarensalda edan eta etxean ez gelditzea» dira elgorriagar gazteak dituen bi sekretuak. Horrela hondar eguneko «momentu hoberenera, zikiro jatara»

arte indarberrituta egotea lortzen du. Hori bai, aukera izanez gero, herriko bestak akituta aste pare batez «atseden hartzeak ez dio inori kalterik egiten» adierazi digu irri artean.

«Aitzineko
urteetakoa
hobetzen
saiatzen gara»





BAZTAN
Ferreteria

Pintura | Kristalak | Tresneria
Aroztegiko gauzak | Opariak

Santiago, 79 · Industrialdea
ELIZONDO · T. 948 580 423

Gas, gasolio, egurra eta pellet galdaren
zerbitzu teknikoak · Marka guztiak
TXIMINIEN GARBIKETA ZIURTAGIRIAK

MG
mantenimientos
GORRITI

ONGI PASA BESTAK!

M. 620 97 82 97
Santiago, 93 · ELIZONDO

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 5
Tfnoa: 948 580 337
ELIZONDO

A. ETXEBERRIA
PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



ONGI PASA BESTAK!



ARKUPE
Txokolata

1984

IRURITA
Dukea plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupagozotegia.com

ELIZONDO KO BESTA

Uztailaren
24tik 28ra



Imanol
ARRETXEAA GOÑI
Besta batzordeko kidea

«Besta Batzordeko ateak
lan egiteko gogoia duten
guztiendako zabalik
daude»

Duela bortz urte, «taldeak jendearen atxikimendua behar zuela ikusirik» hasi zen Imanol Arretxea Besta Batzordearekin hartu-emanen eta ordutik urtero-urtero «hainbertze» gustatzen zaizkion eta «gogoz eta ilusioz» bizi dituen bestak antolatzen ibiltzen da.

ATEAK ZABALIK

Otsail hondarrean hasita bestak ailegatu bitarte, azken bortz hilabeteetan, buru-belarri aritu da lanean. Aurten, hamabortz lagun inguru, «inoiz baino gehiago», bildu dira. Halere, guztiendako adina lan izaten dutenez «gazte zein helduendako, lan egiteko gogoia duen edo ekarpenak egin nahi lituzkeenendako» zabalik dituzte ateak.

BANATU ETA BATERATU

Bilera bakoitzean «kide bakoitzak lan bat edo batzuren ardura» hartuagatik, azken hitza taldearena dela adierazi du: «berriz elkartzen garelarik, bakoitzaren lana mahairatu eta ekarpenak eztabaidatzen ditugu, banakako proposamenak taldean bateratzen ditugu». Hori horrela, Arretxeak berak ere ez du ardura jakinik izan: «denetarik egitea tokatu zait eta egitekoen artean egitarauko publikitateak eman digu lan gehien». Zailena, berriz, sentitu eta pentsatutakoa egitean ailegatzeko da. Zenbat buru, hainbat aburu izan ohi direnez, argi du «denak kontent gelditzea ezinezkoa» dela. Baina, estimatu orde, «bestak aitzinerat ateratzea kostatzen den guztia kontutan hartu gabe, gure lana gaitzesten duen jendeak» haserrarazten du.

BEHARRAK ASEBETEZ

Elizondoar gazteak aurten uztailaren

26an ospatuko den Gazte Eguna du gustukoan: «gazteak elkartu eta elkarte elkarte ibiltzen garen momentua arras polita da». Oro har, egunez hasitakoa ordu tikiak arte luzatzea gustatzen bazaio ere, aurten, biharamuna, hilaren 27a, «egun berezia» izanen dutenez neurria hartu beharko dio. Ortziralerako, emakumezkoen presentzia azpimarratzeko asmoz, Egun Morea prestatu dute: «horixe izanen da aurtengo besten bereizgarri nagusia». Bertzalde, aitzineko urteetan zikiri jatera joateko bazkari-txartelak eskas gelditzen zirenez, horri aitzin hartzeko, «gehiago» aterako dituzte. Urtez urte, beraz, beharrak antzeman eta aldaketak proposatzen dituzte batzordean. Partaideek gogotik lan eginagatik «arras ongi» pasatzen dutela gaineratu nahi izan du.

AITZINETIK ETA ONDOTIK BADA EGITEKORIK

Bestak ailegatu aitzinetik egindako lana aski ez eta besta egunetan ekitaldiz ekitaldi ibili behar izaten dute. Momentu horietan gaizkiak kezka eta ongiak besta erranean laburbil daitezke antolatzaileen ardurak. Halere, «azkenean beti bestan bukatzen dugu» dio irriz. Aitzitik, egun guztiak ekitaldiei begira pasa ez ditzaten, «eguneko bizpahiru kide hartzen dute ekitaldiz ekitaldi ibiltzeko ardura». Bestak bukatuta ere badira zereginak «gauza batzuk herstea tokatzen da, baina aitzinetik dugun lanarekin konparatuz, hori ez da deus». Zama haundiena «bestak aitzinerat ateratzeko aitzinetik sartzen ditugun ordu guztiak dira». Baina besta egunetan «hain ongi pasa ondotik guztiak merezi izan duela sentitzen dugu».



UZTAILAK 24, asteartea

12:00 Txupinazoa eta Baztan-zopak. **Ondotik** Konpartsarekin itzulia. (Uda-letxetik abiatu eta Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago Karrika eta Francisco Joaquin Iriarte Adinekoen Egoitza). **16:00** Haurrendako ikuskizuna plazan: Oliver magoa. **17:30** Oliver magoa Francisco Joaquin Iriarte Adinekoen Egoitzan. **19:30** Karrikadantza: konpartsak, txistulariek, gaiteroek, txarangak, bandak... lagunduta. (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Eliza, Santiago Karrika, Herriko Plaza, Jaime Urrutia, Francisco Joaquin Iriarte Adinekoen Egoitza). **20:00** Salbea Elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Felix Txoperena, eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntza izanen duelarik. **Ondotik**, Karrikadantza eta Erraldioen dantza plazan. **20:30** Arratsaldeko txupinazoa eta txistorrada. **23:30** Bide Bakarra, Velozet, Willis drummond eta Dj Xinto eta Dj 2octal taldeen kontzertuak plazan.



UZTAILAK 25, asteazkena

09:30 Argisoinuak. **10:30** Karrikadantza. (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Herriko Plaza eta Eliza). **11:00** Meza nagusia Elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, organoan Felix Txoperena eta Elizondoko Recreo Musika Bandaren laguntzaz *Misa de Eslava* eskainiko du. **12:00** Karrikadantza Sokarekin batera. (Eliza, Santiago Karrika, Herriko Plaza, Jaime Urrutia eta Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza). **12:30** Plazako ekitaldia: Sokadantza, Mutil-dantzak eta Erraldioen dantza Elizondoko Bandaren laguntzarekin. **Ondotik**, luntx herrikoia. **17:30** Xomorro zirku tailerra Merkatuko plazan. **18:00** Herri-kirolak Iriarte pilotalekuan: Euskal Herriko emakumezkoen arpana txapelketa. Nafarroako gizonezkoen eta emakumezkoen lokotx biltze txapelketa. **19:30** Bertso Show musikatua plazan (euria egiten badu Arizkunenean). Aurkezlea: Haritz Casabal. Bertsolariak: Arkaitz Oiarzabal, Miren Amuriza, Egoitz Zelaia eta Iñigo Manzisidor. Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Otamendi. **21:00** Dantza herrikoia Ziga plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **23:00** Tirri & Tery Kuarteleko zelaian. **23:00** Txamukos mariatxiak Plazan. **01:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin plazan.

Argazkiak: ONDIKOL

**SAIOA
OSTATVA**

Ongi pasa
bestak!



Santiago, 68 - ELIZONDO | T. 948 580 194

Ongi pasa bestak!

libreria
nafarpress
liburudenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK

Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

Kris
ileapaindegia

Giltxaurdi, 14 • ELIZONDO • 948 580 025



Santiago, 93 ELIZONDO
T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta

Gas, gasolio eta biomasazko
galdara eta berogailuak

Zeramika eta bainugelakoaltzarien salmenta

ONGI PASA BESTAK!



CITROËN

ongi pasa
bestak!

SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA

KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA

ENGRASEAK

ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA

AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK

ZERBITZU OFIZIALA:



Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea



SARRERAK eta
BOLETOAK egiten ditugu

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

**INTZA
TABERNA**

Ongi
pasa
bestak!

T. 948 580 417



**BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK**

*Mendi
ostatua*



Enkarguak hartzen ditugu
Giro ederra!!

T. 948 580 313

lino
linoplazaarkitektura

*Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



lino plaza y asociados, s.l.p. | jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

ALMACO BAZTAN **GRUP GAITIA**



besta zoriontsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104

www.almacobaztan.com



<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>



UZTAILAK 26, ortzeguna

09:30 Argisoinuak Beartzunen. **11:00** Erraldoi eta buruhaundien konpartsa (Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza, Santiago Karrika, Opoka, Mendinueta, Benito Menni Zentroa, Merkatuzelai, Legate, Xalbador, Txokoto, Santiago, Maria Azpilkueta eta Lanbide Eskola). **11:00-14:00** Igerilekurako sarrera libre. Haurrendako uretako puzgarriak izanen dira. **14:00** Kuadrillen bazkaria Kuartelego zelaian. **17:00** Ginkana plazan, 8-15 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako. **19:00** Txokolatada Ahaztuen plazan. **18:00** Poteoa Burrumba elektrotxarangarekin elkarrekin elkarrekin parketik abiatuta. **20:00** Baztango dantzariak Plazan. **21:00** Dantza Herrikoiak Ziga Plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **23:30** Fois jaunak (Itoitz tribute) Plazan. **Ondotik**, dantzaldia Ezinke taldearekin plazan.



UZTAILAK 27, ortziralea

09:30 Argisoinuak. **11:00** Erraldoi eta buruhaundiekin ibilaldia. (Lanbide Eskola, Akullegi, Santiago, Datzuzelai, Santiago, Saskaitz Plaza, Santiago, Berekotxea Gotzaia, Paularena, Herriko Plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza, Adinekoen Egoitza). **11:30** Bertso saioa Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitzan. Ondotik, Joxe Angel akordeolariak alaituriko bazkaria. **12:00** Ludoteka Iriarte pilotalekuan: puzgarriak, pirata ludoteka, giza futbolina, *la barredora*, zezen mekanikoa eta ate erraldoia baloi jaurtitzailarekin. **12:00** Elizondoko Recreo musika bandaren emanaldia plazan. (Euria ari badu Arizkunenean izanen da). **13:00** Bermuta. Baztango emakume kirolariekin topa! **15:00** Bazkari autogestionatu feminista plazan (norberak bere bazkaria etxetik ekarri dezala, edaria egonen da). Ondotik mikro irekia. Animatu eta ekarri musika-tresnak. **16:00** Ludoteka Iriarte pilotalekuan: puzgarriak, pirata ludoteka, giza futbolina, *la barredora*, zezen mekanikoa eta ate erraldoia baloi jaurtitzailarekin. **16:30** Elizondoko VIII. Mus txapelketa Xalbador karrikan, Falfara elkarrekin antolatuta (adin guztiendako). **18:00** Bertso triki-poteoa (ekarri zure moztorra). Musikariak: Maialen Kamino eta Lorea Goienetxe. Bertsolariak: Alazne Untxalo, Eli Pagola eta Saioa Alkaiza. **17:30** Pilota partidak Trinkete Antxitonean: Txaruta pilota eskolako finala. Eta ondotik, paxaka: Baztan Vs Azkaine. **19:30** Kantaldia: Lamia. **19:30** Nafarroako XIII. erremonte txapelketa: Promozio kanporaketa: Eloy-Juanenea eta Etxarri-Garces. Lehen kategoriako kanporaketa: Urriza-Azpiroz eta Urtasun-Barrenetxea IV. a (ADANOren alde antolatutako jaialdia). **21:00** Dantza Herrikoiak Ziga Plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **00:00** Kontzertuak plazan: Ni Yuta Ni Tuya, Ane Guria eta Azukre beltzarana taldeen eskutik.

Argazkiak: ONDIKOL

elictxe
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO
elictxe@elictxe.es

www.elictxe.es

hiru
ostatua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera



... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA BESTAK

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizzak,
hanburgesak,
ensaladak, fritoak...

Etorri eta dastatu gure
berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219



Albaitaritzza

www.albaitaritzza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako
produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169



ALBAIKIDE

Tfno.: 902 169 169



www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

Ongi pasa bestak!

Autxitxia

Gasnategia

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zehenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak
- ▶ Dastatzea eta bisitak

Ramón Agirre Altzelai
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo
657 576 142

ongi pasa bestak!

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 • F. 948 451 304



ELIZONDO
Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE
Zazpigurutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA
Landabekoa, 2
t. 948 610 612

LESACA
Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

BERA
Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

Besta onak opa dizkizuegu!



instalazioak
IGOGAILUAK



15
Urteko esperientzia

PROFESIONALAK | KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA | MANTENTZE LANAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.




2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokituak.




3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.




EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.



UZTAILAK 28, larunbata

09:30 Argisoinuak. **11:00** Erraldi eta buruhandien ibilaldia (Herriko Etxetik abiatu, Jaime Urrutia, Opoka, Erlategi, Baztan Berri, Maurixio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador karrika, Giltxaurdi eta Adinekoen Egoitza). **11:00** Munduko XXII. Kanika Txapelketa Merkatu Zelaian. **14:00** Zikiro jatea Iriarte pilotalekuan. (Zikiroko txartelak salgai jarriko dituzte Herriko Etxean uztailaren 20an, ortziralea, 19:00etan). **17:30** Plazan haurrendako ipuin kontalaria: Super laguna. **21:00** Dantza herrikoiak plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **00:00** Gizajua ni eta kalejira. **02:00** Kontzertuak: EH Sukarra eta Dj Reimy.

OHARRA: Aurtengo zikiro jateko erronka dela eta, denen laguntza beharko dugu. Milesker!



Argazkiak: ONDIKOL

LA BAZTANESA S.A



ELIZONDO
Tel/Faxa: 948 580 129

IRUÑEA
Tel: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com



ONGI PASA BESTAK!

idoia oreia
ile-apaindegia

ile-apaindegia | makillaje zerbitzuak



Plazaburua, 9 behea Elizondo | T 948 580 390 | www.idoiaoteiza.com



ONGI PASA BESTAK!

esarte

Santiago 83 B bajo • 31700 Elizondo • T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com



ONGI PASA BESTAK!

Belzunegui
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

ferretería

Quevedo

burdindegia



Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com



23 logela bainuarekin • Aparkalekua • Aire girotua eta telebista gela guztietan
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

Herri erdi erdian, Baztan errekaaren ondoan







ongi pasa bestak!!!

Braulio Iriarte, 16 • ELIZONDO • 948 581 8070 • hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ONGI PASA BESTAKI!

Malkorra

Txokolatea urrakin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

LABIAGA
eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

Ongi pasa bestak!

BERA | ELIZONDO

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, Ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAKI!

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita
Tel.: 948 580 225 - M. 619 328 145
gureauto2@gmail.com



Baztango TALDE FEMINISTA

ereduan genero ikuspegia txertatzeko bildu ziren. Era berean, protokoloa aurkezteko Besta Batzordeko, Gazte Egunecko eta Baztandarren Biltzarrako elkarteko kideekin elkartu ziren eta interesa azaltzeaz gainera, «protokoloa martxan jartzeko konpromisoa hartu zuten».

Horrela bada, babes eta laguntza eskaintzeaz harago, «egunerokoan, bizitzako esparru aunitzetan bizi ditugun baina arras barneratuta dauden jarrera matxistak -alkoholaren aitzakiapean justifikatuak daudelakoan areagotzen direnak- identifikatu, gelditu, eraso sexisten aitzinean nola jokatu behar den erakutsi eta salatzearen beharra ikusarazi» nahi dute.

ERASO SEXISTEN AITZINEAN LAGUNTZA

Talde feministatik, eraso sexisten bat jasan duen emakumea* laguntza eskaini asmoz telefono bat jarri dute martxan: 644 964285, eraso sexisten bat jasanez gero, deitu ahal izateko. Erasoren baten berri izanez gero emakumea* laguntza nahi duen galdetzen diote lehenik, «momentu oro bere nahia errespetatuz». Laguntza nahi dutenen kasuan, «egoeraren arabera erantzuna» ematen diote.

Erasotua den emakumea* arretoa hobe

«Elkarrekin antolatzeke, indartzeko, zaintzeko eta libreki gozatzeko deia egiten diegu emakumeei*»

Baztango talde feministak, duela hiru urte, «besten inguruan gerta litezkeen edozein eraso sexistari erantzun sendo, azkar eta bateratua emateko helburuz» bestetako protokoloa sortu zuen. Urte urte, «bai eraso sexisten inguruko prebentzioa lantzeko; bai emakumeek eraso sexistak identifikatzeko eta horiei erantzuteko tresnak eskaintzeko; baita jendarteari hainbat jarrera onartezinak direla jakinarazteko ere», protokoloa garatu eta eremu gehiagotara hedatu dute.

PROTOKOLOAREN BEHARRA

«Kontzientziazioan egitekorik badela, emakumeek* herrietako bestetan dituzten eremuak murrizkatu direla eta emakumeekiko* jarrera aunitzek kezka eragiten dutelatz» iritzita, protokoloan aurrerapauso bat emateko asmoz eta besta

ONGI PASA BESTAKI!



LABORRA
ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

www.laborra.com

gabriel@laborra.com
Santiago 66. 1^a ELIZONDO 948.580.122

arteka
arkitektura arquitectura

Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1^a. 1. A
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan

www.artekabaztan.com

Certified Passive House

eskaini asmoz, eta ematen diren eraso guztien kontaketa egin asmoz, udaletxeko berdintasun zerbitzua, osasun zentroa eta talde feministaren artean kordinazio mahai bat osatu nahi izan dute; mahai horretan, bakoitzak bere eginbeharra izanzen duelarik. Hortaz, hemendik salatzearen garrantziaz ohartarazi nahi dute.

EREMUAK ZABALDUZ

Talde feministako kideek «bestetako antolaketa, karrikako ekimenetan, etxeko eta zaintza lanak utzi, karrikak hartu eta, bakoitzak nahi bezala, nahi duenarekin, askatasunean, gozatzeko deia egiten die emakume* guztiei.

Modu berean, Elizondoko Besta Batzordearekin batera, bestetarako Egun Morea antolatzen ari dira taldeko kideak. Egun horretan, Baztango emakume* kirolari guztiak goraipatu nahi dituzte, «horietako aunitz goi mailara iritsi arren komunikabidetan agertzen ez direla salatzearekin batera». Horren ondotik bazkari autogestionatua, mikro irekiak, bertso poteoa eta kontzertuak izanen dira. Talde feministaren arabera, «bestak antolatzeko orduan genero ikuspegia txertatzeko pauso bat izan daiteke aurten eman dutena; baina ez litzateke ez egun soil batean ez herri bakar batean gelditu behar» gaineratu dute.

PREBENTZIOA OINARRI

Hori horrela, urtean zehar, Feminikasten



ekimenaren harira, hainbat lanketa egin dituzte: «indarkeria sexistaren inguruko hitzaldiak antolatu ditugu, martxoak 8ko grebarako talde feministako partaide ez diren emakumeekin talde bat osatu dugu eta autodefentsa ikastaroan ibili gara». Azken hori «emakumeen saretzea bultzatzeko» baliagarria izan zaie: «autodefentsa feminista kontzeptuan sakondu eta elkarrengandik aunitz ikasi dugu». Hori horrela, talde feministako kideek, eraso sexisten aitzinean autodefentsa feminista aldarrikatu eta «sistema patriarkalaren aitzinean elkarrekin antolatzeko, indartzeko, zaintzeko... eta libreki gozatzeko dei egiten die emakume* guztiei. Arratsak, karrikak eta parrandak gureak ere badirelako». Aldi berean, jendarte osoari, eraso sexisten aitzinean besoak gurutzaturik ez gelditzeko eta jarrera aktiboa hartu eta erantzuteko ausardia eskatu dute.



Argazkia: Besta Batzorde, Baztandarren Biltzarra eta Gazte Eguneko antolatzaileekin egindako prentsaurrekoan.

ONGI PASA BESTAKI!
Maite Petrarena

Aseguru agentzia

Allianz

Saskaitz plaza · ELIZONDO
Tel. 948 452 394
teresa.petrarena@allianzmed.es

Ongi pasa bestaki!

Instalazio
elektrikoak

Konponketak

ANGEL TRANTXE
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 246 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakasleak

MATRIKULAZIOA IREKITA:
2018-2019. Ikasturteko klase partikularrak

Ongi pasa bestak!!!

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen
948 453 453

Amaiurko Gaztelua, 2 Elizondo

Bidegain AZOKA

- NAFARROAKO KONTSEBARK
Piperrak | Esparragoak | Barazkiak | Lekaleak
- GOI MAILAKO LEKALEAK PISURA
- BAZTANGO ETA NAFARROAKO
BARAZKI FREXKOAK



T. 681 284 090

- BAZTANGO HARAGIA
- BAZTANGO ETA BIDASOKO GAZTAK
- ETXEAN EGINDAKO:
Albondigak | Eskalopeak | Kroketak (gazta, magra...)
- ARRAULTZA EKOLOGIKOAK
- ERRIOXAKO HESTEBETE NATURALAK
KONTSEBANTERIK GABE:
Txorixoa | Saltxitxoa | Magra

T. 948 452 486

Jaime urrutia, 1 ELIZONDO

Etorri eta ikusi!
Goi mailako produktuak ditugu!

- KANTAUARI ITSASOKO
ARRAI FRESKORIK ONENA
Legatza | Antxoak | Itsas sapoak...
- MARISKO FRESCO ZEIN KONGELATUAN
AUKERA ZABALA

T. 948 580 496





**ESKISAROI
JATETXEA**
ongi pasa bestak!
T. 948 580 013
Jaime Urrutia • ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK

baztanoil
ELIZONDO | www.baztanoil.com
GASOLIOA ETXERA
T. 948 452 309 • M 677 310 009

REPSOL
24
ORDUTAN
ETXEAN

erran.
e APPa
ERABILI ETA
ZABALDU EDUKIAK

J B Iturria
CONSTRUCCIONES
BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
Baztan Berri plaza, 2
Tfno: 948 580 304
info@jbiturria.com • www.jbiturria.com

BB BLOK BAT
TALLERES
Ongi pasa bestak!!



Talleres BLOK BAT, SL • Santiago, 85 • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898

AUTOESKOLA
INDURAIN
**ZIKLO
MOTORE
KLASEAK
ELIZONDON**
**GIDABAIMEN
GUZTIAK**
Ongi pasa bestak!

AUTOESKOLA
INDURAIN
Pedro Axularkoa
31700 Elizondo
T 650 519 052
T 948 580 179



Natura Etxea
BELARDENDA ETA DIETETIKA

SENDAGAI NATURALAK
JANARI EKOLOGIKOAK
ARGALTZE ETA MEDIKU KONTSULTA
KOSMETIKA NATURALA
JANARIEN INTOLERANTZIA TESTA
ONGI PASA BESTAK!
SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

EROSKI city **ELIZONDO** Foru plaza, 3
ELIZONDO
T. 948 580 005

Astelehenetik larunbatera 09:00-21:00

BEAARRAINDEGIA **esarte**





ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA



Mikel ORTEGA
Jo ala Jo
Kultur Elkarteko kidea

«Genero ikuspegia irauliz, hurrei berte ere du bat eman nahi izan diegu»

Hamar lagunengatik egitasmoz, «duela hogeitaz urte inguru» sortu zen Jo ala Jo Kultur Elkartea. Horia erein zuten artean izan zen Mikel Ortega. «Kirikoketa eta Gizakunde bestekin, inauteri eta sagardogintza aferekin», hasi zuten ibilbidea eta urteotan bi arlo horiek garatzeko proiektu batzuk jorratu dituzte: «Gamioxa etxean konponketak egin ditugu, dolarea berreskuratu dugu, sagardoa zantzatzen tresnarekin musika egiten dugu...». Urtez urte ereindako uztaz jaso dute: «besta horiek egonkortzea eta taldea handitzea lortu dugu; gaur egun hamabortz kide inguru gara. Areago, sorrera hartatik, bertzeak bertze, Baztango Gaitariak, Baztandarrak Dantza Taldea, Baztango Xulubitiak... azpi-sailak sortu dira».

Patxi Larralderen gidaritzapean Baztango Gaitariak azpitaldea sortu zutenetik «hemezortzi urte» pasa dira: «lehendabiziko urratsa Baztango Gaita-dantza berreskuratzeko eman genuen, baina pixkan-pixkan herririk herri ibili gara eta dianak, erraldioak, dantzak eta kalejirak egin behar izan ditugu». Urte horietan guztietan Baztanen eta inguruko herrietan ez ezik, Euskal Herriko eta Euskal Herrikan kanpoko bertze hainbatetan ibili dira gaitariak: «herriko bestetako dianetan, erraldioekin...».

BEHARRA LEGE

Ateraldi horiek «hauerrak erraldioak aunitz maite dituztela eta haien gibeletik leku aunitzetara joaten direla» oharretarako bide eman zieten. Horrela bada, Baztanen erraldioak Elizondon bakarrik zituztela kontuan hartuz, beharra izan zen urratsa emateko legea: «bertze herrietan ere behar zituztela pentsatu genuen». Irurritako herriak erraldi batzuk erosi edo egiteko asmoa izan bazutela ikusirik, «guk asmoa izan bagenuela eta gureak hor izanen zituztela» jakinarazi

genien. Horrela bada, egileei «Irurritako bestetarako behar genituela» adierazi genien. Maiatzean aurkeztuagatik, Irurritan egin zuten estreinaldia. Ordutik, «jende andana hurbildu zaigu, egindako lanagatik beraien esker ona adierazteko».

Pentsatzetik egiterako bultzada «gero eta gaitari gehiago garelako eta olatua alde genduela» sentitzea izan zen. Urteetan pentsatutakoa «zirt edo zart» egiteko tenorea ailegatu zitzaizen. Bilkuraz bilkura ibili ondotik, urtez urte plazako emanaldietan lortutako dirua erabili dute erraldioak sortzeko: «momentu horretan musu-truk ibiltzen ginen, baina orain zakura botatuko diruarekin egin ditugun bi erraldioak ikustean merezi izan duela sentitzen dugu».

Bi erraldi horiekin sei dira Baztango erraldioak: «lau Elizondokoak eta bi gureak», baina bertze bi egiteko asmoa ere badu herriak: «ttikiak egin nahi dituzte, gaztetxoek dantzatzeko». Guztiak, ordea, ez dira enbor beretik sortuak: lehendabizikoak errege katolikoak ziren; orain dela urte batzuk egin zirenak Nafarroako erregeak; eta guk egindakoak sagardogintzatik hartutako bi pertsonaiak: sagar jolea eta sagar biltzailea. «Pertsonaiak zehaztea» izan da zailena. Baina elkartearen izaerari begira, «sagar munduari lotuta» ibili direla aintzat hartuz, «horri lotutako bi pertsonaia egiteko dena alde genduela pentsatu genuen».

GENERO IKUSPEGIA IRAULIZ

Ogibide baten erakusgarri diren erraldioak «toki aunitzetan» badaude ere, «genero ikuspegi aldetik eginiko lanaketa» da sagar jole eta sagar biltzaile horien berezitasuna: «emakumea lehenetsi nahi izan dugu, ogibide nagusia, indar handiena behar duena, emakumeak eman diegu. Gizonezkoa, berriz, sagarrak biltzen jarri dugu». Urratsa «ikaragarria ez izanagatik»,

ANZABAL
inmobiliaria



Ongi pasa bestak!

- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripueta bizieta aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BC BALLARENA
ERAIKUNTZAK

LAN GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA:
zaharberritzeak, elektrizitatea,
kalefakzioa, pladur lanak,
iturgintza, etab.



Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aitzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz



ELEKTRIZITATEA
Instalazio berriak | Berritzeak
Argindar fakturan aurreztu nahi?



delegatuak gara

Abartan, 22 behea ELIZONDO
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982
www.ballarenaconstrucciones.com

tinkaenergiak

Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak | Lurreko suak
Eguzki plakak | Haize errota | Tximini garbiketak
Iturgintza lanak | Gasezko galdarak eta zerbitzu teknikoak
Komuneko altzairuen salmenta eta instalazioak

Abartan 16B ELIZONDO
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032
www.tinkaenergiak.com
tinka@tinkaenergiak.com

ONGI PASA BESTAK!

LABAYEN
OSTATUA

Etxeko janari goxoa
Zatozte! eta on egin!

Santiago - ELIZONDO
948 580 338

ELEKBERRI

INSTALADORE
BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na)
elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta
testu liburuak ekartzen dira enkarguz

TABACOS

AXULAR

Ongi pasta herriko bestak!
eskermile urte guzian
bezera izateagatik

Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

GENERALI
Aseguroak

MAÑONEA
AGENTZIA

ONGI PASA BESTAK!

Mañonea Agentzia S.L.

GENERALI
Aseguroak

AGENTE ESKLUSIBOA Erregistro Zkia.: C0072871193304

www.manoneasegursl.seguros.generalis.es

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneaseguro@generalimediadores.es

KONTABLE, ZERGA, LAN
eta JURIDIKO AHOLKULARITZA

www.mainoneaagentzia.com
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
mainonea@mainoneaagentzia.com

KARRIKA
OSTATUA

ongi pasa bestak!

Jaime Urrutia, 11 • ELIZONDO
948 581 275

tradizioa irauli nahi izan dugu: «haurrak erraldoiei begira egoten dira, eta azken batean, eredu hori ere izatea nahi izan dugu».

Erraldoiek beste «ekarpen handia» egiten dietela uste du: «jende aunitz biltzen dute, ez herrikoa bakarrik... Haurrek ez ezik, gurasoek ere aunitz maite dituzte eta bizpahiru orduko ekitaldian jende aunitz biltzea lortzen dute. Haurrei eta gurasoei elkarrekin gozatzeko bide ematen diete».

Oroitzapenei hautsak kentzen hasita, «haurra edo ez horren haurra» zelarik, erraldoien irudia lausotua badu ere, buruhandiak ateratzean eginiko lasterrak ongi oroitzen ditu: «deabrua burua erdi makur zuela ikusten genuenean beldurka ibiltzen ginen, gaztexago ginelarik korrika alde batetik bertzera, ongi pasatzen genuen». Buruhaundi eta erraldoien azpian «guti» ibilia da: «duela urte batzuk erraldoiak dantzatzen ikasteko ikastaro bat antolatu genuen eta hor ibili nintzen ikasten baina kanpora ez naiz inoiz atera». Zalantzarik gabe «erraldoien bueltan gaita joz eta



tarteka garagardotxo batzuk edanez» hobe moldatzen da.

Elizondotik Amaurrera, Lekarozera... harat honatean ibiliko dira udan: «aurten agenda estuarekin ibiliko gara, denetara joatea gustatuko litzaiguke... eta ahal dugun guztietan izanen gara». Heldu den urterako ere eskaerak badituzte dagoeneko. Momentuz horrekin «lan aski» dutela adierazi nahi dute: «erraldoiak dantzatzen ikasteko ikastaroak antolatu nahi ditugu».



Argazkia: VALLE DE BAZTAN



Elkarteko 38 kide Txindokin izan dira. FERNANDO ETXEBERRIA

Euskal Herriko 260 mendizale Txindokin bildu dira

Goierriko eskarmentu handiko mendizaleen hamargarren urteurrena ospatu dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Goierriko eskarmentu handiko mendizaleen hamargarren urteurrenaren harira, Euskal Herriko 260 mendizale bildu ziren Txindokin. Horietatik 38 Arkupeak Elkarteko kideak izan ziren.

Talde bakoitzak ibilbide bat egin zuen. Arkupeak Elkartekoekin egin zutenak, erraterako, Larraitx izan zuen abiapuntu. 09:30 aldera Txindokira igo ziren eta 12:00etan Oiduirra. Bertan elkartu ziren mendizale guztiak.

Parte-hartzaileen arabera, antolatzaileek «lan ederra» egin zuten, beharrezkoa zuten material guztia eraman zuten. Guztiendako salda beroa, txistorraz eta gaztaz betetako ogitartekoak, ardoa, ura, sagardoa, kafea eta kopa eraman zituzten. Ez zen kanta eta bertsorik falta izan, Aitonak eta Iparralde elkartetako mendizaleen eskutik izan ziren entzungai. Bertsoen ondotik, tradiziozko kantuekin eman zieten segida.

Guztiak elkarrekin argazki bat atera ondotik, lau eta erdietan Lizarrustirantz abiatu

ziren. Mendizaleen arabera, «paraje politenatarikoak» Oidui eta Lizarrusti artekoak izan ziren: «Lareo urtegiaren bueltan eta eguraldi eguzkitsuz babesteko gerizpe ederrak eskertzekoak ziren» adierazi dute.

Goierriko mendizaleek bertze mendizale elkarteekin lehen-

LEKUKOA HARTZEKO DEIA EGIN DUTE ANTOLATZAILEEK

dabiziko esperientzia horren tankerakoren bat antolatzeko deia egin zieten. Bai ateraldiaren antolatze-lana, bai eta ateraldiak duen kostua (8.500 euro ingurukoa) ere aintzat harturik, «zaila» dela iritziz dute.

Arkupeak Elkarteko kideek, lerro hauen bidez eta joan ziren mendizale guztien ize-nean, eskerrik beroenak helarazi nahi izan dizkiete: «esker mila aunitz zuen lanagatik» adierazi dute.



Guztira 138 kidek hartu dute parte. F. ETXEBERRIA

138 kide San Juan de la Peña monasterioan eta Sausen

Hiru autobusetan joan ziren eta batzuek goizean bisitaturikoa bertzeek arratsaldean bisitatu zuten

FERNANDO ETXEBERRIA

138 kidek San Juan de la Peña monasterioa eta Sause bisitatu zituzten. Hiru autobusetan joan ziren. Halere, errepidea estua izaki, hirurek ezin izan zuten batera igo. Hortaz, antolatzaileek lehenetik adostua zuten bezala, bi autobusetako kideek San Juan de la Peña bisitatu bitartean, bertzeak Sausera joan ziren. Monastegietan ibili zirenek 14:00etan bazkaldu zuten; goiza Sausen pasatu zutenek, berriz, 13:00etan. Bazkalondan, alderantziz egin zuten. Baina dirudienez, bakarren bati ez

zitzaion argi gelditu eta gero- ra argitu behar izan zuten. 20:00etan guztiak etxerantz abiatu ziren.

Bidaia antolatu zuena hila- bete lehenago bai San Juan de la Peña, bai eta Sausera ere joan zen guztia behar bezala antolatzeko. Bertan izan ondotik, adostutakoa honakoa izan zen: hiru taldeak bi ordu eta erdi egonen ziren San Juanen eta bertze bi eta erdi Sausen (bisitak eta atsedenaldiak barne). Joan aitzinetik, beraz, horixe izan zen bai San Juaneko bai Sauseko ordezkari- kin ere hitzartutakoa.

Elkarteko zortzi kidek literatur lehiaketetan parte hartu dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko zortzi kidek beraien literatura-lanak literatur lehiaketa batean aurkeztu dituzte. Gai horretan adituak diren kideek osatutako epaimahaiak lanak irakurri eta baloratu ondotik, Gorraizen urtero- urtero ospatu ohi duten Baz-

kideen Egunean banatuko dituzte sariak.

Pintura, marrazketa eta argazkigintza alorreko lanak aurkezteko epea, berriz, zabalik dago oraindik. Horiek guztiak aurkezteko azken eguna irailaren 15a, ortziralea, izanen da.

Bizikleta ibilaldi gidatuak eskaintzen dituzte Nafarroan

Nafarroako Turismoaren eskutik zazpi lekutan proposatu dira, tartean Bidasoa eta Plazaolako Bide Berdeetan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Turismoak zazpi lekutan bizikletaz egiteko 44 ibilbide gidatu eskaintzen ditu ekainaren 30etik aitzinera. Ekainaren 23an egin zuten ekimenaren aurkezpena Endarlatsan. Manu Ayerdi, Nafarroako Gobernuako presidente ordeak; Maitena Ezkurtari, Turismo eta Komertzio saileko zuzendari nagusia; eta Marisol Garmendia, Gipuzkoako mugikortasun diputatua izan ziren ekitaldian, Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatearekin, Bidasoa-Turismoko

Mikel Albisu eta udal eta turismo arloko bertze zenbait ordezkariarekin batera.

Guztietan 12 eta 36 kilometro arteko ibilbide gidatuak proposatzen dituzte, eta hamar euro ordaindu behar da, bizikletaren alokairua barne.

Bidasoa eta Plazaola

Hain zuzen, Bidasoko Bide Berdean Doneztebe eta Behobia arteko ibilbidea da proposatzen denetako bat. Sei irteera proposatu dituzte eta Behobia bueltatu daiteke motor-dun ibilgailu batean (kasu



Nafarroa Turismoaren eskaintzaren berri Endarlatsan eman zuten. UTZITAKOIA

honetan, 15 euro ordaindu behar dira). Irteera hauetaz arduratzen den enpresa Centro BTT Amezti da (maribigonzalez@hotmail.com).

Plazaolako Bide Berdean ere sei irteera proposatuko dituzte, lau Lekunberritik Leitzara eta bi Leitzatik Lekunberrira, joan-etorri. Gipuzkoa aldean ere, Andoainetik abiatuta lau ibilbide eginen dituzte Pla-

zaolako bidean. Gipuzkoako Bizibiziki empresa arduratuko da (info@leitzaran-andoain.com).

Horietaz gain, Lizarraldean Vasco-Navarro trenbidearen Bide Berdean, Tarazonicako Bide Berdean, Iruñerriko Argako ibai pasealekuan, Bardeetako Natur Parkean eta Lizarraldeko BTT eremuan ere egin daitezke ibilbideak.



OHI DENA EDATEA GEHIEGI IZAN DAITEKE

Ezagutzen dituzu zure mugak?



www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Javier Cigaren margolanak ikusgai izanen dira Bertizen

Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra, egunero irekiko dituzte Jauregiko ateak 'Figurazioa eta esentzia' erakusketarako

TTIPI-TTAPA

Kultur 2018 programazioaren baitan, arte plastikoak Bertizko Jauregian finkatuko dira uztailaren 20tik abuztuaren 20ra bitartean, aunitzek handikeriarik eta zabarkeriarik gabeko pintura lasaiaren maitatzat jo duten Javier Ciga Echandi (Iruña, 1877-1960) margolariaren obrari buruzko *Figurazioa eta esentzia* erakusketarekin. Egunero zabalik izanen da erakusketa, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Lau izanen dira erakusketa honen ardatz te-

matikoak: errealismo soziala, erretratua, paisaia eta pintura etnografikoa eta alegoriko-sinbolikoa. Amaren aldetik Baztango jatorria zuen Ciga estu-estu lotuta egon zen eskualdearekin, maila pertsonalean zein piktorkoan.

Cigaren lanak erromantizismoan eta errealismoan ditu sustraiak; lehenengotik, herriarekiko eta hango jendearekiko maitasuna hartuko du, bere lanaren inspirazio-iturri biziak, eta bigarrenetik, errealitatea islatzeko eta perfekzio-iristeko obsesioa, akademi-



Javier Cigaren margolanetako bat. UTZITAKO ARGAZKIA

zismotik harago. Zorroztasun teknikoa eta ongi ikasitako ofizioa ditu oinarri bere pin-

turak. Deus baino gehiago, esentzien eta egien margolaria izan zen Ciga.

EDARI UNITATEAK (EU)



URA /
FRESKAGARRIA

0 eu



BASOKADA
BAT ARDO

1 eu



KAINA BAT
GARAGARDO

1 eu



GARAGARDO
HERENA

1,5 eu



KREMA /
LIKOREA

2 eu



RONA / VODKA
GINEBRA...

2 eu

ZURE OSASUNERAKO EZ GAINDITU



4 eu

..... Egunero 2 eu

6 eu

..... Egun jakinetan 4 eu



ALKOHOLIK GABEKO BESTA, AUKERA HOBERIK EZ DA!



www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



'Aske maite, aske bizi' pankarta jarri zuten Udaletxean. UTZITAKO ARGAZKIA

LGTBI+ nazioarteko eguneko mozioa onartu du Udalak

Bere politiketan sexu-aniztasun eta genero-identitate ikuspegia sartzeko konpromisoa hartu zuen ekainaren 28an

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 28an LGTBI+ pertsonen sexu-askapenerako Nazioarteko Eguna zela eta, udalak adierazpen instituzionala egin zuen ekainaren 26ko batzarrean, mozio bat ahobatez onartuz.

Besteak beste, Udalak konpromisoa hartu zuen bere politiketan sexu-aniztasun eta genero-identitate ikuspegia sartzeko eta zehazki, «diskriminazioaren prebentziorako eta identitate eta praktika sexu-afektibo ez heteroarautzailerak, anitzak, eta askatasunean egindakoak garatzeko ekintzak barnean hartzen dituzten hezkuntza feministrako programak martxan jartzea, beharrezko baliabideak bermatuz».

Era berean, laguntza eskainiko die diskriminazioa jasaten duten LGTBI+ pertsona guztiei, eta bereziki beraien sexu, arraza, jatorri, egoera administratibo eta abarren-gatik kalteberatasun handiagoko egoeran dauden pertso-

nei. Bere eskumenen esparruan, Udalak beste leku batzuetatik iristen diren eta beraien sexu orientazioaren edota genero-identitatearen ondorioz jazarpena jasaten dutela adierazten duten pertsona guztientzako arreta osoa ere eskainiko du.

LGTB+ adineko pertsonen arreta egokirako zerbitzuak sustatzeaz gain, mugimendu horretakin eta feministekin etengabeko komunikazio- eta lankidetzak-kanalak mantenduko ditu eta ekimen bateratuak martxan jartzeko baliabideak erraztuko ditu.

Denontzako askea eta bidezkoa den Euskal Herri baten alde, Udaletxetik dei egiten diete herritarrei, «mugimendu LGTBI+ eta feministek gure udalerrri eta hirietan deitzen dituzten ekintzetan parte har dezaten: funtsezko giza eskubideez, norberaren identitatea definitzeko eta identitate hori askatasunez bizitzeko eskubideaz ari gara».

Karmen bezperan herri afaria egingen dute zortzigarrenez uztailaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 15a Karmengo Amabirjin bezpera da eta zortzigarren herri afaria egingen dute plazan igandean 20:30ean. 21:30ean, garai bateko ohitura galdu gabe, suak piztuko dituzte. Eguraldi txarra balitz, Lubineko Pilota Plazan izanen litzateke afaria. Lehenbiziko aldiz Umore Onak hartu du antolaketa ardura eta sagardoa, ardoa, freskagarriak jarriko ditu, Udalaren finantziarioarekin. Joan den urtean egiterik izan ez zen patata tortilla lehiaketaren laugarren

edizioa ere egingen da. Aurten, plazan egin ordez, norberak etxean edo elkartean prestatua eraman dezake tortilla. 20:00etara plazara eraman behar da sei bat lagunentzako tortilla eta gero epaimahaiak erabakiko du irabazlea.

Garai batean baserri ataritan pizten zen sua berreskuratzen nahi da, eta berreskuratzen ari da ospakizun honekin. Alorretan egiten zen arbia bildu, hurrengo urteko sasoirako hazia kendu eta gelditzen ziren zuztarrak Karmen bezperan erretzen ziren.

Tolosan ere txapeldun izan da Iker Salaberria

Tolosako San Joanetako lau eta erdiko pilota txapelketako elite mailako txapeldun suertatu da Iker Salaberria. Ekainaren 24an jokaturako finalean 17-22 irabazi zion Berrobiko Zubiriari.



UTZITAKO ARGAZKIA



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nøgen taldeak joko du festetan

Oraindik hilabetea falta Amabirjin festetarako, baina dagoeneko egitaraua lotuxea dago. Nola ez, musika taldeek izaten dute garrantzia: Nøgen taldeak kontzertua eskainiko duela abuztuaren 17an. Egun horretan, Cuchin Ibañez y los Charros eta Eonian elektrotxaranga ere ibiliko dira herrian.



Soto, Iguaran, Lujanbio eta Mendiluzeren saioa izango dute Santiago Egunean.

Santiago Egunarekin abiatuko dira herriko festak

Arkume jateko txartelak uztailaren 25a bitarte eros daitezke; helduek 30 euro eta haurrek sei euro ordaindu beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Santiago Festetarako gogotsu daude herritarrak. Santiago Egunarekin hasi eta lau egunez haur, gazte eta helduen gozamenarako ekitaldiz jositako egunak izanen dituzte; tartean, osteguna, atsedeen eguna izanen dute.

Festak hilaren 25ean, asteazkenean, hasiagatik, aurreko igandean ere, hilaren 22an, festa seinalea izanen da herrian. Izan ere, pala txapelketako finalak jokatu dituzte. Finalistek 11:00etan dute hiztordua.

Egitaraua

Santiago Egunarekin hasiko dira festak. 11:00etan meza izanen da, eta ordubeteren buruan, 12:00etan, txupinazoarekin lehertuko dira. 12:30ean Goizueta (Huizi eta Lizeaga) - Arano (Salaberria eta Apezetxea) pilota partidak jokatu dituzte. Arratsaldean, 18:30ean, dantzaldia ikusteko; eta 19:30ean, Julio Soto, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluzeren eskutik, bertso saioak aditzeko parada izanen dute herritar eta bisitariek.

Biharamunean atsedeen hartuta, ostiral arratsaldean segituko dute festan. 17:30ean haurren pilota partidak; 18:30ean txokolatada; 19:00etan zirku tailerra; eta 22:30ean mus txapelketa izanen dituzte.

Larunbatean, 11:00etako mezarekin hasiko dute eguna. 14:30ean, berriz, urteroko ohi-turari eutsiz, arkumea bazkalduko dute. Bazkalondoa, Luzianoren eskutik, dantzaldiaz gozatzeko aukera izanen dute.

Igandean, uztailaren 29an, bukatuko dira bestak. Goizean goizetik feria izanen da. Gero, patata tortila lehiaketa egin eta dastatzeko tartea izanen dute; eta 18:00etan herri-kiroletan ibiliko dira. 21:00etako afari herrikoiarekin borobilduko dituzte bestak. Oroigarri gisa argazki herrikoia ateratzeko deia ere egin dute antolatzaileek.

Txartelak

Arkume jateko txartelak uztailaren 25a arte eros daitezke herriko Kontseju tabernan; Hernaniko Deportibon; Urnietako Kantoi tabernan; edota Goizuetako Amaiakafetegian (helduek 30 euro eta haurrek sei ordaindu behar dituzte).

Buruhandiak

Bien bitartean, uztailaren 25era arte, asteazkenean, 19:00etatik 21:00etara Maisuenean festetarako buruhandiak egiteko tailerra antolatu dute berriki sortutako Jalki kultur taldeko kideek.



Informazio puntua Aralarren. PLAZAOLA

Aralar ezagutzeko doako bisitak eskainiko ditu Plazaolak udan

TTIPI-TTAPA

Aralar mendilerroa ezagutu nahi dutenek aukera ederra izanen dute uda honetan, Plazaola Partzuergoak, Sakana Garatzen agentziarekin eta Aralarko Elkartarekin elkar-lanean, bisita gidatuak antolatu baititu uztailetik irailera. Bisitak doan izanen dira, baina aurretik izena eman beharko da (info@mirua.com edo 608 560369).

Uztailaren 27an eta abuztuaren 5ean eta 24an Aralarko trikuharriak ezagutzeko lau kilometrotako ibilbidea prestatu dute; uztailaren 20an eta abuztuaren 10ean eta 19an, Iribasko iturburura joateko aukera izanen da bost kilometrotako ibilaldia eginez; uztailaren 14an eta 28an, abuztuaren 11n eta irailaren 1ean, pagadiak eta behatokiak ezagutzeko zortzi kilometrotako ibilbidea prestatu dute eta uztailaren 22an, abuztuaren 4an, 17an eta 25ean eta irailaren 8an Aralarko paisaiak ezagutzeko irteerak egingen dituzte, 12-14 kilometrotakoak. Santutegia, Medukiloko leizeak eta santutegiko indusketak ikusteko beste bisitak eskainiko dituzte, baina ez doan.

Bestalde, San Migel Santutegiaren parean informazio puntua jarriko dute.



Aranoko Udalak

jai zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei



Goian, udaletxean egin zuten aurkezpena; behean, afarian.

Pestetetan hondakin gutxiago sortzeko plana abian

Gobernuaren kanpaina Leitza abiatu dute eta Iturengo, Berako, Etxalarko eta Urrozko bestetan ere erabiliko dute

TTIPI-TTAPA

San Joan bezperan, herriko udaletxean aurkeztu ziren irailera bitarte egingen diren 28 ospakizunetan 13.000 lagunek erabiliko dituzten baxera erabilgarriak. Ondotik, afarian 1.100 lagunek estreinek ez erabili zituztenak. Le-sakako Tantirumairu ikastolako bestan, Lekunberrin, Obanosen, Garesen eta Berbizanan ere erabili zituzten, ondoko asteburuan.

Eskualdeari dagokionez, Iturengo eta Elizondoko bestetan eta Baztandarren Biltzar-rran ere erabiliko dituzte uz-tailean; Beran eta Etxalarren abuztuan; eta Urrozen irailean.

Nafarroako Gobernu Lan-da Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio-ko Depar-tamentuko Hondakinen Pre-bentzio Bulegoak eta Honda-kin Partzuergoak sustatu dute

ekimena, GAN-NIK erakun-dearen laguntzaz. Areago, onartu berri den Hondakinen Foru Legearen arabera, 2020tik aitzinera, botatzeko baxera erabiltzea debekatuko dute.

Aurkezpen ekitaldian Isabel Elizalde, Nafarroako Gober-nuko Landa Garapen, Ingu-rumen eta Toki Administra-zioko kontseilaria; Unai Loiar-te, Mendialdeko Zerbitzuen Mankomunitateko presiden-tea eta Goizuetako alkatea; Mikel Zabaleta, Leitza-ko al-katea; eta Iñaki Urrizalki, Na-farroako Hondakinen Par-tzuergoko kudeatzailea bildu ziren.

Varazdin Fundazioa izan da hornitzailea, baita baxera bil-du eta garbitzeaz arduratuko dena ere. Gaur egun, dibe-rtsitate funtzionaleko 70 lagun ari dira Varazdin Fundazioan lanean.

Gabriel Saralegi botako du pestei hasiera emanen dien txupinazoa

JM BARRIOLA

Aurten, lehendabizikoz, he-rritarrek erabaki dute herriko pestetako txupinazoa nork bota. Pesta Batzordeak hiru hautagai jarri zituen: Villabo-nako Talogileak (30 urtez Kul-tur Aroan auzolanean ibili direnak); Gabriel Saralegi (herri-kirolzale eta bultzatza-lea) eta eskolako irakasle ju-bilatuak (hiru belaunaldi hez-ten ibili direnak). Guztira 379 herritarrek eman dute bozka eta horietatik 130 Gabriel Sa-ralegiarentzat izan dira. Urte askotan herri-kirolak bultza-



Gabriel Saralegi udaletxean.

tzen eta herriko ekimenetan, auzolanean, egin duen lana goraipatu nahi izan dituzte. Udalak bai herritarrek, bai eta beste bi hautagaiak ere, es-kertu nahi izan dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Dantzan bukatu du ekaina

EnesPIRal, AssoC.I.A eta Euskal Herriko Kontakt Inprobisazio Elkartearen eskutik, Iparraldeko III. Karabana Kontakteroaren lehenengo etapa izan zuten ekain bukaeran. Plaza eta kiroldegian bildu ziren herritarrek eta dantza garaikideak dantzatu zituzten.

Baratzeetan barna ibilaldia Jakoba Errekondorekin

'Herri baratza', herri ondare' izenburupean eta Jakoba Errekondo gidari zutela, baratzeak ikusteko eta garaian garaiko produktuen sustapenaz eta praktika onez hitz egiteko tartea izan zuten.





Kontsulategiaren inaugurazioan.

Larraungo kontsulategian errehabilitazio unitatea egin dute

TTIPI-TTAPA

Larraungo kontsulategian, Lekunberrin, errehabilitazio-ko unitate periferikoa jarri dute, Irurtzungo eta Leitzako osasuneko oinarritzko eskualdeko 11.814 lagunek erabili ahal izango dutena.

Kontsulategia handitzeko eta zaharberritzeko obrak egin ondotik, Fernando Dominguez kontseilariak inauguratu zituen. Kontsulategiak 105 metro koadro ditu orain, eta instalazio gehiago ditu: medikuntzako kontsulta, erizaintzako kontsulta, errehabilitazio-ko eta fisioterapiako medikuaren kontsulta eta errehabilitazio-ko gimnasioa.

Nafarroako Gobernuak 300.459 euroko diru-laguntza eman du obrak egin ahal izateko. Eraberean, Osasunbideak -Nafarroako Osasun Zerbitzuak- 43.038 euroko inbertsioa egin du ekipamendu orokorra eta klinikoa jartzeko, batez ere errehabilitazio-ko aparatuak: hidrokolatorea, karbonozko bizikleta, ultragorrien lanpara, ultrasoinuen ekipoa, parafina berogailua, izozkailua, elektroestimulazio-ko ekipoa, korrante interferentzialen ekipoa, laser-modulua, bi esku-ohedrauliko eta bestelako materiala ere bai.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udaleku irekiak antolatu dituzte uztailaren 9tik abuztuaren 3ra

Herriko plazara inguratzen denak, aurtien ere, umeen jolasak eta barreak adituko ditu. Ekainaren 19an izan zuten azken eskola eguna eta ginkana berezi batekin bukaera borobila eman zioten ikasturteari. Orain, berriz, atsedeen hartzeko garaia da baina baita ongi

pasatzekoa ere. Horretarako, udaleku irekiak antolatu ditu Udalak, Kirol Mankomunitatearekin elkarlanean. Uztailaren 9tik abuztuaren 3ra bitarte, lau astez, egunero izango da zerbitzua. Goizetan, bi orduz, 11:00etatik 13:00etara, bilduko dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekaineko ospakizunetatik abuztukoetara

Su gaineko saltoak, baserrietako eskeak, plazako herri-kirol erakustaldiak, afariak... denetarik izan da ekainean eta argazkietan ageri denez, primeran ibili dira herritarrak. Eutsi pestarako gogoari, gutxiago falta da eta abuztuaren 14tik 18ra ospatuko diren herriko pestetarako.

Heziketa-gastuak ordaintzeko laguntzak emango ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

Hamasei urtetik beherako gazte eta haurrak dituzten gurasoek eska dezakete diru-laguntza 2017an egindako ikastaroetarako. Egiaztatzen den gastuaren %50a jaso dezakete, gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko.

Baldintzak

Laguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da Areson erroldatua egotea gutxienez urtebeteko antzinasunarekin eta egindako gastua faktura edo ordainagirien bidez erakutsi beharko da, egiaztatze-ko aukera izan dezaten.

Kirol jarduerak dakartzaten gastuei dagokienez ikastaro ez lehiakorrek baino ez dira hartuko kontuan; adibidez, igeriketa ikastaroak.

Eskaerak

Idatzizko eskaerak Udaletxeko idazkaritzan egin eta aurkeztu behar dira, uztailaren 12a bitarte.



Baztandarren Biltzarraren aurkezpena, uztailaren 4an. JUAN MARI ONDIKOL

Baztandarren Biltzarra irekiko dute Altsasuko gurasoek

Uztailaren 22ko besta egun handiko organ desfilearen buruan izanen dira kartzolean dauden zortzi gazteen senideak

TTIPI-TTAPA

Gero eta gutiago falta da uztailaren 22ko Baztandarren Biltzarrerako. Urratu duen bidean sakontzeko xedez, hainbat berrikuntza izanen ditu bestak. Altsasuko Gurasoek irekiko dute organ desfilea, elkarteak babesa eta elkartasuna adierazi nahi baitie Altsasun, 2016ko urrian izandako liskarraren harira, Espainiako Audientzia Nazionalak zigortu dituen zortzi gazteei eta haien senideei.

Besta iragartzeko kartellehietarik ez da egin aurtan. Baztango sortzaileei beren portafolioa aurkezteko aukera eman zaie, eta elkarteko adituek hautatu dute Baztandarren Biltzarraren kartelaren egilea nor izanen den. Hala, kartela egiteaz Pello San Millan arduratu da. Kartelaz gain, kamisetak ere egin ditu, eta salgai daude Elizondoko Intza ostatuan; astearte iluntzeetan ere erosi ahal izanen dira elkartearen egoitzan.

Bazkarirako txartelak uztailaren 18an

Elizondoko Merkatu zelaian egingen den bazkariari dagokionean, bertako nekazari eta abeltzainek ekoiztiko produktuen aldeko apustua egiten segitzen du Baztandarren Biltzarrak. Bazkariko txartelak 24 eurotan salduko dira. Aurrez aurreko salmenta uztailaren 18an izanen da, 10:00etatik goiti, egoitzan.

Txartela egun horretan erosterik ez duenak, *baztandarrenbiltzarra@hotmail.com* helbidera idatziz erreserbatzeko aukera izanen du. Ezinbertzekoa da zenbat laguntzat nahi duen adieraztea, eta ordainketa egitea. Behin ordainketa eginda, txartelak

EZ DELA INOLAKO ERASO SEXISTARIK ONARTUKO OHARTARAZI DUTE

Baztandarren Biltzarra egunean bertan eskuratu ahal izanen dira, goizez, plazan paratuko den txosna ondoko mahaian.

Hondakinei dagokienean, ahalegin berezia egingen dute bestan sortzen diren hondakin kopurua murrizteko. *Edalontzia berrerabili, bestan zurekin ibili* lelopean, edalontzi berrerabilgarrien erabilera sustatuko da bertze urte batez. Gainera, organ desmuntatzean sortzen diren hondakinak kudeatzeko plan berria jarri dute martxan Udalaren laguntzari esker. Horri esker, hondakin mota bakoitza dagokion tokira botatzeko aukera izanen dute parte-hartzaileek.

Azkenik, uztailaren 4an eskainitako prentsurrekoan nabarmendu nahi izan zuten Baztandarren Biltzarrean ez dela inolako eraso sexistarik onartuko. «Izan ere, besta denendako da; elkar errespetatuz denek ongi pasatzeko eta gozatzeko. Ondorioz, edozein salaketan aitzinean eraso sexisten protokoloa martxan jarriko dela» ohartarazi du elkarteak.

Egitaraia

- 10:00etan artisau erakustazoka Pedro Axular Karrikan (goiz osoan).
- 11:00etan orha apainduen desfilea.
- 14:00etan Mutildantzak Elizondoko Herriko Plazan.
- 14:30ean herri bazkaria Merkatuko Zelaian. Bazkalondoko animazioa (Baztango Ioiak, Erein taldearen kantaldia, Baztandarren Biltzarraren komunikatua, organ sari banteka, tonbolaren zozketa, mutildantzak, larraindantza, muxikoak...).
- 18:00etan Trikidantz-en eskutik dantzaldia Laxoako plazan.
- 20:00etan Oharkaberen eskutik dantzaldia Laxoako plazan.
- 01:00etan DJak (Tirry&Tery) Baztandarren Biltzarraren ostatuan.

Kataluniarekin Elkartasun Eguna igandean Elizondon

Kataluniarekin Elkartasun Eguna antolatu du Elizondoko Herriak, Baztandarren Biltzarrarekin eta Jo ala Jo taldearekin batera. Uztailaren 15ean izanen da, igandean. 11:00etan harrera egingen dute plazan eta 11:15ean ibilaldia Vilafranka eta erraldoiek. 12:45ean Castellers de Vilafrancak saioa eskainiko du plazan eta 14:30ean bazkaria egingen dute Iriarte pilotalekuan. 18:00etatik aitzinera kontzertuak izanen dira Merkatuko plazan: Paxkal Irigoyen, Kaskezur eta Borrokan.

Baztango bi futbolari ohi egun berean hil dira

Egun iluna izan zen ekainaren 30a Baztango futbol munduarentzat, bi futbolari ohi egun berean hil baitziren. Alde batetik, Juan Angel Viela Eugi iruritarra zendu zen, 82 urterekin, Baztango futbolari karismatikoetako bat. Bertzetik, Jose Antonio Zaldua Urdanabia, Bartzelonako futbol jokalaria izana hil zen, 76 urterekin. Zalduak hamar urte egin zituen talde blaugranan, eta horrez gain, Valladolid, Osasuna eta Sabadell taldeetan ere jokatu zuen. Bartzelonako herri batean bizi zen.

Lanbide Heziketa zentroa egiteko tramiteak hasiak

Oronoz-Mugairin egingen den Bidasoaldeko Lanbide Heziketa zentroaren tramiteekin hasi da Udala, zehazki, zentroa eraikiko duten lurzorua hirigintza kalifikazioa aldatzeko tramiteekin. Martin Urrutia etorbidearen eta Bidasoa ibaiaren artean eraikiko dute.

Alava Sareari buruzko erakusketa Elizondon ikusgai

Bittori Etxeberria Agerrebere elizondarra (1909-1997) espioitza sare horretako zutabea izan zen

TTIPI-TTAPA

Alava sare. Emakume ikusezinak, elkartasuna eta espioitza (1936-1947) izeneko erakusketa ikusgai dago Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, ekainaren 30etik uztailaren 18ra (astelehenetik larunbatera, 17:00etatik 20:00etara). Josu Chueca EHUko historialari eta idazle nafarra da erakusketaren komissarioa.

Erakusketa Luis Alava Sautu –Alava sarearen ordezkari eta arduradun nagusia– fusilatu zutenetik 75 urte beteko dire-

la gogoratzeko ekitaldien barruan antolatuta dute. Luis Alavaren izenaz bataiatu zuten sareak, 1936 eta 1940 urteen artean, hots, Gerra Zibilakiraun zuen bitartean eta Francoren diktaduraren hastapenetan, ezin ahala konta elkartasun-ekintza egin zituen presoan, erbesteratuen eta familien alde. Gisa berean, sareko kideek postariarena egin zuten atxilotutako agintarien eta erbesteratutakoen artean eta, horretaz gainera, aliatuentzako espioitza-lanetan ere aritu ziren.



Alava Sareko kideak Iruñeko presondegian. UTZITAKO ARGAZKIA

Bittori Etxeberria Agerrebere, *Pepita Etxano* ezizenez, baztandarrak (Elizondo, 1909-1997), Itziar Mugika, Tere Verdes eta Delia Laurobak eta bertze berrogeita hamargizon-emakumek, hamaika ekintza baketsu egin zituzten 1936 eta 1940 urteen artean, euskal herritarren eskubideen eta askatasunaren alde.

Bittori Etxeberriak hilabete batzuk eman zituen zigortuta Iruñean. Gero, Baztanera itzuli eta mugalari lanetan hasi zen. Bere anaia Esteban eta Felicitas eta Agustin Ariztia Ibarra anai-arrebak ere sareko kideak izan ziren eta ezinbertzekoak suertatu ziren hari antifrankista honek egin zituen ekintzetan.

Erakutsi eta probestu aukerak!

BAZTAN TTIPI TXARTELA

ALMACO BAZTAN GAIKITA %5 %10 DESKONTUA EDO OPARIA Galdetu dendan T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com	ARGIBEL PTIKA ESKAINITZA Betaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertze pare bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	Beatriz COSMETOLOGO %5 %5 DESKONTUA kosmetika eta osagarrietan DESKONTUA laserrean eta gorputz-aurpegi tratamenduetan Santiago, 53 ELIZONDO T. 948 58 02 83	BIOK BAT TAILERRAK %10 DESKONTUA Baterietan, olio aldaketa eta frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98
FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia digitaletan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91	Giltxaurdi Udal Kirol Instalazioa %5 DESKONTUA neguko denboraldian zehar 10 eguneko abonoan Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01	Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Datuegibela, 10 ELIZONDO T. 948 58 02 25
liberpress libros %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	POSTA ELBETE %10 DESKONTUA kartan, 30etik gora txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	SANSIÑENA CINCOA %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA eskeletan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58
Zentru berria Homeopatia, Kiromasajea, Polaritatea, Dietak ... %10 DESKONTUA kontsulta-terapien Santiago, 58 ELIZONDO			

Uda honetako Artearen Ibilbidea abiatu da

Kattalin Arizmendi, Erregerena Anaiak, Miren Irigoien eta Juan Lamerinhasen argazkiak ikusgai daude Errotazainean

TTIPI-TTAPA

Guztira hamahiru aukera eskaintzen ditu aurten Udak Kultura Batzordeak antolatutako Artearen Ibilbideak, Elizondoko, Arizkungo eta Erratzuko margolanen, eskulturen, argazkien eta literatura-lanen erakusketak ezagutzeko proposamenak bilduz.

Artearen Ibilbidean zehazturiko geldialdiek uztailaren 1ean izan dute hasmenta. Elizondoko Braulio Iriarte karrikako Errotazainean Kattalin Arizmendi, Erregerena Anaiak, Miren Irigoien eta Juan Lamerinhasen eskutik, argazki ederrak ikusteko aukera dute bisitariak. Irailaren 2ra bitarte, egunero 09:00etatik 22:00etara bisitatu ahal izanen da.

Hilaren 12an, ortzegunean, Arizkungo Sastenea Etxean, Xabier Soubeleten pintura erakusketa abiatuko da, irailaren 2ra arte ikusi ahal izanen dena (ortzegunetik igandera 11:00etatik 13:30era eta 14:00etatik 20:00etara). Igande horretan bertan, uztailaren 15ean, Santxotena Parke Museoan pintura eta eskultura erakusketa irekiko dute Arizkun: Teresa Lafraguaren margolanak eta eskulturak abuztu hondarrera arte izanen dira ikusgai (asteartetik larunbatera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era eta igandetan 11:00etatik 14:00etara).

Pintura ez ezik, argazkiak, bideoak eta poemak bilduz, Diana Iniestaren sormen-lanak ikusi ahalko dira Erratzun, uztailaren 20tik irailaren 2ra, arratsaldean (18:30-21:00). Epe berean Elizondon Tomas So-



Argazki erakusketa ikusgai da.

brinoren *Entre miradas* erakusketako ateak irekiko dituzte, Arizkunenea Kultur Etxeko lehenengo solairuan (11:30-13:30 eta 18:00-21:00).

Uztail hondarretik, 28tik, abuztuaren 15era bitarte, Jose Mari Apezetxearen erakusketak-omenaldia eta Roque Lasaren pintura erakusketa bisitatzeko geldialdia izanen dute Erratzun dabilzan bisitariak. Zubietea etxean egunero sartu ahal izanen da (18:30etik 20:30era). Noa Larreguiren *Basque fusion* pintura erakusketa eta Jakoba Zubikoaren eskultura erakusketa, berriz, bi alditan banatuko da: batetik, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean uztailaren 24tik 29ra; eta bertzetik, Jaime Urrutia karrikan, 16 zenbakian, abuztuaren 15etik, 16 zenbakian, abuztuaren 15etik (11:30-13:00 eta 18:00-21:00). Jaime Urrutia karrika berean, Jose Luis Alzugarairen margolanak ikusteko parada izanen da (hirugarren zenbakian), uztailaren 24tik urrira bitarte (egunero, 19:00-21:00).

Erakusketa batzuetako ateak itxi eta bertzeak irekiko dira irailean. Elizondoko Bergarenean etxean, erraterako, Ana Mari Marinen erakusketaz gozatu ahal izanen dute bisitariak irail osoan.



MAIALEN IANTZI

San Joan sua Berroetan

Urtero bezala, Berroetako plazan suak piztu zituzten San Joan bezperan. Herritarrak saltoka ibili ziren, eta jende andana hurbildu zen plaza bazterrera. Ondotik, xingar eta gasna jatea egin zuten. Solasaldi goxoan egon ziren ordu luzez, suaren inguruan.

Sua eta loreak San Joan egunaren inguruan Zigan

San Joan bezperan Zigako plazan afaldu zuten eta saltoka ibili ziren *San Juan sua, ona barnera, gaixtua kanpora, sarna fuera* kantatuz. Igandean, San Joan loreak eraman zituzten mezara.



ARANTXA GAMIO



UTZITAKO ARGAZKIA

Manada askatzearen kontrako bilkura

Manadako kideak aske uztearen harira, Baztango Haizea feministak taldeak antolatuta, elkarretaratzea egin zuten ekainaren 22an Elizondoko plazan. *Guk sinisten dazugu, Justizia patriarkala akatu!* zioen pankartaren giblean, 200 bat lagun bildu ziren.

Elikadura burujabetza politiketaz mintzo

‘Baserritik mundura: gure elikaduraren etorkizuna jokoan’ ikastaroak asteburuko egonaldia egin du Baztanen

TTIPI-TTAPA

EHUren Hegoa institutuak eta EHNE Bizkaiak antolatzen duten *Baserritik mundura: gure elikaduraren etorkizuna jokoan* ikastaroak asteburuko egonaldia egin zuen Baztanen, eta horren barnean, ekainaren 30ean mahai-ingurua egin zuten Elizondoko Arizkunenean.

Elikadura burujabetza erai- kitzeko, tokian tokiko politikak aztertzeke asmoarekin, Baz- tango esperientziak ezagutze- ko Ana Iriarte Baztango Za- poreakeko kidea, Aitor Azka- rate Hazitik Hozie elkarteko kidea eta Joseba Otondo al- katea gonbidatu zituzten. Beraiekin, Nafarroan egiten ari diren gogoetez mintzatze- ko Etxalde mugimenduko Gotzone Sestorain aritu zen.

Peter Rosset

Nolanahi ere, Peter Rosset Via Campesinaren nazioarteko batzorde tenikoko kidearen parte-hartzea bereziki aipa- garria da. Estatuan barna egi- ten ari den bisitaldia Bazta- nerat etortzeko aprobetxatu zuen eta, horrela, *Agroecología. Ciencia y política* bere azke- neko liburuaz mintzatu ahal izan zen. Rosseten erranetan, tokiko elikadurak zentzu osoa hartu dezan agroekologiaz eta lurraren eskuragarritasunaz aritu beharra dago. Nekazariak eta komunitateak kontuan hartzen ez baditu, guztiz de- sitxuratzen da.

Egonaldiak ekainaren 28tik uztailaren 1era iraun zuen eta Amairko Herriko Etxeko ater- petxean egon ziren.



Mahai-inguru interesgarria eskaini zuten Arizkunenean. UTZITAKO ARGAZKIA





Belateko lanen jarraipen batzordea, ekainaren 29ko bileran. NAFARROAKO GOBERNUA

Lanak akitu arte segituko dute trafiko murrizketek Belaten

Bera parean trafikoa erdira jautsi den bitartean, A-15ean Areso parean 1.906 ibilgailu astun gehiago dabilta egunero

TTIPI-TTAPA

Belate eta Almandozko tune-lak egokitzeko lanek aitzinera segitzen dute eta hauek itxiak dauden bitartean, Belateko errepide zaharra (NA-1210) erabiltzen ari dira gidariak. Honen eta N-121-A eta N-121-B errepideen segurtasunaren inguruko balorazioa egin du lanen jarraipen batzordeak, ekainaren 29an egindako bileraren ondoren. Orokorrean, baikor baloratu dute. Berez, kamioiei eragiten dieten murrizketak uztailaren 15ean bukatzekoak ziren, baina emaitza onak ikusita, lanak akitu bitarte, horiek segitzea erabaki du Gobernuak.

N-121-A errepidearen erabilerari dagokionez, Olaben %61,23 murriztu omen da trafikoa eta Beran, berriz, %51,58. Honek, noski, eragina dauke A15 autobidean. Areso parean, lan egunetan 1.906 ibilgailu astun gehiago dabilta, banaz bertze.


Orain artean, Almandoz eta Belateko tunelen drenatze-lanen erditsua egin da eta tuneletan berrogeina metroko bi bide bazterrak ere egiten hasiak dira. Bi tuneletan suaren kontrako kablea ere jartzekotan dira eta oraingoz, lehengo kableak kentzen ari dira. Uztail erditsuan hasiko dira kable berria jartzeko.

Amaiurko gazteluko bisitariendako harrera zentroa sortuko dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Amaiurko Gaztelua Elkartearen laguntzarekin, Amaiurko gaztelu historikoa bisitatzera hurbiltzen direnei harrera egiteko zentroa egin gogo du. Eraikin berria herri sarreraren eginen dute, elizaren eta errotaren

ondoan, gaur egun egoera kaxkarrean dagoen nabe baten lekuan. Donostiako Borja Izagirre eta Arizkongo Patxi Valer arkitektoek idatzi dute proiektua. Eraikinean, 1522ko inbasio-ko armak eta tresnak bilduko dituen museoa eta liburutegia izanen dira.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ELIZONDO BHI

3D inprimagailua egin dute Elizondon

Elizondo Lanbide Eskolan irakaskuntzan erabiltzen diren metodologia berriak aplikatzen hasiak dira. 2017-18 kurtsoan hainbat proiektu burutu ditu *Metodologia Aktiboak* erabiliz. Mekanizazio departamentukoek, argazkiko 3D inprimagailua diseinatu eta fabrikatu dute Diego Perez ingeniariarekin.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI

744 484 361

ttipi-ttapa

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com



Arburua-Iparragirretarrak, urteko bilkuran. JOSEBIÑE ETA KORO

Iparreko-bordakoek bilkura egin dute San Joan egunean

Denera 69 Arburua-Iparragirretar bildu ziren, tartean hemengo arbasoak dituzten familia batzuk

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Iparreko-bordako Arburua-Iparragirretarrek beren besta ospatu zuten, ekainaren 24an.

Guztira 69 lagun elkartu ziren, eta diotenez, XVIII. mendetik gaur egunerainoko familiako aitzineko batzuk ere, bisitan izan zituzten.

Bestetako pilota txapelketa martxan da

Bestetako pilota txapelketa martxan da ekain hasieraz geroztik. Hamaika bikote ari dira, eta lehenbiziko fase hau uztailaren 28an finituko da Final-zortzirenak hor jokatu-ko dituzte. Finala, Andre Mari egunean jokatu-ko da.



Gan den urteko sari banaketa.

Eskolako patioaren itxidura moldatzeko diru-laguntza

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan hobetze eta zaharberritze lanak egiteko udal eta kontzejuei diru-laguntzak eman dizkie Nafarroako Gobernuak, ekainaren 28ko Nafarroako Aldizkarian agertu denez. Horien artean, Zugarramurdiko eskolan segurtasunagatik patioaren itxiduraren egokitze lanak egiteko 3.712,73 euroko laguntza emanen du. Beraz, Udalak aurkeztutako 5.725,74 euroko aurrekontuaren %65 ordainduko du Gobernuak. Urriaren 1erako bukatu behar dira lanak.



JOSEBIÑE ETA KORO

San Joan bezperarako toki xarmanta

San Joan bezpera dela eta, toki xarmanta dugu herrian suak pizteko: leze barnean. Han ez diogu euriari beldurrik, ezta hotza edo beroari ere. Horretaz gain, eskolako Guraso Elkarteak xingar eta txixtor jatea antolatzen duenez, arras giro polita muntatzen da gau horretan.

Joxe Jabier Zubillaga zinegotzia hil da

Joxe Jabier zinegotzia zen, zikiro erretzailea, olentzero, aktorea, *refetako* soka-dantza burua... eta guztien gainetik gizon xarmanta eta maitatua. Bere enterramendu egunean nabaritu zen hori.



ARTXIIIBOKO ARGAZKIA



JOSEBIÑE ETA KORO

Auto ikusgarrien bilkura

Ekainaren 24an geldialdi bat egin zuten dozena erdi bat autok herrian. Denak arras ikusgarriak ziren, baina batez ere horietako batzuk, XX. mendeko Bat Formulakoen gisakoak ematen baitzuten. Autoek ikusmin polita sortu zuten herrian.

Antzinako gauzen azoka uztailaren 21ean eta 22an

Sarl Orfo-Pub elkarteak antolatutako Kukuxu Bestaren seigarren edizioa izanen da

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, antigoaleko gauzen bilgune bilakatuko da herria heldu den uztailaren 21ean eta 22an, Sarl Orfo-Pub elkarteak Kukuxu Besta antolatu baitu seigarren urtez.

Bi egunez, frantziar estatu osotik etorritako 150 erakusmahai baino gehiago paratuko dituzte herrian barna, plazan eta kiroldegian, eta horietan, antzinako hainbat produktu ikusi eta erosteko aukera izanen dute hurbiltzen diren bisitariak: arte bildumak, *vintage* produktuak, liburuak, bitxiak, arropak, alfonbrak...

Uztailaren 21ean, larunbata, 07:30ean irekiko dute azoka eta 19:00 arte karriketan egonen dira erakusmahaiak. Igandean, berriz, uztailak 22, 08:00etatik 18:00etara irekiko dute azoka.



Kukuxu Besta. SARL ORFO-PUB

Ehunka eta ehunka bisitari urtero

2013an egin zuten lehenbiziko aldiz Kukuxu Besta deitu duten antigoaleko gauzen azoka eta geroztik, aldi oroz ehunka eta ehunka bisitari bildu dira. Urtero, 10.000 lagun baino gehiago pasatzen dira azokatik.

Bertzalde, antolatzaileek jakinarazi dutenez, azokan sartzeko ez da fitsik ordaindu beharko.



GANEX

Giro ederra St Josep eskolako bestan

Dantza, antzerki eta kantekin biziki ikusgarri polita eskaini zuten St Josep eskolako 120 bat haurrek ereiarioaren 30ean kiroldegian. Afaria ere parte-hartzailea izan zen, 300 bat heldu bildu baitziren. Antolatzaileek esker oneko solasak izan zituzten haur, laguntzaile eta bildutako afaltiarrentzat.

Eskubaloi jokalariaik departamentu mailako finaletan

Urtxintxak klubeko hiru talde departamentu mailako eskubaloi txapelketako finalean izan dira Billeren. Hirurek galdu zuten. 15 urtez azpikoek 13-24 galdu zuten Kanboren kontra, 18 urtez azpikoek 19-25 Bokaleren aurka eta helduek 22-31 Angeluren kontra.



Urtxintxakoak Billeren. GANEX



LARRUN EZ HUNKI

Larrun Ez Hunkik trenea geldiarazi du

Astero mobilizazioak eginen dituela iragarri du Larrun Ez Hunki kolektiboak. Horietan lehenbizikoa, ereiarioaren 30ean egin zuen. Goizean, 40 bat lagunek tren ttipia geldiarazi zuten Iturriederreko zelaian eta bidaiariei mobilizazioaren arrazoia azaldu zieten.



SARAKO GAZTETXEA

Altsasuko gazteekin elkartasuna

Altsasuko gazteen sustengatzeko eta egoera hori salatzeke elkarretaratzea egin zuten joan den hilabetearen plazan. 30 bat lagun elkartu ziren. Ondotik, Harrera elkartearen *Hau da ere ondasun guzia* dokumentala ikusteko aukera izan zen herriko etxean.

'Laida Pilota' aurkeztuko dute Larrekon bi egunez

Ortzegunean eta ortziralean eskainiko den sorkuntzan, pilota kulturako oinarri gisan erakutsi nahi izan du Pier Pol Berzaitzek

PIERRE BASTRES

Pier Pol Berzaitz muskildiarren 9. sorkuntza dugu *Laida Pilota*, pastoralak aipatu gabe. Izenak iradokitzen duen bezala, pilota da aipagai nagusia, eta berriki egutarazi dute Larreko gelan emanen dutela uztailaren 12 eta 13an, ortzegun eta ortziralean (20:00).

Baditu bi urte nahikaria piztu zaiola, Donapaleun zela bere aspaldiko adiskidearekin Jean Pierre Goiti, Erecart Institutuko lehendakaria eta pilotari ona izana. Pier Polek adierazi bezala, «badik bultta bat Jean Pierrek aipatzen dudala zerbait behar nukela egin pilotaz eta egun batez erabaki dut baietz, eginen niala. Deliberatuz geroztik bi urte iragan dituk, baina xedea behar nuen ondu. Kirola bat izanez gainerat, eskualdungoa, ainitztasuna eta noblezia ere irudikatzen ditik pilotak, plaza-gizonaren baloreek zerbeit erran nahi ditek beti. Bertzalde, herrikoia da, gure kulturari azkarkilotua: lehen, mendietan udako egoiten zituan artzainak hartzen zituan bote

luzean, lanaren ondotik, «pilota soroetan». «Leku horien arrastoak badituk oraino to-kika» gehitzen du Pier-Polek.

Egitasmoa gauzatzeko eta bermatzeko elkarte bat sortu ditek Albert Haztoy lagunarekin, Lilia izenekoa. Eta xedeari artista ainitz txertatu dizkiote. Nundik hasia den galdeginta, Piel-Polek ihardesten du: «Lehen urratsa abesbatza baten atsemaitea izan duk. Pilotan mugimenduak izigarri inportanteak direlaketz, mugitzen ahal den abesbatza baitezpadakoa zuan: Errenteriako Landarbaso Abesbatzak ezin hobeki bazakik egiten hori. Ondotik, dantzak: xiberoarra izaki, ene eskualdeko dantzak ezinbertzekoak ikusten nitian, eta xateletarrek eginen ditek lan hau. Villabonako Oinkari elkarteari esker bertzelako dantzak ere proposatzen ditiagu. Gero artista frangok lan egin ditek edo upatuko dituk oholen gainerat: Magali Zubillaga, Josean Goikoetxea, Haritz Ezeiza eta Iosune Marin musikari eta kantariak, oholtzarako lanak



Ortzegun eta ortziraleko emanaldirako prestaketan. PIERRE BASTRES



Pilota da ikuskizunaren aipagai nagusia. PIERRE BASTRES

egin dituzten Imanol Arabazolaza eta Elixabet Jauregi, Annie Onchalo eta Erramun Garcia jantzien egileak. Erakustaldiko alderdien arteko haria Koldo Ameztuyen hitzak dituk, hunek dohain berezia badik gauzak kondatzeko. Horrez landa bertsuak botako ditik

Xabier Euzkitze bertsolari eta pilotazale ezagunak, Aner bere semearekin».

Baina artistak ez dira agertuko diren bakarrak. «Pilota-riak kantari onak dituk maiz», gehitzen du Berzaitzek, «beraz bai pilotari ohiak bai oraingoak ere kantatuko ditek».

Beratarrak garaile bestetako lasterketan

Berako Manttale taldeko Gwendal Larque (37:44) eta Ane Elzaurdia (46:50) nagusitu ziren Senpereko bestetako hamar kilometrako lasterketan. 41 lasterkaik parte hartu zuten.



MANTTALE



ES 025



BEROPEL

egurrezko pelletak

ECHVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com



Nerea Sorondo txapelduna, Xanta Sousa eta Maika Ariztegiaren artean. NOAUA.EUS

Nerea Sorondo da Euskadiko lehen txapelduna aizkoran

Beratarra uztailaren 1ean Usurbilen jokaturako saioan erraz gailendu zitzairen Iturengo Maika Ariztegi eta Lesakako Xanta Sousari

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 1ean Usurbilen jokatu ziren emakumeen Euskadiko harri-jasotzaile txapelketa eta aizkolarari txapelketa. Azken honetan, Nera Sorondo erraz nagusitu zen, bortz enborrak mozteko 20 minutu eta 3 segundo aski izan baitzituen. Maika Ariztegi iturendarra

bigaren izan zen (24:24) eta Xanta Sousa lesakarra hirugarren (25:10).

Harri-jasotzaile txapelketan ere Idoia Etxeberria erraz nagusitu zen hiru probatan eta berarentzat izan zen txapela. Zilindrikoa 19 aldiz altxatu zuen Orioko kirolariak. Kubi-koa bertze 19 alditan menpe-

ratu zuen eta harri borobila-ekin 26 altxaldi egin zituen. Beraz, 64 altxaldi denera, 4.172,5 kilo. Txapela irabaziz eta marka berria eginez, oroi-tarrak harriak jasotzeari utzi-ko diola iragarri zuen.

Karmele Gisasola izan zen bigarren eta Julia Martinez segoviarra izan zen hirugarren.

Lesakako XV. Rallysprint-a uztailaren 21an

Lesakako Rallysprint-aren hamabosgarren edizioa uztailaren 21ean antolatu du Ilargi Sport eskuderiak, Kote-to Altzugarai taldekidea go-goan. Larunbatean, 08:00etatik 11:00etara egingen dituzte egiaztapenak eta 12:00etan itxiko dute errepidea. Lehendabiziko autoa 13:00etan abiatuko da.

Nafarroako erremon-te txapelketa gurean

Nafarroako erremon-te txapelketaren baitan, uztailaren 27an Elizondon jokaturako dituzte partidak (19:30). Lehen mailan, Ezkurra II.a eta Ion, Urtasun eta Barrenetxea IV.aren kontra eta promozio mailan, Eloy eta Juanenea, Barricart eta Olanoren kontra. Irailaren 21ean Donezteben izanen dira partidak (19:00). Lehen mailan, Uterga-Etxeberria III.a, Ezkurra II.a-Ionen kontra eta promozioan, Eloy-Juanenea, Al-dabe-Martirenaren kontra.



MAIALEN ANDRES

Eloy-Zubiri txapeldunorde Promozioan

Pronostikoak bete eta erremon-teko promozio txapelketa irabazi dute Etxarrik eta Labakak, Eloy Garcia doneztebarrari eta Aritz Zubiri goizuetarrari 20-40 irabazita. Etxarrik eta Labakak txapelketako partida guztiak irabazi dituzte, eta finalean nahi eta ezinean ibili ziren Eloy eta Zubiri.



ANAITASUNA

Ibai Meoki Anaitasunara bueltatu da

Doneztebeko Erreka eskubalo taldeko bertze harribitxietako bat Alemaniatic Nafarroara bueltatu da. Ibai Meoki 2005ean joan zen Alemaniara. Bi urtez, bigarren mailako Saarlouis taldean aritu zen eta azken denboraldian, Eisenach taldean, maila berean. Orain, Iruñeko Anaitasunara bueltatuko da.

250 korrikalari atera dira Doneztebeko XL. Krosean

Lasterketa luzean Imanol Cruz eta Majida Maayouf nagusitu ziren eta laburrean, Ibai Berazierto eta Rosa Orofino

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE
Doneztebeko karrikak korrikalariz bete zituzten ekainaren 24an, Erreka elkarteak berrogeigarren urtez antolatutako krosean. Igande goizeko 10:30ean ttikienak hasi ziren eta proba nagusiarekin akitu zuten. 7,3 kilometroko lasterketan Rioja Añares taldeko Imanol Cruz eta Club Bilbao Atletismo taldeko Majida Maayouf nagusitu ziren eta aurtengoan berrikuntza izan den 3,7 kilometroko laburrean, Ibai Berazierto eta Rosa Orofino.

Nagusien lasterketak bikainak izan ziren. Luzeenean, Rioja Añares taldeko Imanol Cruz nagusitu zen (24:03) eta Antonio Etxeberriak (24:07) eta Aimar Bouzinek (24:43) osatu zuten podiuma. Laugarren, iaz txapeladun suertatu-

tako Alberto Barberena baztandarra izan zen (24:59) eta bosgarren, lehen herritarra, Iñigo Lasaga (25:23). Manttalleko Gwendal Larque beratarra zarpigarren izan zen (26:03) eta Santi San Miguel doneztebarra zortzigarren (26:21).

Emakumezkoetan, Club Atletismo Bilbao taldeko Majida Maayouf izan zen garaile (26:17), Santutxuko Maite Arraiza (28:11) eta Beste Iruña taldeko Marina Vicenteren aitzinetik (28:39). Maider Mingdegia izan zen aurtengoan ere lehen herritarra, seigarren postuan (33:03) eta Naroa Telletxea iturendarra zarpigarren izan zen (35:04).

Lasterketa laburrean, Ibai Bereziarto zarautzitarra (12:29) eta Rosa Orofino (16:29) nagusitu ziren. Gizonezkoetan Tolosako Iraitz Pikabeak (13:00)



Lasterketa luzean gizonezkoen eta emakumezkoen podiumak. ERREKA

eta Xabier Urruzolak (13:49) osatu zuten podiuma eta Jokin Apezetxea izan zen lehen herritarra (13:52). Emakumezkoetan, Leire Uterga (18:44) eta Edurne Anzizar (19:18) doneztebarrek osatu zuten podiuma.

Sari banaketan, Errekako ordezkariekin batera, Doneztebeko Udalekoak eta babesle den La Caixakoak izan ziren. Akitzeko, korrikalarien artean zozketak egin zituzten. Berrogei urte bete ditu aurtengo lasterketak eta Errekatik, bertze horrenbertze egiteko prest daudela jakinarazi dute.

DONEZTEBEKO KROSA

SAILKAPENAK IBILBIDE LUZEA

GIZONEZKOAK

1. Imanol CRUZ (Rioja Añares) **24:03**
2. Antonio ETXEBERRIA (B.Iruña) **24:07**
3. Aimar BOUZINE (C Bilbao) **24:43**

EMAKUMEZKOAK

1. Majida MAAYOUF (CA Bilbao) **26:17**
2. Maite ARRAIZA (Santutxu) **28:11**
3. Marina VICENTE (B.Iruña) **28:39**

SAILKAPENAK IBILBIDE LABURRA

GIZONEZKOAK

1. Ibai BERAZIERTO (Zarautz) **12:29**
2. Iraitz PIKABEA (Tolosa) **13:00**

EMAKUMEAK

1. Rosa OROFINO (Beste Iruña) **16:29**
2. Leire UTERGA (Erreka) **18:44**



RAFAEL ENETERREAGA

Zubigaibeko I. Krosa egin dute Lesakan

Lehen aldiz Zubigaibeko Krosa antolatu du Lesakako Beti Gazte elkarteak uztailaren 1ean. Herriko zubietan 5 kilometroko ibilbide dotorea prestatu zuten. Arantzako Iñaki Igartua Fagoaga izan zen bizkorrena. Peñen arteko lehian Añarrak izan zen irabazle. Tikiak ere aritu ziren lasterka.



UTZITAKO ARGAZKIA

Donosti Cup jokoan Beran eta Lesakan

Errusian Munduko futbol txapelketa jokatzeko bitartean, uztailaren lehen astean, Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketako partidak hartu zituzten Berako Matxada eta Lesakako Mastegi futbol zelaiek. 12 eta 18 urte arteko neska-mutilak lehian aritu ziren.

UZTAILAK 12 - 26

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

BERA

Bestetako danborradarako entseguak

Herriko etxeko plazan uztailaren 26an eta 30ean, 20:00etan. Izen-ematea: uztailaren 20a bitarte.

AURKEZPENAK

SENPERE

'Laida Pilota' lanaren aurkezpena

Uztailaren 12an eta 13an.

IKUSKIZUNAK

ETXALAR

Lizaletako gainean muxikoak

Uztailaren 15ean, 12:00etan.

SARA

Bi orduko ikuskizuna

Pilota partidak, dantzak eta herri-kirolak.

Uztailaren 24an, 19:30ean, plazan (euria ari badu Erabilera Anitzeko Aretoan).

HITZALDIAK

SARA

Saguzarren bizia hizpide

Saguzarrak ikusteko aukera. Uztailaren 19an, 20:00etan.

KIROLA

BERA

3x3 saskibaloi txapelketa

Txapelketa herrikoia. Toki Onan (euria ari badu kiroldegian), uztailaren 28an, 16:00etan.

Plater tiroa

Uztailaren 12an, 16:30ean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

ARANTZA Emakumearen Oroimen Baratzea

Harritik Hazia antzerkian haziak banatu zituzten; orain, landaketa. Uztailaren 15ean, igandean.

3x3 saskibaloi txapelketa

Elite mailakoak. Toki Onan (euria ari badu kiroldegian), uztailaren 29an, 16:00etan.

Txirrindularitza proba

Uztailaren 29an.

Herri-kirolak

Uztailaren 29an.

SARA

Mendi ibilaldi gidatua

Uztailaren 20an, 09:30ean.

ETXALAR

Gaueko kontrabando ibilbideak

8 kilometroko ibilbide gidatua. Uztailaren 21an, 21:00etan (8 euro).

KONTZERTUAK

SARA

Atsulai abesbatza

Elizan, uztailaren 12an, 21:30ean.

ARANTZA

Don Inorrez

Aterpean, uztailaren 12an, 19:30ean.

Joseba Irazoki eta Mikel Uraken

Aterpean, uztailaren 20an, 19:00etan.

Eme

Aterpean, uztailaren 21ean, 22:30ean.

Trini fox

Aterpean, uztailaren 27an, 22:30ean.

ELIZONDO

Paxkal Irigoyen, Kaskezur eta Borrokan taldeak

Uztailaren 15ean, 18:00etan hasita.

BESTAK

ELIZONDO

Herriko bestak

Uztailaren 24tik 28ra bitarte.

ELGORRIAGA

Herriko bestak

Uztailaren 25etik 29ra.

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 13tik 16ra.

ARANO

Herriko bestak

Uztailaren 25etik 29ra.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

Emakumearen Oroimen Baratzea

Uztailaren 15ean.

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 22an.

Elkartasun eguna

Uztailaren 15ean.

AZOKAK

SARA

Artisauen azoka

Herriko plazan, uztailaren 2tik irailaren 10era bitarte, astelehenero, 09:00etan.

Ekoizleen azoka

Plazan, ortziralero, 16:30etik 20:30era.

Antzinako gauzen merkatua

170 artisau baino gehiagoren lanak ikusteko aukera. Kiroldegian, uztailaren 21ko 12:00etatik 23ra bitarte.

SENPERE

Artisauen azoka

Plazan, astearte goizero, 08:00etatik aitzinera.

Ekoizleen azoka

Plazan, larunbatero, 08:00etatik aitzinera.



ONDIKOL

ELIZONDO Baztandarren Biltzarra

Hamabortz herrietako baztandarrak biltzeko hitzordua.
Uztailaren 22an, igandean.

TAILERRAK

ARANO

Buruhandiak egiteko tailerra

Festetarako buruhandiak eginen dituzte.

Maisuenean, asteazkenero,
19:00etatik 21:00etara bilduko dira.

IGANTZI

Plisti-plasta Liburudategia

Aldizkariak eta liburuak, ipuinak, marrazkiak, eskulanak...

Igerilekuan, uztailaren eta abuztuaren, astelehenetik ortziralerara, 17:30etik 19:30era bitarte.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Alava Sareari buruzko erakusketa

Arizkunenean, uztailaren 18ra bitarte, astelehenetik ortziralerara, 17:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO, ARIZKUN, ERRATZU

Artearen ibilbidea

Margolanen, eskulturen, argazkien eta literatur lanen erakusketa.

Uda osoan (xehetasunak 48. orrialdean).

SARA

Pintura eta eskultura erakusketa

Larungo Koloreak Elkartean, uztailaren 23an, 10:30ean.

OIEREGI

Cigaren margo erakusketa

Arizkunenean, uztailaren 20tik abuztuaren 20ra bitarte, goizez 10:30etik 13:30era eta arratsalde 16:00etatik 19:00etara.

IKASTAROAK

DONEZTEBE

EGA ikastaroa

Presentziala edo on-line.

Abuztuaren 6tik 31ra, izen-emea: abuztuaren 3ra arte.

Nire aukera

«Orgaren bueltan sortzen den giroa aunitz gustatzen zait»

MAIALEN IANTZI BERROETAKO GAZTEA

Bertsolaritza, mendia, literatura, argazkilaritza... zaletasun dituen «24 urteko neska alaia» eta «normalean etxean gelditzen ez den horietakoa» da Maialen Iantzi. Laster Baztandarren Biltzarra, «denak batzeko aukera ezin hobea eskaintzen duen egun handia», izanen dute, eta dagoeneko horri begira dago. Izan ere, «Baztandarren Biltzarra ez da egun bakarreko besta.



UTZITAKO ARGAZKIA

«DENEN ARTEAN EGINEZ GERO EZ DA LAN HANDIA; NAHI DUTENЕК ATEAK ZABALIK DITUZTE»

Aitzinetik lana eskatzen du». Aurten berroetar gazteak antolakuntzan «bortzgarren» urtea du eta «tonbolako komisiolan» ari da lanean: «Baztango komertzioek emandako salgaiekin zozketa prestatzen dugu eta boletoak saltzen ibiltzen gara». Egunean bertan gainerako lanak egiteko boluntarioak «aitzinetik lotuak» izaten dituzte. Eta «zenbaitetan zerbitzariak

harrapatzeko lanak izaten baditugu ere, normalean ez da problemarik izaten». Besta kolokan egon dela entzuteak «pena handia» eragiten dionez, «denei hainbertze gustatzen zaigun eguna antolatzeak merezi duela eta denen artean eginez gero ez dela lan handia» nabarmendu nahi izan du «nahi dutenek ateak zabalik dituzte» adieraziz. Era berean, lanaren uza jasotzean «antolatzen pasatako orduak berehalaxe atzentzen dira» gaineratu du. Egunaren bueltan herrian sortzen den giroa «ikaragarri» gustatzen zaio Maialen Iantziri. Normalki «San Juan suaren bueltan ideiak botatzen ditugu eta bertan gaudenon artean erabakitzen da zer egin». Hortik aitzinera, aurreikusitakoaren arabera, ekiten diote lanari: «batzuetan lan guttiarekin nahiko izaten da, bertzee zenbaitetan egun gehiago behar izaten ditugu». Halere, «karro gainerako lana beti bertsuek egiten dute eta gainerakoak, antzerkia prestatzea, kartela, arropak biltzea...» bertzee artean banatzen dituzte: «azken astean nabaritzen da mugimendu gehien». Egun horietan ageriko egiten da Berroetak duen berezitasuna: «elkartasuna, herriaren arteko giroa, herri ttikien xarma».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

BERA. Legia, 19-1.C pisua salgai. 87 m², igogailuarekin eta trastelekuarekin. Berritua. 3 logela, armairu enpotratuak, bainugela, komuna, sukaldea eta jangela. ☎636 674116.

ERRENTAN EMAN

LESAKA. Pisua errentan emateko. Bi irakaslerentzako. Irailetik ekainera. ☎ 948 637862 / 678 855056.

LESAKA. Bifamiliarra salgai. Bortz logela, hiru komun, sukalde eta egongela haundiak, garaje haundia eta lorategia. Prezio negoziagarria. ☎ 618 188300.

ERRENTAN HARTU

HENDAIA. Eskualdeko bikote batek Hendaian etxebizitza errentan hartu nahi du, epe luzerako. ☎ 622 831225/ 670 238139.

Jubilatuak bikote batek lur pixka bat duen pisua edo etxea errentan hartu nahi du. ☎ 692 609856.

ETXE KONPARTITUAK

BERA. Beran bizi den neska bat bertze neska edota nesken bila pisu bat konpartitzeko. ☎ 658 998586.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Correos azpian 80x22 metroko garajea salgai. ☎ 620 973349.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

SUNBILLA. 25.000m²ko lursaila salgai. Nekazaritzako tresnertzako txabola egiteko aukerarekin, 9.000 euro. ☎ 698 511525 (Jose Mari).

DONAMARIA. 1.400m²ko lursaila salgai. Nekazaritzako tresnertzako txabola egiteko aukerarekin, 7.000 euro. ☎ 693 694976.

BERTIZARANA. 28.000m²ko lursaila duen borda salgai. Etxebizitza eraikitze baimena, ibilgailuentzako sarrera, ura eta argiarekin. ☎ 648 851393.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

LANA

ESKAINITZAK

LESAKA. Batzokian, lanean aritzeko norbait behar dute: sukaldean, ostatuan... aritzeko. ☎ 695 669831.

ARRAIOZ. Bi monitore euskaldun behar dituzte, uztailaren 16tik 20ra ludotekan lan egiteko. Ahal bada, irakaskuntzako edo gisako goi mailako ikasketak egiten ari dena. Aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztea nahitaezkoa izanen da. ☎ 646 483706. txuritabeltz@gmail.com.

Ile-apaindegi batean **laguntzailea** behar dute. ☎ 636 827980.

URDAZUBI. La Koska jatetxean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar dute egunero lan egiteko. ☎948 599042.

LESAKA. Kafetegi batean egun osoan lan egiteko lagun bat, edo egun erdiz

lan egiteko bi lagun behar dira. ☎620 700964 / 661 845053.

BERA. Auzoa ostatuan langileak behar dituzte, interesatuak jarri harremanetan Whatsapp bidez. ☎657 472020.

ESKARIAK

Adinekoak (interna edo orduka) edota haurrak zaintzeko eta garbiketan aritzeko lan bila. Lan horietan esperientziaduna. ☎ 664 149530.

Zonaldean adinekoak edota haurrak orduko zaintzeko lan bila. ☎ 622 015725.

Neska gaztea udan haurrak zaintzeko lan bila. ☎ 671 780645 / 677 099599.

Adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketan, saltzaile edota zerbitzari bezala aritzeko prest dagoen neska lan bila. Lanean hasteko eta ordute-

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,70/7,30
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 47 €

Zerri gizona 1,208 €

Zerramak 0,550€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (ekainaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

gi aldetik libre dagoena. ☎ 658 998586.

Neska arduratsua lan egiteko gogoarekin: haurrekin esperientziaduna haurrak zaintzeko prest, fabrikaren batean edo beste edozertan... ☎ 687 222320.

Esperientzia duen emakumea lan bila, eskualdean orduka adinekoak edota haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota etxeko lanak egiteko. ☎ 644 778212.

ZERBITZUAK

DENETARIK

ITUREN. Lorategiak zaindu eta kima-keta lanak egiten ditut. ☎ 617 629730 (Juan).

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Txakurkumeak oparitzeko: Border Collie mestizoak, ama eta amaren aita ardiekin lanean. ☎ 622 774110.

LEITZA. Collie arrazako zakurkumeak oparitzeko, bi hilabete ingurukoak. ☎948 610689 / 636 022311.

SALGAI

Lau urteko **zezen** limusina salgai, kartaduna. Bi **behi mestizo** ere salgai. ☎ 943 683060.




Setter arrazako zakurkumeak salgai. Ama eta aita ehiztari onak. ☎607 217637.

DENETARIK

BERTZELAKOAK

LESAKA. Eguzki elkarte gastronomikoa bazkide berri izan nahi duen talde edo lagun kuadrilla baten bila dabil. ☎627 253840.

SALEROSKETAK



Hiru balkoi osorik salgai, bi ate-koak, haritz egurrezkoak. 1,05 (zabalera) x 2,08 (altuera), markorik gabe. Climalit kristal bikoitzeak. Prezio negoziagarria. ☎ 656 710411.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak ERRAN.EUSen ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki hauek guztiak Interneten: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

GANIX
Tailerra
948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK
RENAULT
Estreintu gabea
21.300€
KADJAR ZEN DCI 130 CV Nabigatzailea, apark. radarra kamararekin aurrean-atzean, 6 marba
Estreintu gabea
17.500€
MEGANE ZEN DCI 110 CV Nabigatzailea, klimatiz., apark. radarra, 6 marba
Biak sustapen finantzieroei lotuak
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333
Kotxe salmenta | Marka guztiak
Kotxe berriak **SUZUKI**
TOYOTA RAV 4 2.0 2004 urtekoa
100.000 km • 3 ate • 150 CV
OPEL ASTRA J • 110 CV
2014 urtekoa • 40.000 km
www.mendaurmotor.es

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
800€
500€
400€
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7-1. 31770 LESAKA

T. 948 63 54 58

www.kulturkari.com

Komunikazio elementuak garatzen ditugu, zure beharretara egokituak

IRUDI KORPORATIBOA

Logoak | Papergintza

ARGITALPENAK

Aldizkariak | Katalogoak | Bestetako programak | Udal aldizkariak | Folletoak | Liburuak | Mapak

BERTZE EUSKARRIAK

Boletoak | Pegatinak | Lonak | Roll-up
Panelak | Poltsak | Txapak | Rotulazioak

EGUTEGIAK ETA AGENDA

Sakelekoak | Paretakoak | Mahai gainekoak



HERIOTZAK

- **Jean Mouhica,**
Erratzukoa, ekainaren 18an, 94 urte zituela.
- **Jacinta Inda Arregi,**
Donamariakoa, ekainaren 20an, 91 urte zituela.
- **Jaime Jubera Lusarreta,**
Zigakoa, ekainaren 21ean, 92 urte zituela.
- **Fco Antonio Del Valle de Lersundi Del Valle,**
Goizuetakoa, ekainaren 23an, 87 urte zituela.
- **Juanita Sarratea Ibarra,**
Oieregikoa, ekainaren 24an, 83 urte zituela.
- **Rufina Altzuguren Mikelperizena**
Berakoa, ekainaren 25ean, 95 urte zituela.
- **Primo Gonzalez Gonzalez,**
Berakoa, ekainaren 25ean, 86 urte zituela.
- **Miguel Perez Palomo,**
Berakoa, ekainaren 27an, 83 urte zituela.
- **Maritxu Goienetxe Etxandi,**
Elbetekoa, ekainaren 27an, 90 urte zituela.
- **Salvador Iriarte Sansiñena,**
Arizkungoa, ekainaren 28an, 92 urte zituela.
- **Juan Bautista Madariaga Elizondo,**
Arantzakoa, ekainaren 28an, 92 urte zituela.
- **Jose Javier Zubillaga Camino,**
Zugarramurdikoa, ekainaren 29an, 54 urte zituela.
- **Jose txo Mendioroz Fagoaga,**
Elizondokoa, ekainaren 30ean, 89 urte zituela.
- **Juan Ángel Viela Eugi,**
Iruitakoa, ekainaren 30ean, 82 urte zituela.
- **Agustin Arretxea Manterola ,**
Sunbillakoa, uztailaren 1ean, 82 urte zituela.
- **Felix Angel Del Moral Fraguas,**
Elbetekoa, uztailaren 2an, 94 urte zituela.
- **Iñaki Urra Zarketa,**
Lesakakoa, uztailaren 3an, 66 urte zituela.
- **Martin Almandoz Aiertza,**
Doneztebekoa, uztailaren 4an, 78 urte zituela.
- **Ana Mari Aizkorbe Telletxea,**
Iturengoa, uztailaren 4an, 86 urte zituela.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena Nafarroa garaiko mendialdean

URTEURRENA

Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ

Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean
IV. urteurrena



Joan zinen bueltako txartelik gabe,
irribarra eta begirada hura gure bidean gelditu ziren nerabe,
nahiz eta gure bihotzak duten atsekabe,
guk ez zaitugu inoiz utziko zure bide berri honetan babes gabe,
izan ere izarretara zuri bisita egiteko bidea egiten ari garelako burujabe.

GOIZANE LEHENGUSINA

IRACHE

tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN

Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN:
ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK:
BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA:
DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com



web: funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



Europako gailurrera. Ibai Iturria, Imanol Moreno eta Ugaitz Ado beratarrek eta Xabi Etxegarai lesakarrak Europako mendirik garaiena den Elbrus (5.642 metro) zapaldu zuten ekainaren 28an. Berez, biharamunean egitea aurreikusia bazuten ere, eguraldia tarteko, bezperan egin zuten. Ekainaren 22an hartu zuten Errusiarako bidea, Hondarribiatik, eta etxerako bidea hartu aitzinetik, hondarreko egunak Mosku ezagutzeko aprobetxatu zituzten. Uztailaren 7an ailegatzekoak ziren etxera. Zorionak!

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaguztu eta bidalguztu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttapa-ren egoitzan

Etor zaitetz Ttipi-Ttapa-ren bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Nahia Opoka Iriarte**, Narbartekoa, ekainaren 21ean.
- **Laia Aioroa Claver**, Iturengoa, ekainaren 18an.
- **Justine Hernandez Zubiria**, Lesakakoa, ekainaren 22an.
- **Oier Perurena Zozaia**, Urrozkoa, ekainaren 18an.
- **Unax Perurena Zozaia**, Urrozkoa, ekainaren 18an.

EZKONTZAK

- **Joseba Pikabea Iribarren** eta **Eduarne Orbegozo Beldarrain**, Arantza eta Azpeitikoa, ekainaren 23an Arantzán.
- **Estephane Gorosurreta** eta **Mikela Gerard**, Sarakoak, ekainaren 16an Saran.
- **Antoine Devey** eta **Rebeca Diaz-Pando**, Sarakoak, ekainaren 22an Saran.
- **Manex Altuna Urreaga** eta **Nekane Orkaizagirre Aginaga**, Urrietakoa eta Oiarzungoa, ekainaren 2an Artikutzan.
- **Luis Maria Garaioa Arizkuren** eta **Paula Lopez Rodriguez**, Iruñekoak, ekainaren 22an Etxalarren.

URTEBETETZEAK



Berako Alain
Endara Rodriguez-
ek 6 urte beteko
ditu uztailaren
13an. Zorionak
futbolari! Atta, ama,
Nahia eta Berako
familiaren partetik.



Irene Petrirenak
36 urte beteko ditu
uztailaren 12an.
Zorionak Aritz,
Enaitz, Izarne eta
attaren partetik.
Prestatu berendu
goxoa!



Zorionak Olaia! Uztailaren 14an bi urte
beteko ditu. Prestatu merendu goxo-goxoa.
Muxu pila familia guziaren partetik.



Aiala Ziluaga Iturriak uztailaren 6an 6 urte
bete ditu. Aunitz urtez gure neska jatorrari!
Asko maite zaitugu!



Ainara eta Maialenek uztailaren 13an eta
21ean urteak beteko dituzte. Aunitz urtez!



Julen Mitxeltorena
Etxeberriak urtea
bete du ekainaren
28an. Zorionak! lada
urteko bat gurekin!
Muxuak Beintza eta
Doneztebetik, maite
zaitugu.



Lakuntzako Maddi
San Sebastian
Arraizak abuztuaren
13an urteak beteko
ditu. Familia
guziaren partetik
besarkada bat eta
ongi pasa eguna.



Uztailaren 27an
Lakuntzako Aitzol
San Sebastian
Arraizak 9 urte
beteko ditu. Familia-
ren partetik besar-
kada erraldoi bat eta
ongi pasa eguna.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta
senitartekoak!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak>
helbidean sartu. Egun berean edo
hurrengo lanegunean argitaratuko
da webgunean, baita hurrengo
aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitetz Ttipi-Ttapa-ren bulegora

edo bidali argazkia eta testua
gutun-azal batean: Koskontako
bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz
0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz
5 edo 10 €ko txekia.
- (4) erran.eus bitartez.


PLAZAN BAZAN



HAN ETA HEMEN

Erreparatu ongi. Badira hogeia gauza bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zortzi irudi zati hauek irudi nagusitik hartuak iruditzen al zaizkizu? Erne, zortzitik hiru besterik ez baitira onak. Zeintzuk?



ARROTZA

Elementu hauen artetik batek ez du multzoan egoteko baldintza nagusia betetzen. Zein da eta zergatik?



INTERNETEN ERE BAI !



<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak:
www.plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

PAREAK BAI

Galtzerdi mordo honen artetik batek parerik ez du, eta beste galtzerdi bat, berriz hirukoiztuta dago. Zeintzuk dira?



Ttapi Txartela

ekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

713

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Arantxa Oteiza Iriarte | NARBARTE

Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera

M^a Asunción Perurena Iribarren | IRUÑEA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

M^a Luisa Tomasena Mihura | URDAZUBI

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Mikaela Martinikorena Matxain | ARESO

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Jesus Ado Barberon | BERA

La Rhune - 2 sarrera

M^a Josefa Iriarte Ibarra | DONEZTEBE

Wow Park - 2 sarrera

Celestino Barrenetxe Agerrebere | ANIZ

Elkar - Liburu bat

M^a Karmen Bidart Zaldain | ARIZKUN

Elkar - Liburu bat

Jabier Zubigarai Mitxelena | LESAKA

2 tiket

BAZTAN AVENTURA PARK
ELIZONDO

BKZ AVENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZORION ARIZKUN
Astitz

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera

AQVARIVM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka! Zientzia Museoa
Museoa+Planetario

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

BUATXABAL
Basque Clothing Co.

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

LA RHUNE

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA

Wowpark
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK

Kanguruak zootik ihesi
Mirari hegalarri
Erregina bahitua

ibaizabal
www.ibaizabal.com

LA GUNTZAI LEAK

elkar

www.elkar.eus

ZUGARRAMURDIO SORGINEN LEZEA

www.turismozugarramurdi.com